

EMAKUMEEN KONTRAKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALENTZAKO GIDA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAGILEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDALIBURUA



EMAKUNTZA ETA GIZARTE
ERAKUNTZEEN ARLOA
SERVICIOS DE MUJERES
Y ASUNTOS SOCIALES



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
BIZKAIA
REGIÓN DE ALAVIA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Foro de las Mujeres en Empleo en Gipuzkoa y Diputación Foral de Guipúzcoa para la Gestión Municipal de Empleo y Asesoramiento



EUSKADIKO GIZALAN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

12

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
GASTEIZ 2006

EMAKUMEEN
KONTRAKO TRATU TXARREN
ETA SEXU-INDARKERIAREN
AURREAN JARDUTEKO
GIZARTE ZERBITZUETAKO
PROFESIONALENTZAKO
GIDA


IZENBURUA:	"Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida"
EDITOREA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
KOFINANTZAKETA:	Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Saila, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia
MAKETAZIOA ETA KOORDINAZIOA:	ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua
DATA:	2006ko uztaila
ALE-KOPURUA	3.000
DESKRIBATZAILEAK:	Tratu txarrak, sexu-indarkeria, gizarte-arloko esku-hartzea, gizarte zerbitzuak, herri administrazioa, ekintza positiboak, itaunketak, direktorioak, gidak
DISEINU GRAFIKOA:	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón
ILUSTRATZAILEA:	Ibon Garagarza
INPRIMATEGIA:	Esda inprimategiak, S.L. Padre Larramendi, 1-5. 48012 Bilbao
ISBN:	84-89630-04-6 / 978-84-89630-04-8
LEGE GORDAILUA:	BI-1822/06

Salneurria: 5 euro


AURKIBIDEA

AURKEZKENA	7
<i>LEHENENGO ZATIA: ALDERDI OROKORRAK</i>	13
1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA EMAN ZAIZKION IZENDAPEN DESBERDINAK	15
2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARLO FAMILIARREAN ETA/EDO AFEKTIBOAN	19
2.1. Tratu txarraren ezaugarriak	24
2.1.1. Arazoaren garrantziari buruzko zenbait datu	24
2.1.2. Tratu txarren dinamika: Indarkeriaren zikloa	27
2.1.3. Tratu txarrekin elkar bizitzearen ondorio kaltegarriak haurrengan	32
2.2. Tratu txarrak ematen dituztenei eta tratu txarrak jasotzen dituztenei buruzko mitoak eta estereotipoak	34
2.3. Tratu txarrak eragiten dituzten arrazoiak. Tratu txarren etiologiari buruzko azalpen-teoriak	38
3. SEXU-INDARKERIA	43
4. BIBLIOGRAFIA	47
<i>BIGARREN ZATIA: ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETA</i>	51
5. ANTZEMATEKO GIDA. INDARKERIAREN ADIERALEAK	53
6. ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ESKAINTZEN ZAIEN LAGUNTZA HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENA ..	61
6.1. Gizarte zerbitzuen arloan jarduteko protokoloa. Jardunbidearen xehetasunak ...	64
6.2. Gizarte-arloko esku-hartzea	67
6.2.1. Larrialdietako esku-hartzea	68
6.2.2. Tratu txarrak hartu dituen emakumearen erabakia	73
6.2.3. Balorazioa	76
6.2.4. Deribazioa	77
6.2.5. Jarraipena	78

6.2.6. Gizarte- eta erakunde-baliabideak	79
6.2.7. Emakume etorkinekin eta ezinduekin esku hartzerakoan kontuan izan beharreko alderdiak	89
7. ERANSKIN METODOLOGIKOAK ETA DOKUMENTALAK	95
7.1. Gizarte-arloko esku-hartzeko gomendioak	97
7.1.1. Gizarte-arloko esku-hartzea larrialdi-egoeran	97
7.1.2. Tratu txarrak ematen dituzten gizonekin esku hartzea eta bikoteentzako aholkularitza psikologikoa	107
7.1.3. "Burnout"	109
7.2. Informazioa biltzeko ereduak eta bidaltze-txostena	110
7.3. Gizarte zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa	127
7.4. Lege-esparrua	157
8. BIBLIOGRAFIA	163



AURKEZPENA



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta, 2001eko urriaren 18an Euskadiko gorengo agintariak (1) *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko akordioa* sinatu zuten.

Akordio honek 1993. urteaz geroztik indarrean izan diren koordinaziorako akordioak osatu eta hobetu ditu; beraren helburua arlo honetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, mota honetako indarkeria jasaten duten biktimei babes osoa bermatzeko osasunaren, polizia-aren, justiziaren eta gizartearen esparruetan. Horretarako, batetik, kasu hauetan parte hartzen duten profesionalak jarduteko protokoloa ezarri da eta, bestetik, akordioa sinatu duten erakundeek konpromisoa hartu dute Akordioaren edukiak profesionalen artean ezagutarazteko, prestakuntza-planak abiarazteko eta akordioa benetan aplikatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide material eta teknikoak eskaintzeko.

Akordioaren bidez, era berean, bi organo eratu ziren haren jarraipena egiteko eta erakundeek hartutako konpromisoen burutzapena sustatzeko: Jarraipen Batzordea (2) eta Erakunde arteko Talde Teknikoa; Batzordean Akordioan parte hartzen duten erakundeetako ordezkari politikoak daude eta Talde Teknikoan ordezkari teknikoak.

Organo hauek egin duten lanari esker arlo honetako jarduketak gehitu dira eta koordinazioa areagotu da. Hain zuzen ere, erakunde sinatzaileek, bakoitzak bere jardun-eremuan egindako ekintzez gainera, hainbat jarduketa egin dituzte elkar hartuta Akordioaren esparruan: urteko ekintza planak eta haien ebaluazio-txostenak, sentsibilizazio-kanpainak, liburuxka informatiboak, profesionalentzako trebakuntza planak eta jarduteko protokoloak, biktimentzako segurtasun planak, etab.

Honako dokumentu hau ere erakundeen arteko lankidetzaren eta Akordioaren esparruan batera egindako lanaren emaitza da; zehatzago, Erakunde arteko Talde Teknikoari atxikitako Gizarte Zerbitzuen Azpibatzerdearen (3) jardunaren ondorioa da.

(1) Lehendakaria, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari gisa; Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkari gisa; Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko fiskalburua, Fiskaltzaren ordezkari gisa; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko diputatu nagusiak, bakoitza bere aldundiaren ordezkari gisa; Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteko lehendakaria, Euskadiko udalen ordezkari gisa; Legekarien Euskal Kontseiluko lehendakaria eta Medikuen Euskal Kontseiluko lehendakaria, bakoitza bere elkargoko kideen ordezkari gisa.

(2) Batzordeko burua Emakundeko zuzendaria da, eta gainerako kideak ondoko erakundeetako sailburuordeak edo antzeko mailako kargudunak dira: epailetza; fiskaltza; Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saila, Herrizaingo Saila, Osasun Saila, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiak; Eudel-Euskadiko Udalen Elkartea; Legekarien Euskal Kontseilua; Medikuen Euskal Kontseilua.

(3) Hauxek dira Azpibatzerdeko kideak: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiak; Eudel-Euskadiko Udalen Elkartea; Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

"Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko" dokumentua Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak finantzatu eta argitaratu dute. Bere helburua gizarte zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei eta sexu-indarkeria jasaten dutenei laguntzeko informazioa eta jardun-jarraibideak ematea da. Gidaren lehen atalean indarkeria mota honi buruzko gai teorikoak eta orokorrak landu dira, eta bigarrenean alderdi praktikoagoak: gizarte zerbitzuek honelako kasuetan esku hartzeko jarraibideak eta gomendioak.

Horrez gainera, gida honetan datuak biltzeko fitxa bateratua ere sartu da eta bi helburu ditu: arloko profesionalak biktimei elkarrizketa egiteko erreferentzia eta lagungarri izatea, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan datu homogeenak biltzea, arlo honetako politikak eta jarduketak prestatzeko erabili ahal izateko.

Uste dugu dokumentu honi esker errazago eta eginkortasun handiagoarekin jardun ahal izango dutela gizarte zerbitzuetako langileek. Izan ere, lehenetsuneko baita demokraziaren oinarriak zulatu eta kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko ikaragarriak sortzen dituen gure gizarteko gaitz hori desagerraraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko uztailaren 20an.

JAVIER MADRAZO LAVÍN jn.
Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza
eta Gizarte Gaietako sailburua

AINHOA DOMAICA GOÑI and.
Arabako Foru Aldundiko Gizarte
Gaietarako foru diputatua

JUAN MARÍA ABURTO RIKE jn.
Bizkaiko Foru Aldundiko
Gizarte Ekintzako foru diputatua

MARÍA CARMEN MARÍN GURUCEAGA and.
Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako,
Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko
foru diputatua


IZASKUN MOYUA PINILLOS and.
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaria


ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu dokumentu honen prestakuntzan alde edo moldez parte hartu duten erakunde eta profesional guztiei, eta batez ere Belen Martinez Menendez, berak egin baitzituen lehen zirriborroak. Eskerrak halaber, testuari ekarpenak egin dizkioten Akordioko erakundeetako profesionalei, eta Donostiako Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolari.


LEHENENGO ZATIA

ALDERDI OROKORRAK





1. **E**MAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA EMAN ZAIZKION IZENDAPEN DESBERDINAK



Europako Kontseiluko ministroen batzordeak Europar Batasuneko kide diren estatuei emakumea indarkeriaren aurka babesteari buruz emandako gomendioaren (1) eranskinaren arabera, "emakumearen aurkako indarkeria" terminoa honela ulertu behar da: *"sexuagatiko indarkeriazko egintza oro, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa nahiz sufrimendua eragiten diona edo eragin liezaiokeena, bizitza publikoan nahiz pribatuan gauzatzen dena, horien barruan sartzen direlarik egintza horiek gauzatzeko mehatxu egitea, derrigortzeak edo askatasun gabetze arbitrarioak"*. Honako hauek sartzen dira indarkeria horren barruan, nahiz ez diren bakarrak:

a) Familian edo etxean gertatzen den indarkeria, hala nola: eraso fisikoa eta mentala, abusu emozionala eta psikologikoa, bortxaketa eta sexu-abusuak, intzestua, senar, mutil-lagun edo noizean behinkako lagunek edo berarekin bizi direnek emakumea bortxatzea, ohorearen izenean egindako krimenak, emakumeen aurkako mutilazio genital edo sexuala eta emakumearen kaltetan oraindik bizirik dirauten hainbat ohitura, behartutako ezkontzak besteak beste;

b) Gizartean gertatzen den indarkeria; honako hauek, besteak beste: bortxaketak, sexu-abusuak, lantokian, erakundeetan edo beste hainbat lekutan gertatzen den sexu-jazarpena eta larderia, esplotazio sexual eta ekonomikorako emakumeen legez kanpoko trafikoa eta turismo sexuala;

c) Estatuak edo haren agintarien eragindako edo onartutako indarkeria;

d) Gatazka armatuko egoeran emakumeen giza eskubideak urratzea, hala nola: emakumeak bahitzea, lekualdatzera behartzea, sistematikoki bortxatzea, sexu-esklabotza, haurdunaldi behartuak eta emakumeen trafikoa (sexu esplotaziorako eta esplotazio ekonomikorako).


Definizio horrek garatu eta zabaldu egiten du Nazio Batuen Biltzar Orokorra 1993ko abenduan eman zuen *"Emakumearen aurkako indarkeria eraztearen inguruko adierazpenean"*(2) zehaztutakoa. Izan ere, hori izan zen indarkeria horri integralki heldu zion giza eskubideek nazioarteko lehenengo tresna. Bertan, honela definitu zen: *"emakumeari emakume izateagatik zuzendutako indarkeriazko egintza oro, balizko emaitza edo emaitza erreal gisa kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena, bizitza publikoan nahiz pribatuan gauzatzen dena, horien barruan sartzen direlarik mehatxu egitea, derrigortzeak edo askatasun gabetze arbitrarioak"*. Honako hauek sartzen dira indarkeria horren barruan: *"familiar gertatzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, baita kolpeak, haurren abusu sexuala, dotearekin zerikusia duen indarkeria, senarrak emakumea bortxatzea, emakumeen aurkako mutilazio eta emakumearen kaltetan oraindik bizirik dirauten hainbat ohitura, senarra ez den beste pertsonak gauzatutako*

(1) 2002ko apirilaren 30ean onartua, ministerio-ordezkaritzen 794. bilkuran.


(2) Res. A.G. 48/104, NBE, 1994

indarkeria eta esplotazioarekin lotutako indarkeria; gizartean gertatzen den indarkeria fisiko, sexuala eta psikologikoa oro har, bortxaketak, sexu-abusuak, lantokian, erakundeetan edo beste hainbat lekutan gertatzen den sexu-jazarpena eta larderia, emakumeen trafikoa eta behartutako prostituzioa barne; eta Estatuak eragindako edo onartutako indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, edozein lekutan gertatzen delarik ere”.

Beraz, emakumeen aurkako indarkeria-modu eta -mota desberdinak daude; hala ere, guztiak dira emakumeek gure gizartean duten egiturazko desberdintasun- eta mendekotasun-egoeraren adierazpen.



2. EMAKUMEEN
AURKAKO INDARKERIA
ARLO FAMILIARREAN
ETA/EDO AFEKTIBOAN



Lehen ere adierazi bezala, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen aurkako etxeko indarkeria baino fenomeno zabalagoa da, eta hainbat eta hainbat eremutan aurki daitezke desberdintasun horren eta emakumeen kontrako indarkeria horren adierazpenak eta adierazleak: testuinguru familiarra eta afektiboa, lantokiak eta ikas guneak, erakundeak,... Hala ere, esku-hartzeko politikak etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima direnei zuzentzen dira batez ere, emakumeen aurkako indarkeria-mota zabalduenak eta ezagunenak baitira gure ingurunean. Horregatik, horien inguruan jardungo gara nagusiki.

*“Etxeko indarkeria” adierazpidea berdin erabiltzen da hizketa arruntean nola profesionalean. Europako Batzordeak glosategi bat egin zuen 1999. urtean, *Berdintasunerako 100 hitz. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko terminoen glosategia* izenekoa. Bertan, “etxeko indarkeria” terminoa eremu familiarri lotzen zaio hertsiki, eta honela definitzen da: *“edozein indarkeria-modu, fisikoa, sexuala edo psikologikoa, familiako kideren baten segurtasunari edo ongizateari arriskua dakarkiona; edo/eta bortxa fisikoa edo emozionala nahiz bortxa fisikoaren mehatxua erabiltzea familian edo etxe barruan, sexu-indarkeria ere barne. Hemen sartzen dira umeen aurkako tratu txarrak, intzestua, emakumeen kontrako tratu txarrak eta etxe berean bizi den beste edonoren aurkako sexu-abusuak edo beste era bateko abusuak”*.*

Indarkeria hori jarraituki erabiltzen bada, eta kontrolatzeko, menderatzeko, azpiratzeko (3) eta harremanean aginte- eta botere-jarrera atxikitzeko erabiltzen bada, etxeko tratu txarra deritzo.

Hortaz, honako hau joko da emakumeen aurkako etxeko indarkeriatzat: emakumeari min eman edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa ekar liezaiokeen egite edo ez egite oro nahiz kontrolatzeko edo mehatxatzeko jokabide oro, baldin eta familia-harreman baten eta/edo harreman afektibo baten barruan gertatzen bada, den harreman hori une horretan bizirik dagoen bat edo iraganeko bat.

Tratu txarren adierazpen diren indarkeriazko egintza desberdinak kontuan izanik, ondorengo taxonomia hau egin dezakegu:

1. Tratu txar fisikoak. Tratu txar mota hau biktimaren osotasun fisikoarentzako arriskua edo kaltea suposatu dezaketean eraso intentzional eta errepikatuetan ematen da aditzera. Objektu bat, arma bat edota substantzia arriskutsuak erabiliz, tratu txarrak ematen dituenak mendean hartu, immobilizatu edo kontrolatu egin dezake biktima, min arin edo handia eraginez. Min ho-

(3) Marie-France Hirigoyenek (1999) erabilitako definizioaren arabera, “azpiratzea” bestea desjabetuz mendean hartzeko ekintza da... ekintza horrek sumisio- eta mendekotasun-egoeran mantentzen du beste pertsona.

riek ondorengo hauen ondoriozkoak izan daitezke: kolpeak, iletik tira egitea, ukabilkadak, osti-koak, bultzadak, estutzeak, zaplaztekoak, harramazkak, atximurrak, erredurak, hozkadak, itotze-ko ahaleginak, arma zuriz, su-armaz, beste objektu batekin,... gaixo egonik edo tratu txarren ondoriozko lesio fisikoak izanik medikuaren zaintza ukatzea... hilketa.


2. Tratu txar psikologikoak edo emozionalak. Xedetzat emakumea ezeztatzea, umiltzea edo bere ekintzak, portaerak, jarrerak, sinesmenak eta erabakiak kontrolatzea duten egintzak edo ez egiteak dira. Horretarako, larderia, manipulazioa, mehatxu zuzenak nahiz zeharkakoak, irainak, isolamendua edo biktimaren osasun psikikoa, autodeterminazioa edo garapen pertsonala kaltetu dezakeen beste edozein jarrera erabiltzen dira.

Barruan hartzen ditu, beraz, abusu emozionala: balio-kentzeak (kritikak, irainak, deskalifikazioak, publikoan nahiz pribatuan egiten diren mespretxuak, etengabe barregarri uztea), areriotasuna eta axolagabetasuna; irainak, jarrera eta keinu mehatxatzaileak, emakumeari eta/edo beste senitartekoei zuzendutako heriotza-mehatxuak, adin txikikoen zaintzari eta babesari buruzko mehatxuak, suizidio-mehatxuak, telefono-dei intimidatorioak/iraingarriak, mugapen-jarrerak (lagunak kontrolatzea, lagunekin eta/edo senitartekoekin harremanak izateko ezintasuna, etxetik egiten dituen irteerak mugatzea), jazarpena eta erasoa, etxetik kaleratzea, jarrera suntsitzaileak (ondasun pertsonalen suntsiketa: balio ekonomiko edo afektiboko objektuak, etxeko animaliei zuzendutako tratu txarrak), sinesmen politikoen edo erlijiosoen sistema bat ezartzea, gizonaren indarkeriazko joeren errua emakumeari egozte; "stalking" izeneko edo zirikatzea (telefono-deiak, e-mailak, telefonoko mezuak,...).

Tratu txar mota horrek balio-galtzea eta sufrimendua eragiten du.

Pence-k zortzi kategoriaz osatutako botere- eta kontrol-gurpil bat erabili zuen tratu txar psikologikoak deskribatzeko: isolamendua, tratu txar emozionala, tratu txar ekonomikoa, seme-alaben erabilera, gizonezkoen pribilegioak erabiltzea, hertsadura eta mehatxuak, larderia eta tratu txarrak minimizatzea edo ukatzea.

1. IRUDIA Kontrol- eta botere-gurpila



ITURRIA: Ellen Pence, 1987.

3. Tratu txar sexualak. Bikotekideak emakumea sexu-intimitate behartu bat izatera bultzatzen duenean (larderia, indarkeria –txantajea edo mehatxua- edo borondate pertsonala ezeztatzen edo mugatzen duen beste edozein mekanismo erabiliz).

Tratu txar sexualaren konnotazioetako bat da intimitate emozionala eta sexuala nahastu egiten direla. Zenbait emakumek uste dute maitasuna atsegin edo azpiratze sexualaren bidez lor dezaketela. Tratu txarrak ematen dituztenek, askotan, sexua eskatzen dute beren bikotekideei nagusitasuna erakusteko. Kasu gehienetan ikusten da abusu edo tratu txar fisikoak oso gutxitan hasten direla intimitate sexuala gertatu aurretik.

Abusu emozionala ere ezkutatu egiten da abusu sexualarekin; gizonak, adibidez, iseka egiten dio emakumeari, ez dela desiragarria esanez, agerian izaten ditu beste emakumeekiko harreman sexualak eta, sexualki beste modu askotara iraintzeaz eta degradatzeaz gain, bere kontrako konparazio negatiboak egiten ditu.

Etxeko tratu txarren testuinguruan, tratu txar sexuak ondorioak dituzte emakumearen osasun fisikoan eta psikikoan. Egoera ez kontrolatzeak edo sexu-kontaktuaren ezustekoak era-

gina dute kontrazepziorako plangintza aurrera eramateko zailtasunean, sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunen prebentzioan edo HIESaren prebentzioan.

Barruan hartzen ditu: txiste eta broma sexualak, telefono-dei iraingarriak, exhibizionismoa, irainak, bortxaketa (baginakoa, uzkikoa, ahokoa), eraso sexualak, sexu-abusua, estuproa, xaxatze sexuala, haurdunaldi behartua, sexu-industriaren trafikoa eta ustiapena, biktimarentzat umiliagarriak diren jarrerak ezartzea.

4. Tratu txar ekonomikoak. Emakumeak bere bizitzako alderdien inguruan har ditzakeen jarrerak, erabakiak eta ekintzak kontrolatzera zuzentzen diren egintzak edo ez egiteak dira. Kontuetarako sarbidea debekatzea, dirua gordetzea, emakumeak bienak diren ondasunetan parte hartzea saihestea edo mugatzea, txantaje ekonomikoa; lanpostu bat eskuratzea edo heziketa jasotzea eragozteak, jabetza-eskubideak ukatzea, seme-alabengatik elikadura-pentsioa ez ordaintzea,...

Arruntena da harreman beraren barruan tratu txar mota desberdinak aldi berean ematea. Hau da, tratu txarrak elkarri lotuta daude: tratu txar fisikora aurretik tratu txar emozionalak edo psikologikoak eman gabe iristerik ez badago, ez da ezta ere tratu txar fisikorik ematen aurretik harremanean intimitate sexuala sortu ez bada –hori dela-eta, litekeena da tratu txar sexualak ere egotea–.

2.1. TRATU TXARRAREN EZAUGARRIAK

2.1.1. ARAZOAREN GARRANTZIARI BURUZKO ZENBAIT DATU

Oso zaila da etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeriak gure gizartean duen benetako intzidentzia kalkulatzeko (4). Oraindik ere tratu txarregatik salaketan portzentajea oso txikia da; tratu txar psikologikoak ia ez dira salatu ere egiten, eta salaketa gehienak urte luzeetan zehar jasan ondoren egiten dira.

Hori horrela, agintari polizialek eta judizialek ez dituzten ezagutu ere egiten emakumeen aurkako tratu txarren egoera gehienak. Hainbat arrazoik eragiten dute hori: beldurra, aldatuko delako itxaropena, lotsa, mendekotasun ekonomiko eta emozionala, eskubideak eta eskura dituen baliabideak ez ezagutzea, justiziarekiko mesfidantza, eta abar.

(4) Biztanleria lagin adierazgarriekin egin diren hainbat azterlanen bidez bildu diren datuek erakusten dute “ezkon-bikoteen %15etik %30era bitartean gertatzen dela eraso fisikoren bat elkarbizitza-harremanaren uneren batean. Era berean erakusten duten 18 urtetik gorako emakumeen %5etik %15era bitarte tratu txarren biktima direla” (Belén Sarasua eta Irene Zubizarreta, 2000).

Jarraian Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen salaketen inguruko datuak, Ertzaintzaren komisarietan jarritako salaketen gainean Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak emandako informazioaren arabera. Iturri horren arabera, familia barruko indarkeriaren gaineko salaketen atalean %75 emakumeek jarritakoak dira; biko-tearen barruko indarkeriaz ari garenean, berriz, ehuneko hori %84 igotzen da.

Etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak (salaketak), egintza-motaren arabera eta egintzok gertatu diren lurraldearen arabera (2005)

EKINTZA MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa eta gizahilketa-moduak (5)	5	9	-	14
Gizahilketa	5	8	-	13
Erailketa	-	1	-	1
Lesioak	134	281	87	502
Zuhurtziagabekeriak egindako lesioak	-	1	-	1
Familia barruko tratu txarrak	127	260	76	463
Lesioak	7	20	11	38
Askatasunaren aurkako erasoak	29	80	60	169
Bahiketa	1	2	1	4
Mehatxuak	21	68	55	144
Hertsapenak	7	10	4	21
Tortura eta osotasun fisikoaren kontrako erasoak	223	1.066	474	1.763
Tortura eta osotasun fisikoaren kontrako erasoak	1	2	1	4
Familia barruko tratu txar ohikoak	222	1.064	473	1.759
Ohorearen aurkako erasoak	-	5	3	8
Kalumniak	-	2	3	5
Irainak	-	3	-	3
DELITUAK GUZTIRA	391	1.441	624	2.456
Pertsonaren aurkako hutsegiteak	53	207	108	368
Lesio-hutsegitea	16	49	44	109
Zuhurtziagabekeriak egindako lesio-hutsegitea	1	-	-	1
Lesiorik eragin gabe tratu txarrak ematearen hutsegitea	5	5	6	16
Iseka egitearen hutsegitea	4	5	3	12
Mehatxu-hutsegiteak	19	92	32	143
Hertsapen-hutsegiteak	5	39	13	57
Irain-hutsegiteak	3	17	10	30
HUTSEGITEAK GUZTIRA	53	207	108	368
GUZTIRA	444	1.648	732	2.824

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, 2006ko urtarrila.

(5) 2005ean, etxeko indarkeriak eragindako hilketak 4 izan ziren (Bizkaian guztiak); gainerako salaketak gizahilketa -saio burutu gabeenak dira.

Bikotekideak eragindako etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak (salaketak), egintza-motaren arabera eta egintzok gertatu diren lurraldearen arabera (2005)

EKINTZA MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa eta gizahilketa-moduak (6)	2	6	-	8
Gizahilketa	2	5	-	7
Erailketa	-	1	-	1
Lesioak	111	188	69	368
Zuhurtziagabekeriak egindako lesioak	-	1	-	1
Familia barruko tratu txarrak	107	177	64	348
Lesioak	4	10	5	19
Askatasunaren aurkako erasoak	12	42	31	85
Bahiketa	-	1	1	2
Mehatxuak	7	37	28	72
Hertsapenak	5	4	2	11
Tortura eta osotasun fisikoaren kontrako erasoak	193	826	386	1.405
Tortura eta osotasun fisikoaren kontrako erasoak	-	2	1	3
Familia barruko tratu txar ohikoak	193	824	385	1.402
Ohorearen aurkako erasoak	-	3	2	5
Kalumniak	-	1	2	3
Irainak	-	2	-	2
DELITUAK GUZTIRA	318	1.065	488	1.871
Pertsonaren aurkako hutsegiteak	22	92	36	150
Lesio-hutsegitea	4	14	10	28
Zuhurtziagabekeriak egindako lesio-hutsegitea	1	-	-	1
Tratu txarren hutsegitea, lesiorik eragin gabe	3	3	2	8
Iseka egitearen hutsegitea	4	3	1	8
Mehatxu-hutsegiteak	5	38	12	55
Hertsapen-hutsegiteak	3	26	7	36
Irain-hutsegiteak	2	8	4	14
HUTSEGITEAK GUZTIRA	22	92	36	150
GUZTIRA	340	1.157	524	2.021

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, 2006ko urtarrila.

Munduko biztanleria kontuan izanik, ondorengo ondorio hauek atera ditzakegu:

- Bost emakumetik bat bortxatua edo bortxaketa-saio baten biktima izango da bere bizitzan zehar (OME, 1997).

(6) 2005ean, etxeko indarkeriak eragindako hilketak 3 izan ziren (Bizkaian guztiak); gainerako salaketak gizahilketa saio burutu gabeenak dira.

- Hiru emakumetik bat, gutxienez, izan da kolpatua, nahi ez duen harreman sexual batera behartua edo abusuak jasatera behartua bere bizitzan zehar. Oro har, emakumez abusatzen duena beren familiako kideren bat edo ezagunen bat izaten da (E. L. Heise, M. Ellsberg, M. Gottemoeller, 1999).
- Emakumeen %47k adierazten dute beren lehenengo harreman sexuala behartua izan zela (OME, 2002).
- Gizahilketen biktima diren emakumeen %70 ezkontideen edo bikotekideen eskuetan hiltzen dira (OME, 2002).
- Minbizia bezain larria den heriotza- edo ezintasun-kausa da ugaltze-adinean dauden emakumeen artean.
- Emakumeen artean proportzio garrantzitsuan eragiten ditu heriotza edo osasunerako ondorio negatiboak -%20 baino gehiago herrialde gehienetan (OME/OPS, 1998).
- Eragin negatibo zuzena du osasun-alderdi garrantzitsuetan; arriskurik gabeko amatasuna, familia-plangintza eta sexu bidez kutsa daitezkeen gaixotasunen eta GIB/HIESaren prebentzioa (OME/OPS, 1998).

2.1.2. TRATU TXARREN DINAMIKA: INDARKERIAREN ZIKLOA

Asko dira tratu txarrak definitzen eta zehazten dituzten elementuak: sexuen arteko desberdintasuna, gizarte-ikusezintasuna, fenomenoaren naturalizazioa, emakumea –bikotekide edo bikotekide ohia- “zuzentzeko” “lizentzia” edo “baimena”, tratu txarrak pairatzen dituen emakumeak tratu txarrak onartzeagatik eta baimentzeagatik izaten duen errudun-sentimendua eta tratu txarren saihestezintasun-sentsazioa (arazoa konpontzeko eta egoera horretatik ihes egiteko ezintasuna).

Bikotearen eremuan emakumeei zuzendutako etxeko tratu txarren kasuen portaera aztertu ondoren *indarkeriaren zikloa* izeneko teoria sortu zen. Prozesu horretan zikloa, modu errepikatuan eta nahita, hiru aldi agertzen dira tratu txarren dinamikaren barruan:

- Tentsio pilaketaren aldia: Tentsioak hitzeko eraso edo eraso fisiko arin eta isolatuko portaerak bezala eraikitzen eta adierazten dira berariaz, gorabehera txikien ondoren: mespretxu arinak, haserre neurritsua, axolagabetasun hotza, sarkasmoa, isilune luzeak, eskaera irrazionalak. Emakumea giro hori maneiatu ahal izateko neurriak eta erasoari aurrea hartzeko edo saihesteko *autodefentsako* mekanismo psikologikoak hartzen joaten da. Ekintza horiek guztiek xede bat dute: biktima desegonkortzea.

- Eraso biziaren aldia: Esplosioaren eta erasoaren ezaugarrietako bat da tratu txarrak ematen dituen pertsonak lehenengo aldian zehar pilatzen joan den tentsioa deskargatzen duela gogorki. Erasotzailea ekintzara iragaten da. Aldi honen eta aurreko aldian ikus daitezkeen gorabehera sarriago edo urriagoen arteko desberdintasuna lesio-gaitasun handiagoan datza.

Zikloaren aldi hau lehenengoa eta hirugarrena baino laburragoa da. Biktimententzako ondorio garrantzitsuenak aldi honetan gertatzen dira, bai plano fisikoari dagokionez eta baita plano psikikoari dagokionez ere –izan ere, bizitako egoeragatiko hainbat asaldurak ezartzen jarraitzen dute–.

Emakume gehienek ez dute laguntza bilatzen erasoak gertatu eta berehala, berehalako mediku-arreta behar duten lesio garrantzitsuak jasan dituztenean salbu. Erreakzio ohikoena da erasoaren ondorengo lehenengo 24 orduetan isolatuta mantentzea, nahiz eta batzutan zenbait egun igarotzen diren laguntza bilatu aurretik edo medikuaren kontsultara joan aurretik. Hori dela-eta, ez dute beti larrialdietara jotzen; askotan, ohiko kontsultatan egiten dute, agian garrantzia kendu nahian eta erasoak identifikatzea saihesteko. Jarraian “erruduntasunaren transferentzia” gertatzen da. Erasotzaileak emakumea gizonaren indarkeriazko portaeraren arduradun sentitzea lortzen du.

- Lasaitasun, adeitasun eta maitasun aldia, damua edo *maitaleen barealdia*: Aldi honen ezaugarri garrantzitsuenak da erasotzailearen muturreko adeitasuna eta “jarrera” maitekorrak (arretak, opariak,...). Aldi honetan emakumearen erabateko biktimizazioa gertatzen da, eta harremanak bere horretan jarraitzeko indar positibo gisa jarduten du. Erasotzailea damu agertzen da, eta antzekorik ez duela egingo zin egiten du. Benetan bere burua kontrolatzeko gai izango dela uste du, eta baita ere emakumeari eman dion lezioaren ondoren hau ez dela berriro modu berean portatuko, eta ez duela berriro eraso beharko.

Aldi honetan erasotzailea senitartekoengan eta lagunengan eragiten saiatzen da, biktima konbentzitu eta honen barkamena lortu ahal izateko. Horiek guztiek, kontzienteago edo inkontzienteago, nolabait ere errudun sentiarazten dute emakumea; bikotekidearen eraso egintza kritikagarria dela aitortu arren, bera izango litzake eraso horren ondorioen erantzule, barkatzen ez badio eta harremana edo, hala dagokionean, familia hausten badu. Ohikoa izaten da gizonak profesionalen laguntza eta emakumearen babesa behar duela sinestaraztea, eta horrelako egoera batean ezin duela bakarrik utzi esatea; horregatik, biktima batzuk erasotzailearengana itzultzen dira (biktimak erasotzailearekin bizitzeari utzi dioten kasuetan) eta/edo atzera botatzen dute aurkeztutako salaketa.

Aldi honen iraupena oso aldakorra da, nahiz eta ohikoa den lehenengo aldia baino laburragoa izatea eta bigarrena baino luzeagoa.


- Zikloa berrabiaraztea: Denborak aurrera egin ahala, maitaleen barealdia gero eta laburragoa izan ohi da; tratu txarrak geroz eta sarriagotan gertatzen dira eta gero eta gogorragoak dira, eta, bestalde, biktimak gero eta baliabide psikologiko gutxiago ditu egoerari aurre egin ahal izateko.

Aldizkako indarkeria errepikatua jasaten duen emakumeak dituen beldurak eta ziurgabetasunak "kalte psikologikoa" eragiten dute. Kalte horren ezaugarri nagusietako bat emakumearen egoera disoziatiboa da; biktimak erasotzailearen portaera ukatzen, justifikatzen, minimizatzen eta arrazionalizatzen du, bere behar eta ongizate propioak alde batera utziz eta hiperzaintzaile bihurtzen da, bere erasotzailearen eskaerei erantzuteko xedez.

Etxeko Stockholm Sindromeaz (SIES-d) ere hitz egin da. A. Monterok (1999) honela deskribatzen du: *"pertsonen arteko babes-lotura, biktimaren eta bere erasotzailearen artean eraikia, traumaz eta estimulu-murrizpenez betetako giro batean, biktimarengan eredu mental bat eraginez (buruko eskemen eta sinesmenen erakunde arteko sarea). Tratu txarrak jasaten dituen biktimak SIES-d delakoa garatuko luke, bere osotasun psikologikoa babesteko eta fisiologia-nahiz jokabide-homeostasia berreskuratzeko"* (7).

(7) A. Montero: 'Featuring domestic stockholm syndrome. A cognitive bond of Protection in battered women', 2000ko uztailaren 9tik 14ra Valentzian egin zen International Society for Research on Aggression delakoaren XIV. Biltzarrean. SIES-d izenekoaren ezaugarriak aldaketa kognitiboaren eredu, bere funtzionalitate egokitzailea eta biktimarengan egoera traumatiko baten ondorioz gertatutako prozesu errektibo baten emaitza gisa duen bide terminala dira. Prozesuak lau aldi hartuko lituzke: sortzea, berrorientatzea, aurre egitea eta egokitzea. Sortzeko aldian, senarrak emandako lehenengo jipioek bikoteak aurretiaz harreman afektiboan oinarritutako segurtasun-espazioa hausten da. Emakumeak bere konfiantza osoa eta itxaropenak zituen espazio horretan: espazio horren hausturak desorientazio-eredu orokor bat sorraraziko luke biktimarengan, erreferenteak galduko ditu, kronifikatzeko joera duten estres erreazioak izango ditu eta depresioa izatera ere irits daiteke. Berrorientatze-fasean, emakumeak etorkizuneko erreferente berriak bilatzen ditu, eta eskema kognitiboak berrantolatu nahi ditu, jarreraren kongruentzia printzipioan oinarrituta, hori guztia bere bikotearekiko aukera- eta konpromiso-jarreraren eta bizitzen ari den errealtate traumatikoaren arteko disonantzia saihesteko. Emakumeak bere buruari egozten dio gertatzen ari denaren errua, eta babesgabeziako eta erresistentzia pasiboko egoera batean sartzen da. Horrela aurre egiteko aldira iristen da. Aldi horretan, bere senarraren eredu mentala onartzen du, eta bere osotasun psikologikoa babesteko bideak bilatzen ditu, egoera traumatiko hori maneiatzen saiatuz. Egokitzeneko azkeneko aldian, emakumeak kanporantz proiektatzen du erruaren zati bat, beste jende baterantz, eta Etxeko Stockholm Sindromea finkatu egiten da, identifikazio prozesu baten bidez, eta gizonak etxean bizitako egoerari buruz eta egoera hori eragin duten harreman kausalei buruz duen azalpenezko eredu mentalaren inguruan. SIES-d sindromea, egokitzen-nahasmendu bat denez, beren etxeetan tratu txarrak jasotzen dituzten emakume askorengan topatu den efektu paradoxikoaren erantzule izango litzake; horren arabera, biktimak bere erasotzailea defendatzen du, beraienganako indarkeriazko portaera gizarte bidegabe baten ondorio izango balitz bezala, eta senar horiek erremediorik gabe indarkeria erabiltzera bultzatzen duen ingurune baten biktima izango balira bezala. Tratu txarrak jasotzen dituzten eta sindrome hori duten emakumeek, beren senar edo bikotekideek emandako azalpenak onartzen dituztenez, mugarik gabe atzeratuko dute egoeraren agintarien aurreko salaketa. Hori horrela, eraso-kasuen proportzio handi bat ez da irteten gertatzen direneko inguruetik, biktima ez delako gertatutakoa salatzei gai. Askotan, agintaritzaren edo polizia-laren aurrean aurkeztutako zigor bidezko salaketak kendu egiten dituzte biktimek, erasotzaileentzako zigor eraginkor bilakatu aurretik, eta horrela erasoek jarraitzea ahalbidetzen duen eta biktima pixkanaka hondatze pertsonaleko egoera batean murgiltzen duen gorpil zoroa sortzen da.

2. IRUDIA Leonore Walker. "The battered woman". New York. Harper and Row, 1979



Ondorengo taula hauetan biktimek indarkeriaren zikloko aldi desberdinetan izan ohi dituzten erreakzio ohikoenak laburbiltzen dira:

1. aldia: tentsio-pilaketa

- Arazoa ukatzea edo minimizatzea ("gure gorabeherak ditugu, jende guztiak bésala")
- Bere burua engainatzen du eta biktima bat dela ukatzen du ("ni ez naiz telebistan agertzen diren emakume erasotu horiek bezalakoa")
- Gizonaren indarkeriazko portaera justifikatzen du ("oso pasionala denez, sumindu egiten da. Jenioa du...")
- Bere bikotekidearen alderdi positiboak aipatzen ditu ("Bera da nire bizitzako euskarria")

2. aldia: eraso gogorrak

- Bikotekidearen portaera aldatu egingo dela itxaropen handiak ditu (“Denborarekin aldatu egingo da: denbora behar du”)
- Errudun-sentimenduak (“Merezi dut. Nire errua da, bera aukeratu izanagatik”).

3. aldia: lasaitasuna edo “maitaleen barealdia”

- Harremanarekin jarraitzea justifikatzen du, eta mendekotasun emozionala erakusten du (“Bortitza izango ez balitz, bikote perfektua izango litzake”)
- Etsipena (“Nire aukera bakarra berarekin jarraitzea da; ez dut beste aukerarik. Zein da beste alternatiba?”)

Tratu txar emaileak, bere portaeraren aurrean dituen erreakzioei dagokienez, honek minimizatu, arrazionalizatu eta justifikatu egiten ditu tratu txarrak. Erasotzaileak edo tratu txar emaileak bere ezeztapena mantentzeko erabiltzen dituen hiru taktikak ondorengo hauek dira:

- Minimizatzea: erasotzailea urrundu egiten da eragin duen kaltetik. Ez da gertaera bakarrik minimizatzen (tratu txarra), gertaera horren eragina ere minimizatzen baita. Abusua hitzekoa, psikologikoa edo emozionala bada oso erraza da minimizatzea. “Ez nuen jo, bultzatza bakarrik”.
- Arrazionalizatu: prozesu honen bidez norberak bere buruari gezurra esaten dio, portaera onargarri bat denari dagokionez. “Bera zorionsua da nirekin, oraingo honetan besterik ez dut jo”.
- Justifikatu: egin zuena zergatik zegoen ondo azaltzen du. “Ez dago nik jasan dudana jasango duen gizonik”.

Tratu txarrak ematen dituzten pertsona guztiek ezaugarri bera dute: distortsio kognitiboak edo pentsamendu-akatsak dituzte, bere portaeren eta egintzen erantzukizuna ez onartzea edo saihestea ahalbidetzen duten hainbat pertzepzio, jarrera eta sinesmen deformaturi erreferentzia eginez. Biktimari probokatu egiten duela egotz diezaioke, intzitate egiten duela, alkoholaren eraginpean zegoela esan dezake, eta ez zekiela zertan ari zen, emakumearen gaineko eskubidea duela sentitzen du...

Tratu txar emaileak nagusitasun hori gauzatzeko eta tratu txarren erantzukizunetik askatzeko erabiltzen dituen manipulazio emozionaleko teknikak ondorengo hauek dira (8):

- *Errua sortzea, uneoro eskatzailea den portaera baten bidez, eta kanpoko atribuzio kausala etenik gabe erabiliz; horren bidez, gizonak inoiz ez du hartzen beregain gatazken sorkuntzan dagokion erantzukizuna.*
- *Nahasmendua sortzea funtsean emakumearen pertzepzioak zalantzan jartzen dituzten eta azkenean emakumeak berak ere zalantza egitea eragiten duten manipulazio komunazionalen bidez.*
- *Depresioa sortzea, pixkanaka emakumearen autoestimua hondeatuz, mezu deskalifikatzaileak igorritz.*
- *Lotsa eragitea, etengabeko kritiken bidez, hirugarren pertsonen aurreko umilazioen bidez eta emakumearen ahuluneak ezagutzen dituela baliatuz.*
- *Beldurra sortzea, mehatxu zuzenen edo estalien bidez.*
- *Mendekotasuna sortzea, emakumearen denbora, espazioak, gorputza eta portaerak manipulatuz, bere jabetzako objektuak izango balira bezala.*

2.1.3. TRATU TXARREKIN ELKAR BIZITZEAREN ONDORIO KALTEGARRIAK HAURRENGAN

Familian (9), hurrek beren buruari eta gainerako pertsoneri buruz pentsatzen dutena zehaztuko duten genero-topiko asko aurkitzen eta barneratzen dituzte. Aita bat eredu da semearentzat. Bikotekidea eta seme-alabak maitasunez eta errespetuz tratatzen dituzten gizonak beste mutilek eta gizonak ere hala tratatzea nahiko duten neskak heziko dituzte; era berean, aita horiek beste neskak eta emakumeak positiboki tratatuko dituzten semeak heziko dituzte. Hurrek, beren amari emandako tratu txarren lekuko direnean, ondorengo hauek ikasten dituzte:

1. Maitatzen gaituzten horiek direla tratu txarrak ematen dizkigutenak.
2. Amari tratu txarrak ematea onargarria dela.
3. Tratu txarrak justifikagarriak direla zenbait kasutan (tratu txarrak ematen dituenak hala erabakitzen duenean).

(8) Jorge Corsi eta Luis Bonino, "Violencia y género: la construcción de la masculinidad como factor de riesgo", in *Violencias Sociales*, 2003.

(9) Kasu honetan familia-eredu tradizionalari buruz ari gara hitz egiten (seme-alabak dituen bikote heterosexuala).

Haurrek afektuari, indarkeriari, botereari, berdintasunari, ezberdintasunari, hierarkiari eta/edo indarkeriazko joerekiko onargarritasunari buruzko ideia jakin batzuk dituen eredu familiar bat (beren familiaren eredua) barneratuko dute kognitiboki. Baina, aldi berean, beste soziazio-eragileen bidez igorritako arau eta balio sozialak barneratzen dituzte: eskolan, komunikabideetan eta abarretan erakutsitakoak. Horregatik, hurrek familiaren testuinguruan bizi eta ikasi dituzten indarkeriazko portaera oldarkorrek har ez ditzaten, gizarteak ez ditu baimendu eta sustatu behar portaera-mota horiek; hau da, gizarteak ez du permisiboa izan behar tratu txarrekiko.

Beldurrezko eta intimidazioko atmosfera batean bizi diren haurrak erasoen kontziente dira, ikusi egiten dituzte, entzun egiten dituzte, eraso horien ondoriozko lesioak ikusten dituzte, ama minduta eta triste ikusten dute, nahiz eta emakumeak jasaten dituzten tratu txarrak ezkututzen saiatzen diren. Izan ere, emakumeek *“ahalegin handiak egiten dituzte beren seme-alabek aitarekin ankerkeria ikustea saihesteko”* (Hoff, 1990).

Haur horiek, lekuko direnez eta beren amenganako indarkeriazko egoerak jasaten dituzte-nez, beldurra dute, inhibizio, indarkeria edo depresio bilakatu daitekeen antsietatea; gainera, *“erasoaren artea ikasten dute, [...] eta asko hil egiten dira, kontu-garbitzeen edo aita edukitzagabetezari dion beldurraren biktima, adin txikikoen desjabetze behartu baten moduko bat. 43 (10) dira 1997. urtetik aitarien edo “zaintzailearen” eskuetan hil diren adin txikikoak.”*(Juana María Gil Ruíz, 2003) (11).

Esku hartzean kontuan izan behar da emakumeak pairatzen dituen tratu txarren larritasunak duen iragarpen-balioa, seme-alabek jasan ditzaketan abusuak eta tratu txarrak estimatzeko.

Tratu txarrak zuzenean edo zeharka jasaten dituzten hurrekiko (indarkeriazko ingurune batean bizi dira) lanean, lehenik eta behin, indarkeriazko ingurune batean bizitzearen errurik ez dutela sinetsarazi behar zaie, afektua eta segurtasuna jasotzeko eskubidea dutela ulertaraziz. Segurtasun-estrategiak irakastea bezain garrantzitsua da bere sentimenduei eta egoera ulertzeko moduari heltzea.

Sarasuak eta Zubizarretak (2000) adierazitakoaren arabera:

(10) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeriari buruzko Urteko Txostenaren arabera (2004), biktimetatik 15 adin txikikoak ziren (9 neska eta 6 mutil).

(11) Juana María Gil Ruíz, *“Análisis teórico, legislativo y jurisprudencial de la violencia de género en el ámbito penal”*, *Análisis Jurídico de la violencia contra las mujeres. Guía para Operadores Jurídicos* gidaliburuan. Emakumearen Institutu Andaluziarra, 2003.

“Seme-alabek jasango dituzten ondorio psikologikoak ondorengo hauen araberakoak izango dira: ezaugarri pertsonalak, tratu txarren baldintzak eta amaren irudiak eta familia-inguru-neak adin txikikoaren gainean gauzatzen duten babesa.

Gehien antzematen diren erreakzioak antsietate- eta depresio-sintomak dira, autoestimua baxuko sentimenduak, arazoak gizarte-harremanetan, indarkeriazko portaerak eta zailtasunak eskola-errendimenduan”.

“Egia bada ere sintoma-multzo horrek eragina duela adin txikikoaren garapen ebolutiboan, horiek ez dute beti sortuko tratamendu psikologiko egituratua beharko duen asaldura. Tratu txarrak desagertzen direnean eta familia-egoera egonkortu egiten denean, askotan, denboraren iraganak eta bizi-erritmoaren normalakuntzak ondorio psikologiko horiek gainditzea ahalbidetzen dute. ”

2.2. TRATU TXARRAK EMATEN DITUZTENEI ETA TRATU TXARRAK JASOTZEN DITUZTENEI BURUZKO MITOAK ETA ESTEREOTIPOAK

Tratu txarrak ematen dituztenei buruzko mitoak eta errealitateak:

MITOAK

Alkoholaren eta beste drogen kontsumoak tratu txarrak ematea xedatzen dute.

Tratu txarrak ematen dituztenek, haurrak zirela, indarkeria jasan dute edo indarkeria ikusi dute gurasoen artean haurrak zirela.

ERREALITATEAK

Tratu txarrak ematen dituztenen %40 inguruk ez dute arazorik alkoholarekin (12). Alkoholaren kontsumoa indarkeriazko egintzak eragiten laguntzen duen faktore bat izan daiteke, baina ez da tratu txarren arrazoia.

Tratu txarrak ematen dituztenen bosten bat baino gutxiagok jasan dituzte tratu txarrak beren jatorrizko familiatan (13). Gainera, litekeena da tratu txarrak ikusi dituztenek etorkizunean ere horiek saihesteko motibazio handiagoa izatea, eragiten dituzten kalteak egiaztatu dituztelako.

(12) Iturria: Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko Arabako eta Bizkaiko programen memoriak, 2004. urekoak.

(13) Idem.

Indarkeriaz jarduten diren gizonak oso jeloskorak dira eta gaixo daude.

Arazo psikiatrikoak dituzten erasotzaileak ez dira %25era iristen (14). Bestalde, zeloak oraindik ere pasioz beteriko harreman baten adierazletzat hartzen dira gizartean, nahiz eta benetan jabetza onartezin baten adierazle besterik ez diren (15).

Tratu txarrak langabezia edo etxebizitza-gabezia bezalako arazoak dituzten familiatan gertatzen dira.

Tratu txar emaileen erdiak maila sozioekonomiko ertaina edo altua dute, eta ez dira %20ra iristen langabezian daudenak(16). Langabezia, pobrezia eta etxebizitza-gabezia edo prekarietatea ez dira tratu txarrak ematearen arrazoi, baina badute eragina tratu txarretan, faktore horiek gizonak etxean duen rolarentzat mehatxu bat izan daitezke-eta.

Tratu txarrak ematen dituztenen ezaugarri psikosozialak eta beste gizonak oro har dituztenak desberdinak dira.

Tratu txarrak ematen dituzten subjektuen ezaugarriak ez dira gainerako gizonak dituzten ezaugarrien desberdinak. Esfera profesional eta geruza sozial orotakoak izan daitezke, eta beren ezaugarri demografikoak oro har biztanleriaren isla dira.

Gizonak bere burua kontrolatzerik ez dutelako gauzatzen dute indarkeria.

Kasu askotan, gizonak "modu kontrolatuan" hautatzen du lekua, biktima, unea eta emakumea zein gorputz-ataletan kolpatu, markarik ez uzteko.

(14) Idem.

(15) "Batuetan, baldintza hori emateak (zeloak) erantzukizun kriminaletik salbuesten ez badu ere, nabarmen arintzen du" (Juana M^a Gil Ruiz, 2003. Donostiako Zigor Arloko 2. zk.-ko Epaitagiaren 351/96 Epaia iruzkina)

(16) Iturria: Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko Arabako eta Bizkaiko programen memoriak, 2004. urekoak.

Estresak indarkeria eragiten du.

Teoria psikosozialek ezin izan dute azaldu estresaren eta indarkeriaren arteko kausa-efektu erlazioa. Zergatik dira gehienetan gizonak emakumeak jotzen dituztenak? Emakumeek ez al dute estresik jasaten?

Indarkeria gauzatzen duten gizon guztiek oso autoestimu baxua dute.

Azterlan desberdinen arabera, indarkeria gauzatzen duten gizonen ezaugarri hori ez da beti ematen. Zenbait gizonek, aitzitik, autoestimu oso altua dute, nahiz eta oro har ezaugarri labilak izan.

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeei buruzko mitoak eta errealitateak:

MITOAK

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak sozialki baztertuta edo kaltetuta dauden sektoreetakoak eta baliabide ekonomiko gutxikoak izaten dira.

ERREALITATEAK

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen %40 baino gehiago maila sozioekonomiko ertain edo altukoak dira (17). Tratu txarrak ez dira baliabide ekonomikoei edo hezkuntza-baliabideei lotutako fenomeno bat. Baliabideak dituzten eta "beharrezkoa" den konfidentziasuna errazteko bitartekoak dituzten familiatan ere ematen dira. Emakume horiek ez dira Gizarte Zerbitzuetara joaten, eta ez dute ondorio sozialik (ez dira konputatzen), portaera hain zentsuragarriak (delituzko portaera) beren zirkulu sozialean suposatuko lukeenagatik.

(17) Idem.

Tratu txarrak nortasun-ezaugarri jakinak dituzten edo portaera probokatzailea duten emakumeak jasaten dituzte.

Emakumeei ematen zaizkien tratu txarrak egintza edo portaera isolatuak dira.

Denbora luzez, baita urtetan ere, tratu txarren harreman batekin jarraitzen duten eta harreman hori jasaten duten emakumeek nahi dutelako jarraitzen dute horrela, masokistak direlako. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek salaketak jarri ditzakete, banandu egin daitezke eta ez dituzte zertan jasan behar tratu txar horiek.

Edozein emakumek jasan ditzake tratu txarrak; hala ere, baliabide pertsonal, sozial eta ekonomiko gehienak dituzten horiek gizonari aurre egiteko egoera hobean aurkitzen dira. Gauzatzen den indarkeria ez da emakumeak egiten duenaren edo egiten ez duenaren araberakoa, gizonak emakumearen portaerari ematen dion esanahiaren araberakoa baizik.

Aitzitik, bortxaketazko prozesu bat ez da gertaera puntuala. Indarkeria denboran jarraitua den portaera bat da, eta geroz eta handiagoa, larriagoa eta sarriagoa izaten da.

Biktimak babes familiar eta sozial on bat badu, autonomia finantzario jakin bat badu, bere seme-alabak oso txikiak ez badira, eta babes ekonomiko, juridiko eta psikologikoko baliabide komunitarioez baliatzeko gai bada, harremana haustea erabakitzeo probabilitatea nahiko altua da. Hala ere, zenbait arrazoik azaltzen dute zergatik tratu txarrak jasaten dituzten emakume askok jarraitzen duten harremanarekin:

- Bikotekidearen mehatxuei beldur direlako.
- Gizonaren damu dela sinesten duelako, eta aukera berri bat ematen diolako.
- Erasotzailearekiko mendekotasun afektiboa duelako.
- Bananduko balitz izango lituzkeen eskubideak ezagutzen ez dituelako.
- Inoiz ez duelako lanik egin etxetik kanpo, eta lanik ez bilatzearen beldur delako.
- Bere isolamenduak hausturan pentsatzea eragozten diolako.
- Familiaren presioengatik.

Tratu txarrei buruzko mitoek ondorengo hauek estaltzeko balio dute:

1. fenomenoaren hedadura;
2. fenomenoak eta botere sozial maskulinoaren abusuak duten kausalitate soziokulturala;
3. gizarte osoan eragina duen arazo bat dela;
4. legitimazio soziala eta tolerantzia (tratu txarrak emateko baimena edo lizentzia);
5. tratu txarren ohikotasuna eta normaltasuna;
6. forma "ez hain larrienganako" onargarritasun soziala;
7. gizonentzako ekartzen dituzten onurak, eta horren ondorioz emakumeentzako ekartzen dituzten kalteak, gizonezkoen erantzukizuna minimizatzen baitute, tratu txarrak ematearen in-tentzionalitatea ukatuz.

Mitoek naturalizatu egiten dute indarkeria: gizonen indarkeriari buruzko mitoak eta gizonek erantzukizunez libratzeko erabiltzen dituzten estrategiak elkar indartzen dira, eta, horrela, gizo-nek beren "inozentzia" edo "inguruko baldintzen biktima" egoera berresten dituzte. Gainera, estereotipoek tratu txarrei profesionalki heltzea, biktimekiko esku-hartzeak eta tratu txarrak ematen dituztenei zuzendutako programak baldintzatzen dituzte. Estereotipo horiek identifi-katzeak eta neutralizatzeko esku-hartzea eraginkorragoa eta fenomeno honen errealitatera doi-tuagoa izatea ahalbidetzen dute.

2.3. TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUZTEN ARRAZOIAK. TRATU TXARREN ETIOLOGIARI BURUZKO AZALPEN-TEORIAK

Teoria ugari dago familiaren arloko eta/edo arlo afektiboko emakumeen aurkako indarke-riaren fenomenoak azaltzen saiatzen direnak:

- Eredu psikiatrikoak tratu txarren emailearen ezaugarri indibidualak azpimarratzen ditu: nortasuna, gaixotasunak, mendekotasunak, eta abar.
- Eredu psikosozialak bikote-harremanean izan ohi diren zailtasunak ditu aztergai batetik, eta, bestetik, familian bertan ikasten dela zer den indarkeria. Belaunaldiz belaunaldi igaro-arazten den indarkeria izango litzake.
- Eredu soziokulturala da eredu berriena eta onartuena. Gizartearen egiturak eta sozializa-zio-ereduak indarkeria hori onartzen eta bultzatzen duten faktore gisa duten eraginari ematen zaio garrantzia.

Tratu txarren azalpen-teoriek irizpide desberdinak erabiltzen dituzte fenomenoak eta bere zergatiak deskribatzeko.

1. Teoria soziologikoak. Hirurogeiko hamarraldian abiarazitakoak, teoria horiek indarkeria testuinguru familiar batean ulertzen dute: familia azterketa-unitate gisa.

2. Gizarte-ikaskuntzaren teoria. Indarkeria eredu jakin baten bidez ikasitako portaera da. Hemen sexuaren araberako rol-ikaskuntza jasoko litzake, sozializazio generikoko prozesuaren bidez.

3. Teoria familiar sistematikoa. Familia egokitzapen-sistema gisa (familia disfuntzionalak). Teoria hori Gizarte Zientzietara Natur Zientzietatik inportatuta iritsi zen. Gertaerak osotasun gisa edo sistematikoki ulertzen ditu; pertsona bakoitza ekintzaz eta erreakzioz eraturako eta edozein puntutan hasi eta amaitu daitekeen sistema zirkular batean dago.

4. Teoria feminista. Teoria feministaren ikuspegitik, tratu txarrak gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinaren isla dira, eta indarkeriaren erroa gizonak gure gizartean duen jabetza eta botere dimentsioan aurki daiteke. Ikerketako feminismoak ez du aztertzen zergatik gizon jakin batek ematen dizkion tratu txarrak emakume jakin bati; aitzitik, feminismoak aztertzen duena zera da: zergatik erabiltzen dituzten gizonak oro har indar fisikoa eta kontrol- eta botere-estrategiak beren bikotekideekin eta zein funtzio duten portaera horiek gizarte jakin batean eta berariazko testuinguru historiko batean.

Tratu txarren azterketari dagokionez, ikuspegi feministak bat datoz ondorengo hauetan:

1. Generoaren eta boterearen konstruktuen azalpen-erabilera.
2. Familiaren azterketa, generoaren eta boterearen araberako harreman heterosexualak egituratzen dituen erakunde gisa.
3. Emakumeen esperientziak ulertzea eta egiaztatzea.
4. Emakumeen esperientziak fideltasunez islatuko dituzten teoriak eta ereduak garatzea.

Ikuspegi feministaren iritziz, ikuspegi soziologikoak indibiduo barruko aldagaiak ditu xedetzat, biktimen eta erasotzaileen portaera azaltzerakoan. Gainera adierazten du "indarkeriaren belaunaldiz belaunaldiko igorpen" kontzeptuak familia prozesu psikologiko eta soziologiko patologikoen produktu gisa ulertzen duela, eta ez gizarte-, historia- eta genero-egitura propioen produktu.

5. Tratu txarrak eragiten dituzten arrazoiak eta tratu txarrek irautea azaltzen duten beste ereduak (18)

(18) Baliabideen teoria (Resource Theory). Sistema sozial guztiak (familia barne) indarrean edo indarkeria erabiltzearen mehatxuan oinarritzen dira maila jakin batean.

Trukaketaren teoria (Exchange Theory). Trukaketari buruzko ikaskuntzaren teorian eta kontrol sozialaren teoriak oinarritua. Familiako kide batek beste baten aurkako indarkeriazko portaera izango du indarkeriazko portaera izatearen kostuak indarkeriarekin lortzen diren irabaziak gainditzen ez badituzte.

Teoria horiez gain, tratu txarren egoera batean jarduten diren mekanismo psikologikoak azaltzen dituzten beste hauek daude:

1. Ikasitako Babesgabetasunaren Teoria. Leonore Walker-ek (19) aldarrikatu zuen Seligman-en *"Ikasitako Babesgabetasunaren Teoria"* zela tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen erreakzio psikologikoak eta portaerazko erreakzioak azal zitzakeen teoriatako bat.

Ikasitako babesgabetasunaren teoriari jarraiki, tratu txar jarraituek tratu txar horiek jasotzen dituzten emakumeek egoera hori konpontzeko edo ebazteko gai ez direla sentiaraztea eragiten dute, eta etorkizuneko egoeretara hedatuko litzake. Babesgabetasun sentimendu horrek depresioa eta antsietatea areagotuko lituzke, eta arazoak konpontzeko gaitasunak gutxiagotuko lituzke; ondorioz, arazoak ekarriko lituzke tratu txarren harreman hori utzi ahal izateko. Kontrolik ez duela sentitzeak defizit kognitiboak, afektiboak eta motibazionalak eragingo lituzke, eta defizit horiek dira babesgabetasun-egoeran aurkitzen diren emakumeen ezaugarri nagusiak. Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeek, azkenean, beren erantzunak jasaten ari diren tratu txarren egoerarengan eraginik ez dutela aitortuko lukete; izan ere, beren portaera bera edo erasotzailearena aldatzeko alternatiba desberdinak praktikan jarri arren tratu txarrak jasaten jarraitu dute.

2. Indarkeriaren zikloaren teoria. L. Walker-ek (20) (1979) *"Indarkeriaren Zikloa"* izeneko teoria formulatu zuen. Ziklo horrek hiru aldi ditu: tentsio-pilaketaren aldia, leherketa- edo eraso-

(19) Walker-ek (1984), 1978tik 1981era bitartean Coloradoko *Battered Women Research Center* delakoan egindako azterlanak adierazten du indarkeria ez zela bikoteko kideen arteko elkarrekintzaren ondorio, eta ezta ere emakumeen nor-tasunaren ezaugarrien ondorio; tratu txarrak ematen dituenak ikasitako portaeraren ondorio baizik. Beren bikotekideetatik bitan edo gehiagotan tratu txarrak jaso dituzten 403 emakumez osatutako lagin bat hartzen zuen azterlan horren datuek berretsi zuten "indarkeriaren zikloa" (1979) benetan existitzen zela. Aurretik, Seligmanek (1975) babesgabetasun ikasiaren teoria garatu zuen.

Hoff-ek (1990) babesgabetasun ikasiaren teoria kritikatzeko du, adieraziz teoria hori tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen ezaugarri psikologikoetan oinarritzen dela. Eredua, ondorioz, gaizki interpretatua izan daiteke, eta emakume pasiboaren edo emakume babesgabeen kontzeptu estereotipatuak defendatzeko erabili daiteke. Autore honek adierazten du "babesgabetasun" terminoa kontu handiz erabili behar dela; izan ere, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak gaitasun gutxiak eta ardurarik gabeak direla adierazi dezake.

(20) U. Bronfenbrenner-en ikuspegi psikologikoak ezartzen du giza portaera bat ezin dela ulertu eta aztertu portaera hori inguratzen duen testuingurutik isolatuta. Bronfenbrenner-ek bere eredu ekologikoa giza garapenaren azterlanari aplikatu zion. Eredu ekologiko horrek tratu txarren faktoreen parte hartzen duten kausa (anitzak), prozesuak eta faktore ugariak, nahiz horien irtenbideak hobeto ulertzea ahalbidetzen duen tresna kontzeptuala eskaintzen du. Eredu hori egitura zentrokide desberdinez edo maila desberdinez eratutako multzo bat da; egitura zentrokide edo maila horiek, elkar erlazionatuz, eragina dute tratu txarren fenomenoan: makrosistema, exosistema, mesosistema eta mikrosistema.

Bosch-ek eta Ferrer-ek (2000) Walker-ek garatutako ereduarekiko kritikoagoak edo ez hain kritikoak diren ekarpenak biltzen dituzte. Gainera, indarkeriaren zikloari dagozkion zenbait aldaketa proposatu dira: biktimak gertatutakoa eta berriro gerta daitekeela ukatzeko tarteko fase bat gehitzea (Juana, 1996), prozesua tentsioa geroz eta gehiago metatzen doan espiral batekin alderatzea (Garro, 1996),...

aldia eta adiskidetze-aldia edo maitaleen barealdia. Horrela, ikasitako babesgabetasuna dela eta sortutako defizitek emakume batek tratu txarren harremanean jarraitzea azaltzen laguntzen dute.

3. Dutton eta Painter-ek (1981) garatutako elkartze traumatikoaren teoria. Elkartze traumatiko deitzen zaio bi pertsonen arteko elkartze emozionalari, betiere bikote horren barruan bikotekideetako batek bestea aldizka mehatxatzen, kolpatzen eta beldurtzen duenean, eta tratu txarrak ematen dizkionean.

Dutton-ek eta Painter-ek diote tratu txarrak jasaten dituen emakumea tratu txarren harreman horretara itzultzen dela, bereizirik dauden aldi horretan hasierako beldurra murriztu egiten delako, eta berehala azaltzen delako bikotekidearekiko mendekotasun emozionalaren sentimendua. Une horretan, emakumeak askoz ere zaurgarriagoak dira. 1993. urtean tratu txarrak jasotzen dituen emakumearen sindromearen ondorenak, Walker-ek proposatutakoa, aztertu ziren: erreakzio traumatikoak, autoestimu-defizitak eta tratu txar emailearekiko elkartze paradaxikoa. Azterlan horretan zera aztertu zen, zein mailatan elkar erlazionatzen diren faktore horiek eta iristen diren sindrome bat eratzera.

4. Tranpa psikologikoaren teoria (Psychological Entrapment). Emakume bat helburu batekin sartzen da bikote-harreman batean: harremanak aurrera egitea lortzea. Zailtasunen aurrean aurkitzen denean, horiek kontuan ez hartzen saiatuko da, eta ahalegin handiagoak egingo ditu bere harremanean harmonia lortzeko. Prozesu horri tranpa psikologiko deitzen zaio.


5. Kostuen eta irabazien azterketaren teoria. Tratu txarrak jasaten dituen emakumeak harremanaren kostuen eta irabazien azterketan, eta egindako inbertsio-kopuruan nahiz eskura dituen alternatiben kalitatean oinarritutako erabaki arrazional baten ondorioz erabakitzen du harremanarekin aurrera jarraitzea.

6. Estresaren eta tratu txarren egoeraren teoria. Tratu txarren harreman baten barruan dauden emakumeek, tratu txar bakoitzaren ondoriozko estresaz gain, etorkizunean gerta daitezkeen balizko biktimizazio gertaerei aurrea hartzean eragindako tentsioa jasaten dute. Gainera, emakume asko, azkenean harremana uztea erabaki ondoren, bikotekideek eragindako minaren, tratu txarren edo heriotzaren mehatxupean bizi ohi dira.


Ondorioz esan daiteke emakumeen aurkako indarkeria oro har, eta familia barruko indarkeria bereziki, emakumeak diskriminatzen dituzten gizarteetako funtsezko osagaiak direla; izan ere, emakumeen kontrako indarkeria ez da estereotipo sexual dominanteetatik eratoritzen bakarrik, babestu ere egiten baititu (21). Emakume askok jasaten duten indarkeriak harreman

(21) Ikus dokumentu hauek: EC/4/ 1996/53 eta A/CONF 144/17, 1991.

handia du emakumeek gizarte guztietan duten desberdintasun-estatusarekin, eta estatus horrek matrimonioan, familian eta, azken buruan, gizarte-egituratan ditu bere erroak. Beraz, ezinezkoa da horren izaera ulertzea tratatu txarrak inguratzen dituen testuinguru soziala eta ideologikoa kontuan izan gabe. Hori horrela, edozein azalpenek erasotzailearen, biktimaren, familiaren eta gizartearen ezaugarriez haraindian joan beharko luke. Emakumeen kontrako indarkeriaren erroetan, indarkeria horrek forma bat edo beste hartu, ondorengo ideia hau dago: emakumeak gizonak baino gutxiago direla eta, ondorioz, emakumeek obediencia eta otzantasuna "zor dietela" gizonei. Uste hori misoginia izenez ezagutzen da.



3. **S**EXU INDARKERIA



Sexu-indarkeriatzat jotzen da, zentzu zabalean, beste pertsonaren adostasunik gabe gauzatzen diren izaera sexualeko jokabide guztiak. Honelako jokabideak hartzen ditu: exhibizionismoa, hitz lizunak, laztanak, bortxaketa, eta abar.

Hiru motatako sexu-indarkeria bereiz daitezke:

a) Sexu-erasoak. Indarkeria edo larderia tarteko direla gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen.

b) Sexu-abusuak. Sexu-abusuak dira indarkeriarik edo larderiarik gabe, baina erasotzailea gailentasunez edo iruzurrez baliatuz egiten diren erasoak. Hemen sartuko lirateke nahimena edo adimena gutxiagotuta edukitzeagatik (adingabekoak, zentzurik ez daukaten pertsonak edo ezgaitasun psikiko batzuk dauzkatenak eta abar) baliozko adostasunik eman ezin dezaketen pertsonen aurka egindako abusuak. Sexu-erasoak disimulatu egiten dira askotan abusu emozionalekin.

c) Sexu-jazarpena. Sexu-izaerako erasoak dira, hitzezkoak, hitzik gabekoak edo fisikoak, laneko, eskolako edo antzeko harremanen barruan gertatzen direnak, pertsonaren duintasunaren kontra eraso egiteko edo beldurrezko giro kontrakoa, umiliagarria edo mingarria bat sortzeko helburuarekin edo xedearekin (22).

Bestelakorik pentsa daitekeen arren, sexu-erasoak, askotan, familiartekoengandik edo ezagunengandik etortzen dira.

Sexu-indarkeriak, kalte fisikoez gain, ondorio psikologiko larriak eragiten dituzte biktimengan (antsietatea, amesgaiztoak, depresioa, sexu-desira gutxitzea...). Ondorio horiek luzaroan irauten dute erasoaren ondoren eta, eskuarki, laguntza psikologiko espezializatua eskatzen dute gainditu ahal izateko.

Askotan, sexu-indarkeria ez da salatzen. Ez salatze horren arrazoia da orain arte beti izan dela tolerantzia zabala gizartean horrelako jokabideen aurrean, eta elkarrekin lotuta dauden beste eragile batzuk ere badira, hala nola: erasotzaileak zigortu egingo duen beldurra, edo gertatutakoaren errudun joko duten beldurra, gertatutakoa jendearen agerian geratuko den lotsa, familiaren edo gizartearen babesik eza, erasoak biktimaren gogoan eragindako nahastea edo asaldur psikologikoa, informaziorik eza, eta abar.

Ondorengo taulan, Erkidegoan sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan diren emakumeen salaketan kopuruari buruzko datuak azaltzen ditugu. Datuok Ertzaintzaren polizia-


(22) Definizio hori da emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 43.1 artikuluan eta 2002/73/CE Jarraibidean jasotakoa.

etxeetan jarritako salaketei buruz Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eskainitako informazioan oinarrituz landu ditugu. Aipatutako iturriaren arabera, sexu-erasoengatik jarritako salaketen %88 emakumeei dagozkie.


Sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan diren emakumeak (salaketak), egintza-motaren arabera eta egintzok gertatu diren lurraldearen arabera (2005)

EGINTZA MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Sexu-askatasunaren aurka	70	181	66	317
Sexu-erasoa	50	86	37	173
Sexu-abusua	13	56	25	94
Sexu-jazarpena	-	2	-	2
Erakuts-zalekeria eta sexu-zirikatzea	7	34	4	45
Adingabeak galbideratzea	-	1	-	1
Prostituzioa	-	2	-	2
GUZTIRA	70	181	66	317

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, 2006ko urtarrila.



4. **B**IBLIOGRAFIA




- Análisis Jurídico de la violencia contra las mujeres. Guía para Operadores Jurídicos.* Emakumearen Institutu Andaluziarra, 2003.
- ANA M^a PÉREZ DEL CAMPO NORIEGA: *Una cuestión incomprendida. El maltrato a la mujer.* Horas y horas, 1995.
- AUDREY MULLENDER: *La violencia doméstica, una nueva visión de un viejo problema.* Paidós, 2000.
- BELÉN SARASUA eta IRENE ZUBIZARRETA: *Violencia en la pareja.* Ediciones Aljibe, 2000.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2001eko martxoaren 21eko Osoko Bilkuran hartutako erabakia, etxeko indarkeriatik eratorritako arazo juridikoei buruzkoa.*
- Delincuencia sexual y sociedad* (SANTIAGO REDONDO coord.). Ariel, 2002.
- El sexo de la violencia. Género y cultura de la violencia.* V. Fisas (ed.). Icaria, 1998.
- Emakumeen aurkako indarkeria.* Emakunde, 2005.
- Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* Arartekoak Eusko Legebiltzarrari igorritako ezohiko txostena, 2003.
- ENRIC GARRIGA MALLAFRE: "Análisis de las instituciones y maltrato institucional" en *III Congreso Estatal sobre infancia maltratada.* Madrid, 1993.
- ENRIQUE ECHEBURUA, PAZ DE CORRAL: *Manual de violencia familiar.* Siglo Veintiuno, 1998.
- España 2002 una interpretación de su realidad social* txosteneko IV. Kapitulu: "Malos tratos a la mujer en la pareja". Encuentro Fundazioa.
- ESPERANZA BOSCH eta VICTORIA A. FERRER: *La voz de las invisibles. Las víctimas de un mal amor que mata.* Feminismos. Cátedra editoriala, 2002.
- ESPERANZA MARTÍN SERRANO y MANUEL MARTÍN SERRANO: *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son las mujeres.* Emakumearen Institutua, 1999.
- Estudio sobre las medidas adoptadas por los Estados miembros de la Unión Europea para luchar contra la violencia hacia las mujeres.* Emakumearen Institutua, 2002.
- INÉS ALBERDI, NATALIA MATAS: *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España.* La Caixa Fundazioa, 2002.

- Informe sobre el tratamiento de la violencia doméstica en la Administración de Justicia.* Soziologia Juridikoko Laborategia. Zuzenbideko Fakultatea. Zaragozako Unibertsitatea, 2001.
- JORGE CORSI (comp.): *Maltrato y abuso en el ámbito doméstico. Fundamentos teóricos para el estudio de la violencia en las relaciones familiares.* Paidós, 2003.
- JORGE CORSI, GRACIELA MARÍA PEYRÚ: *Violencias sociales.* Ariel, 2003.
- JORGE CORSI: *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y modelos de intervención.* Paidós, 1995.
- La atención sociosanitaria ante la violencia contra las mujeres.* BELÉN NOGUEIRAS, ANGELES ARECHEDERRA, LUIS BONINO. Madril, 2001.
- La violencia sobre la mujer en el grupo familiar. Tratamiento jurídico y psicosocial. LO 14/1999: Protección de las víctimas de malos tratos.* Alfonso X el Sabio Unibertsitatea, 1999.
- La etiología de la violencia y el maltrato doméstico contra las mujeres.* Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñako Udala, 2000.
- MIGUEL LORENTE ACOSTA: *Mi marido me pega lo normal. Agresión a la mujer: realidades y mitos.* Ares y Mares, 2001.
- MIGUEL LORENTE ACOSTA, JOSÉ ANTONIO LORENTE ACOSTA: *Agresión a la mujer: maltrato, violación y acoso.* Ed. Comares, 1998.
- "Mujeres maltratadas en convivencia prolongada con el agresor: variables relevantes" E. Echeburúa, P.J. Amor eta Paz de Corral. *Acción Psicológica*, 2 (2002) 135-150.
- Nazioarteko Kongresua: Gizonak giza antolamendu berriaren aurrean.* Emakunde, 2002.
- NEIL JAKOBSON-JOHN GOTTMAN: *Hombres que agreden a sus mujeres. Cómo poner fin a las relaciones abusivas.* Paidós, 2001.
- PATRICIA VILLAVICENCIO CARRILLO eta JULIA SEBASTIÁN HERRANZ: *Violencia doméstica: su impacto en la salud física y mental de las mujeres.* Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa (Emakumearen Institutua). Madril, 2001.
- PIERRE BOURDIEU: *La dominación masculina.* Anagrama, 2000.


BIGARREN ZATIA

ETXEKO TRATU TXARREN
ETA SEXU-INDARKERIAREN
BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEN ARRETA





**5. ANTZEMATEKO GIDA.
INDARKERIAREN
ADIERAZLEAK**



Une femme violenté physiquement ou psychologiquement n'est pas libre de parler ou d'agir
(fisikoki eta psikologikoki bortxatutako emakumeak ez du hitz egiteko edo jarduteko askatasunik).
Golden y Frank, 1994

Etxeko tratu txarren gaia tabu izaten jarraitzen du biktimentzat eta horien lekuko direnentzat; gainera, litekeena da Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten profesionalek zuzenean ez ikustea, eta horrek zaildu egiten du antzematea/diagnosia. Hots, tratu txarrak kanpoko adierazpenetan oinarrituta antzeman behar dira.

Tratu txarren diagnosia ondorengo alderdi hauek kontuan izanik gauzatuko da:

- Errezelarako eta/edo diagnosirako irizpide argiak prestatzea.
- Tratu txar psikologikoan sakontzea eta kontuan hartzea; izan ere, tratu txar psikologikoak tratu txarren testuinguru orotan ematen dira, prozesu gisa, modu edo portaera psikologiko aktibo eta pasibo desberdinak mailakatuz (bartzertzea, degradatzea, ezeztatzea, beldurtzea, isolatzea, galbideratzea, esplotatzea, behar emozionalei jaramonik ez egitea).
- Tratu txar sexualaren kontzeptua mugatzea.

Adierazleen erabilerari esker tratu txarra zein motatakoa eta norainokoa den, zein gogortasun-maila duen eta zein maiztasunekin gertatzen diren deskribatu ahal izango dugu xehetasun osoz. Oso garrantzitsua da adieraztea tratu txarren adierazleak historia sozialetik (eta medikuzterketetatik, ematen direnean) eratorritako datuak direla, eta horiek tratu txarrak egon daitezkeela denotatzen dutela. Ondoren azalduko diren diziplina arteko balorazioei esker gure hipotesiak berretsi ahal izango ditugu.

Jarraian, tratu txarrak antzematen lagundu dezaketen zenbait adierazle aurkeztuko ditugu. Adierazle bakar bat egiaztatzeak ez du esan nahi tratu txarrak daudenik. Hala ere, horietako bat behin eta berriz agertuz gero, horietako zenbait konbinatuta azalduz gero, edo lesio gogorak erakutsiz gero, alorreko profesionalak tratu txarren egoera larri baten aurrean aurki gaitzkeela ohartu behar dira.

KATEGORÍA	ADIERAZLEAK	EMAKUMEAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK	GIZONAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK
TRATU TXAR FISIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> -hezur-hausketak (sudurra, behatzak, besoak) -hematomak -zauriak estalita dauden gorputz-ataletan -zauriak buru-azalean (ilea erortzea) -defizit immunologikoak -ebaki arin eta/edo sakonak -hortzak galtzea -sudurra edo masailezurra haustea -hozkadak -zaintiratuak -garun-traumatismoa, garun-lesioa -bizkarrezur-muinean lesioak -barruko lesioak -lesio iraunkorrak (ikusmena edo entzumena galtzea, min kronikoa, itxuragabetzea) -haurdunaldian zehar "istripuak" -azalpenik gabeko ezgaitasunak -bihotzekoak emakume gazteengan -erredurak -lesioak ehun bigunean -tinpanoa zulatzea -infekzio ginekologikoak -lesio zaharrak, tratatu gabeko hezur-hausturak adibidez -nahi ez diren haurdunaldiak, emakume gazteengan batez ere -erreaktibitate fisiologikoa (arnasa hartzeko zailtasunak, takikardiak, eta abar) -disfuntzio sexuala -portaera autolitikoak -... 	<ul style="list-style-type: none"> -ez dute hitza hartzen, edo asko kostatzen zaie hartzea -isilik egoten dira bikotekidea aurrean dagoenean -azalpenak ematean etengabe eskatzen dute bikotekidearen onospena -oso oldarkor agertzen da norbaitek galdera egiten badio edo, bestela, blokeatu egiten da -defentsa-jarrera hartzen du, hiperzelatari egoten da -"emakumearen rol tradizionala" defendatzen du -balio handiegia ematen dio "gizonaren rolari" eta honek familian duen garrantziari -osasan-arazo errekurienteak ditu 	<ul style="list-style-type: none"> -bere bikotekidearen ordeztuz erantzuten die emakumeari zuzendutako galderei -eten egiten dio bere bikotekideari, zuzentzeko, zehazteko edo emakumea kontatzen ari dena bere erara esateko -emakumeari mezuak igortzen dizkio, isil dadin, edo bere adierazpenak "zehaztu" ditzan -gizarte zerbitzuetako profesionala emakumeak zenbait gairen inguruan duen ezintasunare lekuko gisa erabiltzen du -irmotasunez babesten eta onartzen du ondorengo hauen funtzio eta estatus desberdinen kontzepzio zorrotza: emakumea, gizona, aita, ama, bikotea, seme-alabak -heziketa zorrotza aldarrikatzen du, zigorrak eta "zuzenketak" barne. -jeloskorra eta posesiboa da -bere sentimenduak eta emozioak adierazteko zailtasunak ditu -beti laguntzen dio emakumeari mediku-azterketak, kontsulta psikologikoak, gizarte-baliabideen laguntza-eskaerak eta horrelakoak dakartzaten hitzorduetara...

jarraitzen du

KATEGORÍA	ADIERAZLEAK	EMAKUMEAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK	GIZONAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK
TRATU TXAR PSIKOLOGIKOAK EDO EMOZIONALAK	<ul style="list-style-type: none"> -beldurra -izua -depresioa -kexa somatikoak -trauma-ondoko estresak eragindako antsietatea edo inhibizioa -urduritasuna eta hiper-zaintza -loaren nahasteak -kontzentratzeko zailtasunak -portaera auto-suntsitzaila (suizidio-ekinaldietara iritsi daitekeena) -medikamentuen abusua edo medikamentuak hartzei uko egitea -sumintasuna eta haserrea -anorexia eta bulimia -automutilazioa -emozio labilak -fobiak -disfuntzio sexuala -portaera autolitikoak -... 	<ul style="list-style-type: none"> -ez dute hitza hartzen, edo asko kostatzen zaie hartzea -isilik egoten dira bikotekidea aurrean dagoenean -azalpenak ematean etengabe eskatzen dute bikotekidearen onespina -oso oldarkor agertzen da norbaitek galdera egiten badio edo, bestela, blokeatu egiten da -defentsa-jarrera hartzen du, hiperzelatari egoten da -“emakumearen rol tradizionala” defendatzen du -balio handiegia ematen dio “gizonaren rolari” eta honek familian duen garrantziari -osasan-arazo errekkurreteak ditu 	<ul style="list-style-type: none"> -bere bikotekidearen ordeztuz erantzuten die emakumeari zuzendutako galderei -eten egiten dio bere bikotekideari, zuzentzeko, zehazteko edo emakumea kontaktzen ari dena bere erara esateko -emakumeari mezuak igortzen dizkio, isil dadin, edo bere adierazpenak “zehaztu” ditzan -gizarte zerbitzuetako profesionala emakumeak zenbait gairen inguruan duen ezintasunare leku gisa erabiltzen du -irrotasunez babesten eta onartzen du ondorengo hauen funtzio eta estatus desberdinen kontzeptio zorrotza: emakumea, gizona, aita, ama, bikotea, seme-alabak -heziketa zorrotza aldarrikatzen du, zigorrak eta “zuzenketak” barne. -jeloskorra eta posesiboa da -bere sentimenduak eta emozioak adierazteko zailtasunak ditu -beti laguntzen dio emakumeari mediku-azterketak, kontsulta psikologikoak, gizarte-baliabideen laguntza-eskaerak eta horrelakoak dakartzaten hitzorduetara...


jarraitzen du

KATEGORÍA	ADIERAZLEAK	EMAKUMEAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK	GIZONAREN PORTAERA- -ADIERAZLEAK
TRATU TXAR SEXUALAK	<ul style="list-style-type: none"> -sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak -nahi ez diren haurdunaldiak -arriskuzko haurdunaldiak -HIES -zauriak bularretan -zauriak bulban, ezpain handi eta txikietan, klitorisean, aluan, uzkian -disfuntzio sexuala -portaera autolitikoak ... 	<ul style="list-style-type: none"> -ez dute hitza hartzen, edo asko kostatzen zaie hartzea -isilik egoten dira bikotekidea aurrean dagoenean -azalpenak ematean etengabe eskatzen dute bikotekidearen onespina -oso oldarkor agertzen da norbaitek galdera egiten badio edo, bestela, blokeatu egiten da -defentsa-jarrera hartzen du, hiperzelatari egoten da -“emakumearen rol tradizionala” defendatzen du -balio handiegia ematen dio “gizonaren rolari” eta honek familian duen garrantziari -osasan-arazo errekurriteak ditu 	<ul style="list-style-type: none"> -bere bikotekidearen ordeztuz erantzuten die emakumeari zuzendutako galderei -eten egiten dio bere bikotekideari, zuzentzeko, zehazteko edo emakumea kontatzen ari dena bere erara esateko -emakumeari mezuak igortzen dizkio, isil dadin, edo bere adierazpenak “zehaztu” ditzan -gizarte zerbitzuetako profesionala emakumeak zenbait gairen inguruan duen ezintasunare lekuko gisa erabiltzen du -irmotasunez babesten eta onartzen du ondorengo hauen funtzio eta estatus desberdinen kontzeptzio zorrotza: emakumea, gizona, aita, ama, bikotea, seme-alabak -heziketa zorrotza aldarrikatzen du, zigorrak eta “zuzenketak” barne. -jeloskorra eta posesiboa da -bere sentimenduak eta emozioak adierazteko zailtasunak ditu -beti laguntzen dio emakumeari mediku-azterketak, kontsulta psikologikoak, gizarte-baliabideen laguntza-eskaerak eta horrelakoak dakartzaten hitzorduetara...


Gogoratu behar dugu tratu txar mota desberdinak etengabe daudela erlazionatuta eta oso arraroa dela horiek isolatuta ematea. Emakumei tratu txarrak ematen dizkieten gizonak nahi-ta erabiltzen dituzte emakumeen gaineko kontrola indartzeko estrategia psikologikoak.

Mugikortasun murriztua duten emakumei dagokienez, tratu txarrek ondorengo hauek ere hartzen dituzte:

1. Komunerako sarbidea ukatzea edo bainua hartzen ez laguntzea.
2. Ezintasuna umiliatzeko erabiltzea.
3. Ez diete mugitzen, lekualdatzen (bastoia edo gurpil-aulkia kenduz) edo garraioa erabiltzen laguntzen; horrela, emakumeak preso birtual bilakatzen dira.
4. Behar dituzten botikak edo jakiak ez ematea.



6. ETXEKO TRATU TXARREN
ETA SEXU-ERASOEN
BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEI ESKAINTZEN
ZAIEN LAGUNTZA
HOBETZEKO ERAKUNDEEN
ARTEKO HITZARMENA



Tratu txarren eta sexu-erasoen izaerak (batez ere erasoak familian gertatzea eta betidanik gizarteak jarrera horiek onartzea) berarekin dakar biktimak, kasu askotan, babesik gabe egoitea. Horregatik, biktimei babes osoa bermatze aldera (osasun babesa, eta poliziaren, epailearen eta gizartearen babesa), beharrezkoa da botere publikoek elkarrekin esku-hartzea eta ekin-tza prozedura bateratuak ezartzea.

Horri dagokionez, 2001eko urriaren 18an, *etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko hitzarmena* sinatu zen; eta, horren bidez, 2000ko azaroaren 25ean sinatutako Erakundeen arteko Protokoloan hartu ziren konpromisoak indarrean jarri ziren. Euskal Autonomia Erkidegoko gorengo agintariek sinatu zuten hitzarmena: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren izenean; EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskal-Burua, Fiskaltzaren ordezkapenean; hiru diputatu nagusiak, hiru Foru Aldundien ordezkapenean; Eudeleko lehendakaria, Euskadiko udalen ordezkapenean; eta Abokatuen Euskal Kontseiluko eta Medikuen Euskal Kontseiluko lehendakariak, beren elkargokideen ordezkapenean.

Hitzarmen hau lurralde historikoetako bakoitzean izenpetu ziren sexu-erasoen biktimei laguntzeko koordinazio hitzarmenak osatzera eta hobetzera dator. Gainera, Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzen diharduten erakunde guztien arteko koordinazioa hobetzea du xede. Horretarako, profesionalak kasu horietan jarraitu beharreko jarduketa-protokoloak ezartzen dira, bai bakoitzari dagokion lan-eremuari dagokionez eta baita erakunde desberdinen arteko harremanei dagokienez ere.

Jarduera protokoloan jasotako neurriak eta jarduera ildoak benetan aplika daitezten sustatzeko, hitzarmena sinatu duten erakundeek hitzarmenaren edukiak zabalduko dituzte beren profesionalen artean, trebakuntza-planak abiaraziko dituzte, beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak gaituko dituzte eta Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean parte hartuko dute.

Hitzarmenak aplikazio praktikorako marko bat eskaintzen du, biktimen arretan parte hartzen duten instantzia desberdinetatik, tratu txar fisikoen, psikologikoen eta sexualen nahiz eraso sexualen biktima diren emakumeak hobeto identifikatzea eta helburu horretarako xedapen legal eta jarraibide guztien aplikazio egokia ahalbidetzeko, emakumeei babesa, laguntza eta informazioa eskainiz, modu integralean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako ministroen batzordeak 2002ko apirilaren 30ean emandako gomendioaren eranskinean ere jasota da goen bezala (23).

(23) Gomendioan ondorengo hauek eskatzen zaizkie Europar Batasuneko kide diren estatuei:

-bermatzea biktimek, diskriminaziorik gabe, berehalako arreta orokorra jasoko dutela; arreta hori diziplina anitzeko ahalegin koordinatu batek eskaintzen du, biktimak gertatutakoa salatu ala ez, medikuaren eta auzitegiko medikuaren azterketa eta tratamendua barne, traumaren ondorengo laguntza psikologikoarekin eta sozialarekin, nahiz laguntza legalarekin; hori guztia konfidentzialki eskaini beharko da, doan eta modu jarraituan;

-bermatzea bereziki emakume etorkinek ere, haiek eskatuta, etxeko indarkeriaren biktima direnentzat eskura dauden zerbitzu eta legezko baliabide guztiak jasoko dituztela.

6.1. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN JARDUTEKO PROTOKOLOA. JARDUNBIDEAREN XEHETASUNAK

Erakunde arteko hitzarmenak EAeko Gizarte Zerbitzuen arloko jarduera-protokolo bat hartzen du barruan. Protokolo horren xedea da etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasu batean eman daitezkeen egoera desberdinei erantzutea, eta delitu horien biktimen arreta-zirkuitua osatzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaz ezartzea, ondorengo helburu hauekin:

- Prebenitzea.
- Ahalik eta arreta egokiena eta eraginkorra ematea.
- Bigarren mailako biktimizazioa saihestea: emakumeei profesional eta erakunde desberdinen esku-hartzeetatik eratorritako eragozpenak minimora murriztuz.
- Ekimena zerbitzuetatik bertatik sustatzea: ibilbidea/protokoloa ez du emakumeak jarraitu behar; aitzitik, zerbitzuak dira abiaraziko eta koordinatuko dituztenak, bakoitzak planteatzen dituen egoeraren ezaugarrien arabera.

Jarraian erakunde arteko hitzarmeneko protokoloan xedatutakoa jasotzen da. Letra etzanaz zenbait iruzkin eta azalpen gehitu dira, zenbait kasutan, alderdi jakin batzuk argitzeko eta, beste batzuetan, berriz, testuari hitzarmena indarrean sartu ondoren izan diren arau-aldaketei buruzko erreferentziak eransteko:

Etxeko tratu txarren biktima batek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein Oinarriko Gizarte Zerbitzura jotzen duenean, ahalik eta epe laburrenean eta lehentasunez eskainiko zaio arreta, eta honako urratsak egingo dira:

a) Biktimak lesiorik badu eta osasun laguntzarik behar badu, edo nahiz eta ez ikusi, zauriak dituela uste bada, dagokion medikuarengana eraman beharko dugu. *Biktimari medikuarengana laguntzea oso garrantzitsua da, laguntza handikoa izan baitaiteke gizarte-zerbitzuetako profesionalak eman dakioken babesa. Era berean, etxeko tratu txarren aurrean jarraitu beharreko osasun-protokoloan jasota dagoen tratu txarretarako mediku-txostenaren kopia bat eskatzeko esango zaio. Txosten hori osasun-zentroan bete beharko da.*

Sexu-erasoa egin berria bada, lehenengo SOS-Deiak jakinaren gainean jarri, horrela beharrezko gestioak abian jartzeko (*anbulantzia bidali, poliziaren presentzia eskatu,...*). Ondoren, biktima ospitale hurbilenera eraman, eta ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan. Orobat, ahotik erasoak egon badira, biktimak ezingo du ez jan, ezta edan ere, *balizko prozesu judicial*

batean funtsezkoak izan daitezkeen frogak desagerraraztea saihesteko. Erasoia Bilboko barruti judizialean gertatzen denean, biktima Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzu klinikora ere eraman *eta lagundu* daiteke, lesio larriak dituztenean salbu. Izan ere, zaintzako langileak 24 orduan daude zerbitzu horretan.

Mediku azterketa egiteko eta laginak hartzeko biktima ospitalera eramanez gero, aldez aurretik auzitegiko medikuari deitu behar zaio. Auzitegiko medikuari ospitalera joateko esango zaio eta, era berean, ospitaleko medikuei gestio horren berri emango zaie. Orobat, auzitegiko medikuari eskura dituzten gertakizunari buruzko datu guztiak emango dizkiote. *Ez da aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa izapide horiez polizia edo SOS-Deiak arduratzen direnean.*

b) Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu, lehentasunezko laguntza egokia emango zaio, betiere biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda.

Emakumearen segurtasun edo osotasun fisikoa arriskuan badago, SOS-Deiak zerbitzura, Ertzaintzaren komisariara edo tokian tokiko poliziara deitu laguntza eske. Poliziari eskatu Oinarritzko Gizarte Zerbitzura, edo biktima babesteko toki egokienera, joateko.

Lehenengo elkarrizketaren helburuak: biktimari laguntzea, eskuragarri dituen baliabideak eta arreta jakinaraztea, eta arazoak dituen irtenbideak azaltzea. Biktimari bera eta bere seme-alabak babestuta egoteko ahal diren baliabide guztiak erabiliko direla esan. Emakumea lasaitzen saiatu, eta laguntza eta segurtasuna eman.

Laguntza juridikoa emateko zerbitzuetako laguntza kualifikatuaz gainera, beharrezkoa da gizarte zerbitzuetako langileek biktimari beren eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruzko informazioa eta aholkuak ematea, eta batez ere honako eskubideak dituela esatea: gertatutakoa poliziaren aurrean edo zaintzako epaitegian salatze eskubidea, erasotzailea beragandik urruntzea eskatzeko eskubidea, banantze zibilerako behin-behinekoak bakarrik diren neurriak eskatzeko eskubidea, eta, hala badagokio, Abokatuen Elkargoko Argibide Juridikoetako Zerbitzuetatik doako justizia jasotzeko eta 35/1995 Legean araututako laguntzak eskatzeko eskubidea.

Biktimari jakinaraziko zaio Babesteko Agindu (24) bat eska dezakeela eta eskatzea komeni dela, Epaitegiak, egoki iritziz gero, zigor-motako babeserako –behin-behineko espetxeratzea, erasotzailearen urruntzea,...-, babes zibilerako –erasotzaileari etxebizitza erabiltzea debekatzeta, seme-alaben gaineko eskubideak mugatzea, elikadura-pentsio bat xedatzea,...- neurriak har ditzan, eta gizarte-zerbitzuei laguntza egokiak eskatzeko. Biktimari jakinaraziko zaio Babesteko Aginduak salaketa-izaera duela eta, Legeak Babesteko Agindua Gizarte

(24) Ikus gizarte zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokolo III. eranskina.

Zerbitzuetan eskatzeko aukera ematen badu ere, Babesteko Agindu hori poliziarri eskatzean duen garrantzia azalduko eta gomendatuko zaio; izan ere, horrela, izapideak aurreztuko ditu, eta Agindua ahalik eta epe laburrenean ematea ahalbidetuko du (emakumea eta erasotzailea epaitegira joan eta 72 orduko gehieneko epean). Adieraziko zaio oso garrantzitsua dela Babesteko Agindua eskatzerakoan behar bezala aholkatuta egotea; horretarako, bulego polizialean eta judizialean doako abokatu espezializatu baten laguntza letratua izango du 24 orduz.

Egindako gomendioa kontuan hartu gabe biktimak Babesteko Agindua gizarte zerbitzuan hartu nahi badu, berriro gogoraraziko zaio komenigarria dela 24 orduko abokatu-laguntza erabiltzea (kasu horretan telefono bidezko laguntza izango da). Gizarte-langileak zerbitzuarekin harremanetan jarriko du (Araba: 652 779 045; Bizkaia: 652 779 044; Gipuzkoa: 652 779 043). Biktimak zerbitzu hori erabiltzeari uko egiten badiu, edo, edozein arrazoi dela medio, zerbitzu hori emateko aukerarik egongo ez balitz, gizarte zerbitzuetako profesionala izango da emakumeari Babesteko Aginduaren eskaera betetzen lagunduko diona. Eskaera horren eredu eskuragarri egongo da gizarte zerbitzu guztietan. Behin Babesteko Agindua eskatzeko eredu bete ondoren, gizarte zerbitzuetako profesionalak eskatzaileari eman beharko dio kopia bat, beste kopia bat bere eskuetan geratuko da eta, azkenik, jatorrizkoa berehala igorri beharko du Guardiako Epaitegira.

Babesteko Agindua biktimarekin ondorengo ahaidetasun-erlazio hauek dituzten pertsonak ere eska dezakete: ezkontidea edo biktimarekiko antzeko afektibitate-harreman baten bidez modu egonkorrean lotuta egon den pertsona, ezkontidearen edo bizikidearen seme-alabak, pupiloak, aurreko ahaideak edo biktimarekin bizi diren pertsona ezgaiak, edo guraso-aginteari, tutoretzari, kuratelari, harrerari edo egitatezko zaintzari lotutako pertsona oro. Kasu horretan, Babesteko Agindua betetzeko laguntza eskainiko zaio baita ere eskatzaileari, eta aurreko paragrafoko azkeneko puntuan adierazitakoari jarraiki jardungo da.

Biktimak egintzak salatu nahi ez baditu, edo Babesteko Agindu bat eskatu nahi ez badu, informazioa 7.2 (25) atalean jasotako ereduaren arabera bilduko da. Horrek ez du esan nahi gizarte zerbitzuetako profesionalak egoera berezi bakoitzaren arabera galderak egiteko askatasunik ez duenik. Egintzak agintari judizialari jakinarazi, eta horretarako 7.2 atalean aurreikusitako bidaltze-txostena erabili. Txosten horren kopia bat biktimari emango zaio. Emakumea beste instantzia batzuetara bideratzean dugunean ere erabili behar dugu bidaltze-txosten hori, erakunde hartzailea gizarte zerbitzuetako profesionalarekin harremanetan jarri ahal izateko.

Gertatutakoa eskuduna den agintzari (Epaitegia) jakinarazi aurretik, salaketa jartzen duena edo Babesteko Agindua eskatzen duena biktima bera izatea bilatu beharko da, salatzea esku-

(25) Eredu horiek erakunde arteko hitzarmeneko II. eta III. eranskinetan aurreikusitako ereduaren oinarritzen dira, eta horiek osatzea eta hobetzea dute xede.

bide bat izateaz gain jasaten ari den indarkeriazko harremanarekin hausteko modu bat ere bada eta Justizia Administrazioaren babes-mekanismoak erabiltzeko modu bat dela azalduz –erasotzailearengandik urruntzea, babes poliziala, aitak seme-alabekiko dituen eskubideak baliogabetzea, etxebizitzaren erabilera, elikadura-pentsioa, eta abar-. Era berean, biktimari azalduko zaio Legeak gertatutakoa Epaitegiei jakinaraztera behartzen duela, eta agindu horri kasurik egiten ez badio, erantzukizun penalak izan ditzakeela. Hala ere, gertatutakoa agintaritzari jakinaraztea geroratu egin daiteke, biktimaren osotasunean eta segurtasunean eragina duten eta izapide hori geroratzea aholkatzen duten baldintzak ikusten direnean (26).

Era berean, komeni da emakumeari esatea Erkidegoan badirela tratu txarretarako eta sexu-erasoetarako doako gizarte baliabideak (27):

- Harrera etxeak eta, dagokionean, laguntzako heziketa-programa egokiak.
- Berehalako Harrera Zentroak.
- Tratu txarrak edo sexu-erasoak izan dituzten biktimentzako laguntza psikologikoko programak.
- Laguntza juridikorako zerbitzuak.
- Biktima laguntzeko zerbitzuak.
- Abokatuen elkargoen argibide juridikoetako zerbitzuak.
- Erasotzaileentzako laguntza psikologikoko programak.
- Laguntza ekonomikoak.
- Bestelako baliabideak

6.2. GIZARTE-ARLOKO ESKU-HARTZEA

Esku-hartzea ondorengo lau alderdietan oinarritzen da:

1. emakumean gizarte zerbitzuetako profesionalarengan duen konfiantza;
2. biktimak dituen onura-itxaropenak;
3. arrazonamendu optimisten azalpena;
4. erabiltzailearen parte-hartze aktiboa.

Esku-hartzean zehar ondorengo hauek hartuko dira kontuan:

(26) Ikus sekretu profesionalari eta salaketari buruz 6.2.2. atalean jarritakoa.

(27) Ikus dauden baliabideen erabilerari buruz 6.2.6 atalean jarritakoa.

1) tratu txarrak jasotzen dituen emakumearen portaera tratu txarren testuinguru batean ulertzea;

2) tratu txarrek eragiten dituzten trauma psikologikoa eta ondorenak ulertzea, intimitatea dagoen edo egon den harreman batean.

Helburu hauek hartuko izango dira gogoan:

1. emakumearen segurtasuna areagotzea;
2. erabakiak hartzeko prozesuan laguntzea; eta
3. tratu txarrek eragindako trauma psikologikoa gainditzen laguntzea.

Horretarako, ondorengo elementu hauek aztertuko dira:

- tratu txarren izaera eta ereduak;
- tratu txarren ondorioetan eta horiei aurre egiteko erabilitako estrategiatan eragina duten faktoreak;
- bizirauteko estrategiak eta emakumeek tratu txarrei aurre egiteko erabiltzen dituzten bestelako erantzunak;
- tratu txarren eragin psikologikoa.

6.2.1. LARRIALDIETAKO ESKU-HARTZEA ⁽²⁸⁾

Larrialdietako esku-hartzeak une desberdinak ditu. Lehenik eta behin, erantzun azkar eta egokia eman behar zaie biktimaren beharrei eta erasoak geldiarazi behar dira, biktimaren segurtasuna bermatuz. Ondoren, elkarrizketa sakon bat egingo zaio. Gainera, kontuan hartuko da etxean tratu txarren emailearekin geratu den seme edo alabaren bat indarkeria jasateko arriskuan geratzen den. Haur horren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea lehentasunezkoa izango da.

Biktimari segurtasun fisikoa ematea aurretiazko eta ezinbesteko baldintza da elkarrizketa hori egin ahal izateko. Krisiko elkarrizketaren xedea da egungo egoera ulertzea eta ezagutzea eta indarkeriaren zikloko une hori (erasoa duela gutxi gertatu da) aprobeztatzea, ziklo hori hautsi dezakeen erabakiren bat hartzeko.

Elkarrizketako funtsezko bi helburuak ondorengo hauek izango dira:

1. Krisi-bizipena lantzea
2. Emakumeak hartuko duen erabakiaren gainean lan egitea

(28) Larrialdietarako esku-hartzea Udaletako Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuetan gauzatzen da nagusiki; ez da batere ohikoa esku-hartze mota horiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ematea.

1. FASEA: KRISI-BIZIPENA LANTZEA

Krisi-egoera bat egoera jakin bat konpontzeko zailtasunezko egoera iragankorra da. Ezaugarri nagusia da gertaera puntual edo metagarri batek eragindako blokeo emozionala, arazoari aurrea hartzeko estrategiatan zailtasunak sortzen dituena. Krisia mugatua da denboran eta ondo konpondu daiteke (historia propioan integratzen bada, hazkuntza eta heldutasuna eraginez) edo gaizki konpondu daiteke (konpondu gabe geratzen bada, "enkistatuta", pertsonari sufriarazi egiten dion arazo konpondu gabe bat bezala).

Krisi-egoera bat dagoela erakusten duten zenbait sintoma ditugu hauek:

- fisikoak: nekeak, ahuldura, buruko mina, goragalea, aho lehorra,...
- kognitiboak: pentsamendu-nahasmendua, ezintasuna (zauritu ezinaren ilusioa)
- psikologikoak: antsietatea, kontzentrazio-eza, sugestionagarritasuna (jarraibideak hitzez hitz jarraitzeko asmoz entzutea), arazeria emozional gehiegizkoa (hitz-jarioa, mugimendu eten-gabeak) edo txikiegia (blokeoa, ezintasuna, lelokeria,...)
- portaerazkoak: lan-jardueren desantolaketa, desantolaketa familiarra, soziala,...

Elkarrizketaren bidez (29) harreman bat ezarriko dugu tratu txarrak jaso dituen emakumearekin, emakumeak bere burua irekitzea eta guk gertatzen ari dena ulertzea sustatuz; gainera, elkarrizketari esker babes emozionala ahalbidetzen duen enpatia-giro bat ahalbidetzen du (euste-emozionala).

Elkarrizketari esker tratu txarrak hartzen dituen emakumearen ezintasun- eta frustrazio-sentimenduak neutralizatu daitezke. Nola?

- Bere autonomia estimulatuz;
- Gaitasun pertsonaleko eta sozialeko ereduaren garapena sustatuz; eredu horiek ondorengo hauek bezalako aldagaiak dituzte:
 - autokontzeptua
 - autoestimua
 - autokontrola
 - soziabilitatea
 - enpatia
 - asertibitatea
 - egozpen-estiloa

(29) Elkarrizketa "kontzientziatzea, gaitzea, ebaluatzea, orientatzea, informatzea, autoestimua indartzea, parte-hartzea sortzea, portaerak aldatzea eta datuak biltzea ahalbidetzen duen" tresna bat da (N. Leiswermann eta G. de Gómez)

- Bere jabekuntza sustatuz (bere bizitzari buruzko erabakiak hartzea);
- Erabakiak hartzeko prozesuan animatuz, arazoak konpontzeko estrategien jabekuntzan eta gaitasun sozialetan trebatuz.

Oso garrantzitsua da adieraztea tratu txar fisiko, sexual eta psikologikoen autoestimua murrizten dutela, autoebaluazio negatiboko sinesmenak areagotu egiten direlako, eta biktimek tratu txarren egoerari behar bezala aurre egiteko gaitasuna txikiagotu egiten delako. Gainera, emakumeek laguntza babes sozialeko sareei eskatzen dietenean, beren lagunaren edo senitartekoaren aldetik saiheste- eta deserosotasun-erantzunekin topo egiten badute, autoestimua oraindik baxuagoa izaten da.

Babes sozialak, erkidegoak emanak, sare sozialak eta lagun intimoek babestu eta bultzatu egiten dute ongizate psikologiko eta emozionala, eta arindu egiten dute angustia; horregatik, erreakzio sozial negatiboek kontrako ondorioak dituzten biktimengan: bere erantzuteko gaitasunaren sorgortzea, gainerako pertsoneniko distantziamendu-sentsazioa, afektuaren hertsadura, eta abar.

Babes sozialak ondorengo alderdi hauek hartuko ditu:

- 1) babes emozionala: empatia, maitasuna eta konfiantza;
- 2) laguntza edo babes instrumentala: ondasunak eta zerbitzuak; eta
- 3) euskarri informatiboa: arazoa konpontzeko informazio garrantzitsua.

Esku-hartzeak emakumearen esku jartzen ditu bere ideiak eta bizitzen ari denaren pertzepzioa argitzen lagun dezaketen elementuak; gainera, informazioa emango zaio eta bere behar pertsonalak kontuan hartzea animatuko zaio; hartzen dituen erabakien ondorioei aurre egiten lagunduko dio, bere segurtasuna bermatzeko bitartekoak jarriko ditu, eta bere erabakiak berresten lagunduko dio.

Gizarte zerbitzuetako profesionalarentzat ez da beti erraza indartze-jarrera hori mantentzea, batez ere arreta jasotzen duen emakumeak berriro ere arriskuan jarriko duten erabakiak hartzen dituenean. Kasu horietan komenigarria da tratu txarretatik ihes egiteko, tratu txarrak saihesteko edo horiek gainditzeko erabiltzen ari den estrategia-motak aztertzea eta ebaluatzea (ihes-estrategiak, saiheste-estrategiak edo biziraupen-estrategiak):

- 1) legezko estrategiak: banantzea edo dibortziaztea;
- 2) babes informala bilatzeko estrategiak;
- 3) babes formala bilatzeko estrategia;
- 4) ihes-portaerak;
- 5) "sumisioa" eta/edo tratu txarrak ematen dituen pertsonaren desioei aurrea hartzea;
- 6) pasibotasuna edo defentsa pertsonal aktiboa...

Funtsezkoa da aurrea hartzeko estrategia horiek ulertzea eta aitortzea, biktimari balidazioa emateko eta laguntza eskaintzeko.

2. FASEA: TRATU TXARRAK JASOTZEN DITUEN EMAKUMEAK HARTUTAKO ERABAKIAREN GAINEAN LAN EGITEA

Tratu txarrak jasotzen dituen emakumeak, larrialdi-une batean iritsi den emakumeak, erabaki oso zaila hartu behar du:

- Etxebizitza uztea.
- Etxera itzultzea; hau da, erasoen egilearekin itzultzea.
- Gizona etxetik irten dadin babes-agindu bat eskatzea.

Hartutako erabakia edozein delarik ere, erabakiak tratu txarrak jaso dituenarena izan behar du, emakumeak hartu behar du. Erabaki horren ondorioak eztabaidatu eta aipatu egin behar dira. Gizarte zerbitzuetako profesionalak erabakia abiarazteko eskaini daitezkeen laguntza-bi-tartekoak azalduko dizkio.

Fase honetan, gizarte zerbitzuetako profesionalak, askotan, babes-aginduan jasotako neurriei (zibilak, penalak eta sozialak) buruzko informazioak eman beharko ditu, emakume askok duten informazio-gabezia konpentsatzeko.

Gizarte Zerbitzuek babes-agindua eskatzeko eredia (30) eskainiko diote, eta emakumearen esku jarriko dituzte beharrezkoa den informazio guztia eta inprimaki normalizatuak.

Erasotzailearekiko harremana etetea erabakitzen badu: Erabaki hau gauzatzeak zailtasunak eta arriskuak ekartzen ditu; horregatik, emakume askok ez dute kontuan hartzen aukera hau. Indarkeriaz liberatzeak eta bikotekidea uzteak egoitza eta mantenua bezalako beharrei aurre egitea suposatzen dute, seme-alaben gaineko erantzukizun osoa beregain hartzea –dago-kionean-, baliabide ekonomiko nahikoak izatea, lan bat izatea, eta abar.

Larrialdietako harrera eta egoitza, krisi-une batean, esperientzia oso garrantzitsuak dira; hortik abiatuta posible da bizimodu berri bat positiboki aurre egitea, eta epe laburrago edo luzeagoan benetako haustura izango zen horren aurrerapena izango da.

(30) Ikus gizarte zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloko III. eranskina.

Larrialdietako harrerak bi ezaugarri hauei erantzun beharko die:

- Segurtasun fisikoa bermatzea.
- Autoestimua eta autonomia-gaitasuna sustatzea.

Tratu txarren biktimak bere bikotekidea uzteko erabakia hartzen duen bitartean, babes erreala bat behar du, eta ez plano materialean bakarrik (31) (egoitza, baliabideak); baita ere, eta batez ere, plano emozionalean: babes psikologikoa, babesa bere seme-alabekiko harremanean,... Orientazioa eta babesa ere behar du abiarazten diren prozesu administratibo eta judizialetan.

Berriro gizonarekin itzultzea erabakitzen badu: Garrantzitsua da kontuan hartzea harrera izan duen emakumeak esperientzia positiboki bizi ahal izan duela, eta hori eragingarria izan daiteke emakumearentzat, tratu txarrik gabeko etorkizun bati aurre egiteko.

Zenbaitetan, bikotearen etxebizitzatik larrialdi-egoeran irteten diren emakumeak ez dute erasotzailearekiko harremana behin betiko hausteko erabakia hartu. Indarkeriatik ihes egiteko irteten dira; horregatik, "arrunta" iruditzen zaie behin krisia igaro ondoren etxera itzultzea.

Haustura ebolutiboaren prozesua, tratu txarrak jasotzen dituzten emakume askorentzat, autonomiaren eraikuntzan modu eraginkorrean esku hartzen duten faktoreak eta mekanismoak kontrastatzeko bidea da:

- Dauden baliabideen eta babes-sarearen funtzionamendua esperimentatzea.
- Autonomia lortzea; hots, bakarrik bizitzeko eta antolatze gaitasunak egiaztatzea.

Prozesu horrek gizarte zerbitzuen profesionalak eta biktimaren inguruneak bilakaera hori ulertzen eta babesten duten neurrian bakarrik izango du arrakasta.

Beharrezkoa da:

- Mekanismo hori ulertzea.
- Erabakiak balidatzea, erabaki horien oinarri diren arrazoiak formulatzera gonbidatuz.
- Emakumeari indarkeria-adierazpenak antzematen, horiek saihesten eta horietatik ihes egiten eta babesten laguntzen dioten erabaki-irizpideak ezartzea.

(31) Egoitzari, enpleguari eta laguntzako gizarte zerbitzuei eta zerbitzu psikologikoei buruzko alternatiba errealik ez egoteak, biktimaren informazio-ezarekin batera, eskura dituen baliabide komunitarioei dagokienez, bizirautea denez bere xede bakarra, zerikusia dute emakumea indarkeriazko harremanean mantentzearekin (Salber eta Taliaferro, 2000)

Kasu honetan, ezinbestekoa da emakumeari berak etxera itzultzearekin espero duena, egiaztatu nahi duena eta berak espero duena betetzen ez bada eta indarkeria berriro hasten bada egingo duena zehaztasunez azal dezan eskatzea. Esperientzia dela-eta, gizarte zerbitzuetako profesionalak pentsatzen du bikotekideak indarkeria berriro erabiliko duela. Ezinbestekoa da emakumeari beldur hori eta aukera hori jakinaraztea, eta halakorik gertatuko balitz eraso berri horren ondorioak murrizteko xedez gogoan izango dituen babes-neurriei buruz galdezea.

Krisi-egoeren aurrean babes-estrategia bat ezartzea, hau da, emakumearentzako eta seme-alabentzako plan bat diseinatzea, eta hori berarekin batera egitea, berehalako lehentasun bat da, bai bere burua arriskutik kanpo ahalik eta epe laburrenean jartzeko, edo etorkizunean gerta daitekeen beste larrialdiren baten aurrean prest egoteko, adibidez dirua, agiriak eta funtsezkoak diren beste gauzak barruan dituen ekipaje txiki bat prestatuz. Planifikatzeak segurtasuna areagotzea ahalbidetzen du (32).

6.2.2. TRATU TXARRAK HARTU DITUEN EMAKUMEAREN ERABAKIA


Lehen ere adierazi dugun bezala, gizarte-babesak arindu egiten du angustia eta erraztu egiten du beharrezkoa den birdoikuntza eta erabakiak hartzeko prozesua; aitzitik, erreakzio sozial negatibo batek –inhibizioa edo baztertzea- kontrako ondorioak ditu biktimengan. Errua egozteak eta babes sozialak oso erlazio hertsia dute. Tratu txarrak jaso dituen emakumearen ingurune afektiboak eta berarekin harremanetan egotera iritsi daitezkeen pertsonak eragina dute erabakiak hartzeko prozesuan (33): salaketaz lagundutako haustura edo elkarbizitzarekin jarraitzea/berrabiaraztea. Jasotako informazioak, eskuragarri dauden baliabideek eta eskainitako arretak (ukitzen dituen erakunde eta zerbitzu desberdinekiko konfiantza eta/edo asebetetze maila) eragina izango dute emakumeak hartuko duen erabakian. Sistema asistentzialarekiko, legalarekiko eta/edo polizialarekiko babesgabetasun-sentimendua, zati batean gertatzen ari denaren erantzule denaren eta erasotzailearekiko barkabera izatearen sentsazioa, edo bere bizimodua auzitan jartzea, janzkera, kontatzen dituen gertaeren sinesgarritasuna eta abar ere badiara erabakiak hartzean eragina izan dezaketen eta bigarren mailako biktimizazioa bultzatzen alderdiak.

(32) Zentzu horretan, ikus Emakundek sustatutako eta argitaratutako “Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean” agiria, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko hitzarmenaren jarraipen-batzordearen testuinguruan prestatua.

(33) Ikus “Tratu txarrak hartu dituen emakumearen erabakiaren gainean lan egitea” atala.

Choice-k eta Lamke-k (1997) tratu txarrak hartu dituzten emakumeek erabakiak aldagai desberdinen arabera hartzeko prozesua azaltzen duen eredu kontzeptuala asmatu zuten. Aldagaiak ondorengo hauek dira: alternatibak, zailtasun eta baliabide pertsonal eta sozialak, kontzeptualizazioa eta bikote-harremanaren pertzepzioa.

Tratu txarrak hartu dituzten emakumeek erabakiak hartzeko prozesuaren eredu kontzeptuala (CHOICE eta LAMKE, 1997)



SEKRETU PROFESIONALA ETA SALAKETA

Sekretu profesionala Gizarte Laneko Diplomatu lanbidearen Kode Deontologikoan dago jasota (1999), hain zuzen ere 35., 36. eta 40. artikuluetan. Aipatu Kode Deontologikoaren arabera, sekretu profesionala eskubide bat eta betebeharrak jarraitu egiten dute zerbitzu profesionalak eman ondoren ere. Profesionalak sekretuan gorde behar du erabiltzaileek eta bezeroek jakinarazitako eta igorritako guztia, eta baita bere lanbide-jarduna dela-eta ezagutzen duen guztia. Datuen bilketa nahiz komunikazioa esku-hartze profesionalaren beharretara mugatuko dira.

Hala ere, ez da sekretu profesionala urratzen ondorengo kasu hauetan:

a) Jarduera profesionala taldean egin behar denean, betiere esku-hartze profesionalerako ezinbestekoa dena besterik argitzen ez denean.

b) Arlo tekniko desberdinetako edo beste diziplinatako profesionalakiko harremanean eta lankidetzan, betiere lankidetzat hori esku-hartze profesionalaren testuinguruan gauzatzen denean.

c) Sekretu profesionala gordetzearekin erabiltzailearen/bezeroaren beraren kaltea gertatuko balitz, bere ezintasun fisiko edo psikikoa dela-eta, edo hirugarrenen interesak kaltetuko balira, horiek ezgai aitortu ala ez.

Beste alde batetik, Auziperatze Kriminalaren Legearen arabera (262. eta 544. artikulua), laguntzako erakunde edo entitate guztiak, publikoak izan nahiz pribatuak izan, eta baita horietako profesionalak ere, behartuta daude Epaitegiari edo Ministerio Fiskalari ezagutzen dituzten eta etxeko indarkeria izan daitezkeen gertaera guztien berri ematera.

Horri dagokionez adierazi behar da *“salatzeko beharraren eta sekretua gorde beharraren arteko gatazkan, sekretua mantentzeko obligazioa erabiltzailearen intimitatea babesten ari bada, eta salatzeko betebeharra, berriz, biktimaren bizitzarako, osotasun fisikorako, askatasunerako eta askatasun sexuarentzako eskubideak babesten ari bada, azken horiek lehentasuna izan behar dute besteengan”* (Virginia Mayordomo Rodrigo, 2002)

Hala ere, agintariei delitu izan daitezkeen gertaeren berri emateko betebeharrak legala arrazionaltasun-irizpideei jarraiki bete behar da, eta kontuan izanik beti esku-hartzearen xede nagusia biktimaren osotasuna eta segurtasuna babestea eta indarkeriarik gabeko bizitza normalizatura itzultzea lortzea dela. Horregatik, gertaerak eskuduna den agintaritzari jakinarazi aurretik, azpimarratu egin behar da biktima bera izatea salaketa jarriko duena edo Babesteko Agindua eskatuko duena, azalduz salaketa jartzea ez dela eskubide bat bakarrik, jasaten ari den indarkeriazko harremanarekin hausteko eta Justizia Administrazioaren babes-mekanismoetarako aukera izateko modua ere –erasotzailearengandik urruntzea, babes poliziala, aitzak seme-alabekiko dituen eskubideak baliogabetzea, etxebizitzaren erabilera, elikadura-pentsioa, eta abar-. Era berean, profesionalak biktimari azalduko dio, profesional gisa, Legez gertatutakoa Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinaraztera behartuta dagoela, eta agindu horri kasurik egiten ez badio, erantzukizun penalak izan ditzakeela. Hala ere, gertatutakoa agintaritzari jakinaraztea geroratu egin daiteke, biktimaren osotasunean eta segurtasunean eragina duten eta izapide hori geroratzea aholkatzen duten baldintzak ikusten direnean.

Intimitateari, konfidentziasunari eta informazioaren erabilera arduratsuari dagokionez, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera jardun beharko da (34).

6.2.3. BALORAZIOA

Tratu txarrak jaso dituen emakumearen egoera baloratzerakoan ondorengo hauek izango dira kontuan:

— Baliabide pertsonalak: pertsonak berak dituen eta tratu txarren egoera konpontzeko baliagarriak izan daitezkeen bitartekoei egiten die erreferentzia. Baliabide horien artean daude trebakuntza, gizarte-gaitasunak, baliabide ekonomikoak, osasun-egoera, eta abar.

— Baliabide sozialak: emakumearen ingurune komunitarioko babesei egiten die erreferentzia, hala nola familia, lagunak eta bizilagunak. Baliabide horien erabilera inguruko pertsonetikiko konfiantza- edo ahaidetza-harremanean oinarritzen da.

— Erakunde-baliabideak: emakumeak dituen berariazko beharrei (babesa eta laguntza, informazioa, orientazio juridikoa eta psikologikoa, eta abar) erantzuten dieten eremu publiko nahiz pribatuko prestazioak, zerbitzuak eta/edo erreferentziak dira.

(34) Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedetzat du, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatzea eta babestea, eta, bereziki, pertsona fisiko horiek ohorea eta intimitate pertsonal eta familiarra. Legeak honela definitzen ditu izaera pertsonaleko datuak: "identifikatutako edo identifikagarriak diren pertsona fisikoei buruzko informazio oro". "Interesatuaren adostasun" gisa ondorengo hau ulertzen da; "interesatuak berari buruzko datu pertsonalen tratamendu baimentzeko egiten duen borondatezko azalpen libre, ageri, berezi eta informatua".

"Interesatuaren adostasunari" dagokionez, 6. artikulua ondorengo hau dio:

1. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduak interesatuaren adostasun nabaria beharko du, legeak bestelakorik xedatzen duenean izan ezik.

2. Ez da adostasunik beharko izaera pertsonaleko datuak Herri Administrazioek beren eskumenak gauzatzeko funtzioetan jasotzen dituztenean.

Sekretua gorde beharra 10. artikuluan agertzen da: "Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duten pertsonak datu horiei buruzko sekretu profesionala gorde beharko dute; betebeharrak irauan egingo du fitxategiaren titularrarekiko edo, hala balegokio, arduradunarekiko harremanak amaitu ondoren ere".

11. artikulua arabera, datuen komunikazioa honela egingo da:

1. Tratamenduaren xede diren izaera pertsonaleko datuak datu-emailearen eta datu-hartzailearen legeko funtzioekin zerkusi zuzena duten helburuetarako bakarrik utzi ahal izango zaizkie hirugarrenei, interesatuaren aurretiazko adostasunarekin.

2. Aurreko atalean aipatzen den adostasuna ez da beharrezkoa izango:

a. Lagapena lege batean baimenduta dagoenean.

b. Gauzatu beharreko komunikazioak xedetzat [...] Ministerio Fiskala edo Epaileak edo Epaitegiak dituen [...] esleituta dituzten funtzioen burutzapenean.

Tratu txarren kasuetan esku-hartzeko, gizarte zerbitzuetako langileak egoera bakoitzari egokitutako erabakiak arin eta azkar hartzeko gaitasuna izan behar du. Horretarako, prozesu metodologiko honi jarraitzen dio:

azterketa → balorazioa → orientazioa/deribazioa

Ekintza egokiak proposatzea => une egokietan (adib. eraso gertatu eta berehala)=> modu egokienean (arreta eta elkarrizketa, gizarte-langilearen oinarrizko printzipioak errespetatuz) => pertsonaren egoera errealerako egokituta (baliabide pertsonalak eta gizarte-baliabideak).

Gizarte Laneko teknikariaren esku-hartzearen xedea ondorengo hau da:

- Argitzea-babestea: egoeraren alderdi desberdinak aztertzea (argitzea), eta emakumearen autokonfiantza berrezartzen edo berresten laguntzea (babestea).
- Informatzea: helburua da dituen eskubideei, eskura ditzakeen baliabideei eta abarri buruzko informazio-gabeziak osatzea, emakumeak bere erabakia ahalik eta baldintza onenetan har dezan.
- Konbentzitzea: helburua da tratu txarren biktima den emakumearen egoera aldatzea. Emakumeari bere argudioen eta bere egintzen ondorioak alderatzen zaizkio. Komeni da gogoraraztea distortsio kognitiboa aldatzeko modua dela pertzepzio deformatu eta jarrera oker horiek zalantzan eta agerian jartzea, alternatiba egokiak proposatuz. "Berregituratze kognitibo" izenekoa da.
- Harremanetan jartzea –aukera berriak sortzea–, emakumearen harreman-horizontea areagotzeko, bizitza- eta erreferentzia-markoak handitzeko, eta aberastu egingo duten eta atsegina eragingo duten esperientzia berriak ahalbidetzeko helburuarekin.

6.2.4. DERIBAZIOA

Deribazioa gertatzen da tratu txarren biktima izan den emakumearen ezaugarriak eta arazoaren ezagutza ezin dituen erabat edo zati batean Zerbitzuak berak ebatzi. Arreta osatzeko, tratu txarren biktima izan den emakumea arreta horretarako egokiagoa den beste erakunde edo zerbitzu espezializatuago batetara orientatuko edo deribatuko da.

Horrela, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek lehenengo mailako arreta eskainiko dute, zerbitzu horiek kudeatutako programekin, eta deribazio egokiak eginez, egoitza-alternatibak eta/edo tratamendu indibidualizatuak eskaintzeko: Emakumearen Zerbitzuetara, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, Orientazio Juridikorako Zerbitzuak, Arreta Psikologikorako Programak,... Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek beharrezko babesa eskainiko diete Zerbitzu Espezializatuari.

Deribazio-prozesu honetan funtsezkoa da:

1. Sareak dituen baliabide alternatiboen eta/edo espezializatuen sistema ezagutzea.
2. Hautatutako baliabidea ezagutzea: kokapena, sartzeko eskakizunak, funtzionamendua, ordutegiak, eta abar.
3. Emakumeari deribazio-prozesuari buruzko informazioa ematea.
4. Emakumearekiko esku-hartze planifikatua eta adostua egitea, prozesu osoan zehar.
5. Dagokienean, baliabide alternatiboekiko eta/edo espezializatuekiko koordinatzea.
6. Kontuan izatea deribazioak prozesu osoan laguntzea inplikatzeko duela baita ere.

Aurretiazko eskakizuna da:

- Zein zerbitzutara deribatzen den ezagutzea: kokapen fisikoa, garraiobideak, ordutegia, sartzeko eskakizunak, eta abar.
- Deribazioaren xede den zerbitzuko erreferentziazko profesionalarekin edo pertsonarekin harremanetan jartzea: iragarkia, deribazioa, gizarte-txostena edo bidaltze-txostena aurkeztea.
- Esku-hartze profesionalaren mugak.
- Emakumea deribazio-prozesuan inplikatzeko (erabakiak hartzea, hautapenak, alternatibak, eta abar).
- Ondorengo emaitzak ezagutzea: erabiltzailearen adostasuna, erakundearen harrera, laguntza/egonaldia, emakumearen pertzepzioa, eta abar.

6.2.5. JARRAIPENA

Jarraipena honelakoa izan daiteke:

a) Intentsiboa: gutxienez lau elkarrizketa/harreman hilabetean (elkarrizketa bat astean). Ondorengo hauentzat:

- Berehalako esku-hartzea behar duten krisi-egoerak.
- Premiazko tratamendu bat behar denean, muga-egun jakin bat dagoenean (haurdunaldia, epaiketa, eta abar).
- Berehala jarduteak aldaketa garrantzitsuak ekarri ditzakeela aurreikustea.

b) Erdi-intentsiboa: elkarrizketak izaten dira eta babeseko eta jarraipeneko kudeaketak egiten dira hilabetean behin gehienez ere. Ondorengo kasu hauetan:

- Arreta intentsibo batetik pasa ondoren, atzera egitea saihesteko eta helburuetara iristeko oraindik ere gizarte zerbitzuetako profesionalarekin harremanetan jarraitu behar duten emakumeak.
- Prebentziorako jarraipena behar denean.

c) Mantentze-jarraipena: elkarrizketa edo kudeaketa bat bi hilabetean behin. Talde honetan sartuko dira aurreko jarraipenetatik pasa diren emakumeak.

6.2.6. GIZARTE- ETA ERAKUNDE-BALIABIDEAK

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik, eskubideei eta baliabideei dagokienez informaziorako, baloraziorako eta orientaziorako diren zentroetatik, biktimari babes sozialeko sareko zerbitzuetara eta prestazioetara iristeko beharrezkoak diren eskakizunei buruz informatuko zaio; biktimaren beharrak ebaluatuko dira, eta zerbitzu edo prestazio egokienetarantz orientatuko da. Horretarako, plan indibidualizatu bat egingo da, erabiltzailearekin adostuta, betiere jarraipena behar duen esku-hartze motaren bat beharrezkotzat jotzen denean. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik izapidetzen diren programak eta zerbitzuak, biktimari bere ezaugarri indibidualen arabera azalduko zaizkionak, ondorengo hauek dira:

PRESTAZIO EKONOMIKOAK

- GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE ONDORENGO HAUEK KUDEATZEA ETA/EDO IZAPIDETZEA:

— **Oinarrizko Errenta (OE).** Oinarrizko Errenta aldizkako prestazio ekonomikoa da, oinarrizko beharrianak asetzeko behar hainbat diru ez duten pertsonen ematen zaiena. Oinarrizko Errenta indarreko legerian aurreko xederako ezarritako bitarteko edota prestazioen osagarria da; errentari heldu aurretik haiek guztiak baliatu behar dira. Jangaiak erosteko ematen da eta ezin zaio inori transferitu; halaber, ezin da bahitu ez atxiki, ez eta betebeharren berme gisa eskaini ez osorik zein partzialki lagatu ere.

Oinarrizko Errentaren (OE) onuradun izateko betekizun hauek bete behar dira:

- Gutxienez eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako elkarbitzita unitatea izatea. Aurreko betekizunetik aske daude adingabe edo minusbaliadunen bat kargupean dutenak eta ezkontzaren banantzearen, dibortzioaren edo deuseztapenaren zioz edo gura-soak edo legezko tutoreak hiltzearen ondorioz sortutako elkarbitzita unitateak.
- Jarraiko pertsonak edo pertsona taldeak etxebizitza edo bizitoki berean bizi direnean elkarbitzita unitate ekonomiko independente batean daudela ulertuko da:
 - a) Pertsona bakarra etxebizitza edo bizitoki batean.
 - b) Bi pertsona edo gehiago etxebizitza edo bizitoki berean, ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko erlazio iraunkor bat dela eta elkarri lotuta badaude, edo umeordetzaz, 4. gradura arteko odol-ahaidetasunaz edo 2. gradura arteko kideetasunaz.
 - c) Bi pertsona edo gehiago, euren artean aurreko idatz-zatian azaldutako loturetatik batera ez egon arren behar gorria dela eta etxebizitza edo bizitoki berean bizi direnak.

Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuak aipatzen du salbuespen bezala pertsona bat bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat hartuko direla tratu txarren biktimak izan eta 4. gradura arteko odol-ahaidetasuna edo 2. gradura arteko kidesasuna duen senide baten etxean bizi diren pertsonak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ahaidetasun eta kidesasun maila horiek ez dituzten pertsonen etxeetan integratzen diren kasuetara (35) hedatzen du salbuespena. Era berean, aipatu Legeak dio etxeko tratu txarren biktima izan eta aldi baterako harrera-pisu edo zentroetan dauden biktimek ere badutela oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea, nahiz eta oinarritzko mantenua pisu edo zentro horiek ordaintzen duten (36).

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldaturik egotea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez.
- Hileko bitartekoen zenbatekoa Oinarritzko Errenta baino gutxiago izatea. Bitartekoen zenbatekoa kalkulatzeko, unitateko pertsona guztiek eskabidea aurkeztean lortzen dituzten sarrera guztiak batzen dira, hau da, eskuratzen dituzten errenta, ordainsari, pentsio edo dena delako sarrera guztiak.
- 23 urte baino gehiago izatea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2004 Legeak salbuetsi egiten ditu eskakizun honetatik etxeko tratu txarren biktima izan diren pertsonak.

— **Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL).** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ez dira aldizkakoak, dirutan ematen dira, subentzio moduan eman ere. Gizarte-bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko behar-beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenentzako dira, eta berdín dio dena delako gastua arrunta edo ohiz kanpoko dena.

Gizarte Larrialdiko Laguntzen onuradun izango dira:

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldaturik egotea eskabidea aurkeztu baino 6 hilabete lehenagotik gutxienez.
2. 18 urteak beteta izatea.
3. "GLL kontzeptuak" atalean jasotako berariazko gastuei aurre egiteko nahikoa sarrera ez izatea.

Hornidura ekonomikoa:

Laguntzaren xede diren berariazko gastuen benetako zenbatekoaren gainean portzentaje jakin bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.

(35) 58.1 artikulua eta Zazpigarren Azken Xedapena.

(36) 58.2 artikulua.

GLL kontzeptuak:

1. Ohiko etxebizitza gozatzea eta mantentzea, ondorengo hauek barne:

- Alokairu gastuak edo etxebizitza nahiz bizitoki bat eskuratzeko maileguen interesak eta amortizazio-kuotak direla-eta.
- Ohiko etxebizitza edo bizitokia gozatzeko edo mantentzeko beharrezkoak diren bestelako gastuak: argindarra, ura, estolderia, zaborrak, eta baita hirilur eta landalurreko ondasun higiezinaren gaineko zerga ere.

2. Ohiko etxebizitzaren edo egoitzaren bizigarritasuna eta oinarrizko ekipamendua:

- Altzari edo gama zuria deituriko etxe-tresna elektronikoen gastuak.
- Etxebizitza egokitzeko, konpontzeko edo bertako oinarrizko instalazioak egiteko gastuak.
- Aurretik sortutako zorrak.

3. Elkarbizitzako Unitate Ekonomiko Independenteko pertsona baten edo pertsona gehiagoren oinarrizko beharrezkoak diren dagozkien gastuak, hala nola jantziak, hezkuntza, trebakuntza eta sistema publiko desberdinek estaltzen ez duten osasun-arreta.

4. Lehen adierazitako gastu-kontzeptuengatik aurretik sortutako zorrak edo bizitzako oinarrizko beharrei erantzuteko beharrezkoak diren gastuen ondoriozkoak.

— **Ordainketa bakarreko gizarte-laguntza.** 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan lanbide arteko gutxieneko soldataren %75 baino gehiagoko errentak ez dituzten biktimentzat aurreikusitako laguntza bat da, biktima horiek, duten adinagatik, prestakuntza orokor edo espezializaturik ez dutelako, edo baldintza sozialak direla-eta lana aurkitzeko zailtasun bereziak izan ditzaketela eta, horregatik, lanbideratzerako ezarritako enplegu-programatan parte hartuko ez dutela uste den kasuetarako. Laguntza hau bateragarria da Indarkeriako eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimentzako Laguntzei eta Asistentziari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako edozein laguntzarekin.

— **Oinarrizko Errenta jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten emakume horientzako laguntza bereziak.** Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte-arriskuan egon daitezkeen pertsonentzako edo familientzako laguntzak (37), Arabako Lurralde Historikoan behar-egoerei zuzendutako laguntza bereziak (38) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarteratzerako laguntza bereziak (39).

(37) Apirilaren 23ko 35/1999 Foru Dekretua, 1999ko apirilaren 29an argitaratua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 78. zenbakian.

(38) Kontseiluak 1999ko uztailaren 29an onetsitako araudia.

(39) Maiatzaren 23ko 64/2000 Foru Dekretua, 2000ko ekainaren 23an argitaratua, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 121. zenbakian, eta zati batean Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 82. zenbakian argitaratutako apirilaren 20ko 76/2004 Foru Dekretuak aldatua.

— **Larrialdietako Prestazio Ekonomikoak** (40), etxeko tratu txarren biktimek bizirauteko oinarrizko beharrei berehala erantzun ahal izateko, eskubidez eskura ditzaketen gainerako prestazio ekonomikoen emakida izapidetzen den bitartean.

• OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE ONDORENGO HAUEN BERRI EMATEA:

— **Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren Programa** (41). Programa honetan sartzeko baldintza da eskuduna den administrazioak egiaztatuta izatea eskatzailea etxeko indarkeriaren biktime dela, eta dagokion EINen Bulegoen enplegu-eskatzaile gisa izena emanda izatea. Izapidetzeari dagokionez, programa honetan onartua izateko eskabidea dagokion enplegu-bulegoan aurkeztu beharko dela jakinaraziko da.

— **Indarkeriazko delituen eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimei laguntza eta asistentzia emateko abenduaren 11ko 35/1995 Legea** (42). Laguntza horiek barruan hartzen dituzte, batetik, askatasun sexualaren kontrako delituaren ondorioz biktimak bere osasun mentalean izandako kalteak direla-eta jaso beharreko eta biktimak libreki hautatutako tratamendu terapeutikoaren gastuak. Laguntza horren gehieneko zenbatekoa lanbide arteko gutxienez 5 hilerokoren baliokidea izango da. Bestalde, heriotza kasuetarako edo gutxienez 6 hilabeteko lan-ezintasuna suposatuko duten lesio edo osasun-kalte larrietarako laguntza ekonomikoak ematea ere aurreikusten da. Laguntza horiek eskatzeko epea delituzko egintza gertatu eta urtebetekoa da. Kasu honetan, laguntza-eskaerak Ogasun Ministerioko Langileria Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiak izapidetuko eta ebatziko ditu. Informazio gehiagorako, Biktimari Laguntzeko Zerbitzura deribatuko da.

— **Eusko Jaurlaritzaren aparteko laguntzak** (43), ebaluagarriak eta egiaztagarriak diren behar pertsonaleko egoerak arintzeko, balizko horiek ohiko laguntzen zenbatekoekin estaltzen ez direnean.

(40) 4/2005 Legearen 58.3 artikulua.

(41) Uztailaren 18ko 945/2003 Errege Dekretua.

(42) 1995eko abenduaren 12ko BOE, 296. zk. Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei zuzendutako laguntzen araudia onesten duen maiatzaren 23ko 738/1997 Errege Dekretuak (1997ko maiatzaren 27ko BOE) eta 738/1997 Errege Dekretua aldatzen duen apirilaren 11ko 429/2003 Errege Dekretuak (2003ko apirilaren 26ko BOE, 100 zk.) garatua.

(43) 4/2005 Legearen 58.4 artikulua.

EGOITZAZKO BALIABIDEAK

- OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE ONDORENGO HAUEN KUDEAKETA ETA/EDO IZAPIDETZEA:

— **Larrialdietarako Harrera Zerbitzua.** Larrialdietarako harrera zerbitzuaren xedea izango da aldi baterako egoitzazko irtenbide bat ematea, ondorengo kasu hauetan: “*etxebizitarik ez izateak pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duen gatazka familiar larri bat ekarriko duenean, eta etxebizitza horiek kokapena isilpean mantentzen dela bermatu beharko da*” (44).

Egoitzazko alternatiben izaera ordezkatzaileria izango da, helburua delako emakumeak beren etxebizitzan bertan seguru egotea eta erasotzailea izatea etxebizitza utziko duena (45). Gure Erkidegoan, funtsean, harrerarako bi baliabide-mota daude: egonaldi motzekoak (berehalako harrerarako larrialdi-zerbitzuak) eta egonaldi ertainekoak (harrera-pisuak eta –etxebizitzak). Normalean, harrera-pisu edo –zentro bat bezalako egonaldi ertaineko baliabideren bategarira jotzen duten emakumeak Larrialdietarako Harrera Zerbitzu batetik etorri ohi dira, nahiz eta zenbaitetan pisu edo etxebizitzatan sartzea zuzenean kudeatu daitekeen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik.

EAEn, gainera, erakunde pribatuen mende dauden 56 harrera-pisu eta zentro daude etxeko tratu txarrak jaso dituzten emakumeak hartzeko. Etxebizitza eta zentro horiek berariazkoak edo balioanitzak izan daitezke, eta Foru Aldundien eta dagozkien Udalen bidez daude kudeatuak. Baliabide horiek honela daude banatuta lurraldean: 19 Araban, 16 Bizkaian eta 21 Gipuzkoan.

(44) Derrigorrezkoa 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeko 12.2. artikuluan eta Gizarte Zerbitzuen inguruko funtzioak xedatzen dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuko 2.1.1. artikuluan jasota dagoen bezala.

(45) Europako Kontseiluak gomendatzen du gutxienez harrera-plaza bat bermatzea 7.500 biztanleko. Europar Batasuneko kide diren estatuek emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borroka egiteko hartutako neurri buruzko azterlanak, Emakumearen Institutuak Europar Batasunaren lehendakaritza Espainiaren eskuetan egon den bitartean egindakoak, arreta- eta harrera-zentroetako plaza bat aholkatzen du 10.000 emakumeko. Plaza horretan “bai emakumeak eta baita seme-alabak ere behar den denbora egon ahal izango dira”.

1986ko ekainaren 11ko ebazpena, Europako Legebiltzarrarena, Europar Batasunak antolatutako Vienako Adituen Konferentzian berretsia, zeinaren bidez estandar berezi bat ezartzen den: plaza bat seme-alabak dituzten emakumeentzat 10.000 emakumeko.

Egoitzazko baliabideak

LURRALDE HISTORIKOAK	ERAKUNDEA	KOPURUA	
ARABA	Arabako Foru Aldundia	2	
	Vitoria-Gasteizko Udala	16 (46)	
	Laudioko Udala	1	
BIZKAIA	Bizkaiko Foru Aldundia	2	
	Bilboko Udala	7	
	Basauriko Udala	2	
	Ermuko Udala	1	
	Galdakaoko Udala	1	
	Santurtziko Udala	1	
	Sestaoko Udala	1	
	Busturialdeko Mankomunitatea	1	
	GIPUZKOA	Andoaingo Udala	1
		Arrasateko Udala	1
Beasaingo Udala		1	
Eibarko Udala		1	
Hernaniko Udala		1	
Lasarte-Oriako Udala		1	
Errenteriako Udala		1	
Usurbilgo Udala		1	
Asteasuko Udala		1	
Azpeitiko Udala		1	
Donostiako Udala		5	
Irungo Udala		2	
Pasaiaiko Udala		1	
Tolosako Udala		2	
Zarauzko Udala		1	

Harrera-pisuen eta -zentroen eskaintza, gainera, larrialdietarako eta berehalako harrerarako beste zerbitzuekin osatzen da. Zerbitzu horien xedea da gizarte zerbitzuen ohiko ordutegietatik kanpo gertatzen diren segurtasun- eta egoitza-behar larriei erantzutea.

(46) 8 berariazkoak dira, eta 8 balioanitzak.

Gasteizen Gizarte Larrialdietarako Zerbitzu bat dago. Bertan lehenengo arreta eskaintzen da, eta ondoren biktimak harrera-establezimenduetara deribatzen dira. Zerbitzua Arabako Lurralde Historiko osorako eskaintzen da, eta 8.00etatik 22.00etara dago irekita langileen presentzia fisikoarekin; ordutegi horretatik kanpo "bilatzaile" baten bidez lokalizatu daitezke (tel.: 945-13.44.44). Zerbitzu horrekin telefonoz ere jarri gaitzke harremanetan, Udala 24 orduz duen informazio- eta deribazio-telefonoaren bidez: 900 70 17 00.

Bizkaiari dagokionez, batetik Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzu bat dago. Bertan biktimei lagundu egiten zaie, baina oso noizean behin hartzen ditu hauek Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak berak, larrialdietarako harrera baliabidea behar dutenean Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Larrialdietarako Harrera Zerbitzura deribatzen baitira. Zerbitzu honen funtzionamendua Gasteizkoak duenaren antzekoa da, hots 8.00etatik 22.00etara langileen presentzia fisikoarekin, eta gauez, berriz, telefono bidez lokalizatu daitezke (94-470.14.60). Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren mendeko Larrialdietarako Harrera Zerbitzu bat dago; honen bidez harrera-zentro batean hartzen dira gizarte zerbitzuen lan-ordutegitik kanpo egoitza behar duten emakumeak. Baliabide honetara iristeko bidea 112 (SOS DEIAK) da.

Gipuzkoan, Donostiako Udalak Berehalako Arretarako Zentro bat du "Genero indarkeriaren biktimen arretarako programa" izenekoaren barruan (943-48 14 00 telefonoa). Lurralde osorako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzu bat sortu du; zerbitzu horren ordutegia 15.00etatik 08.00etara bitartekoa da lanegunetan eta egun osokoa larunbat eta igandeetan. Zerbitzu honek lehenengo gizarte-laguntza presentziala eskaintzen die tratatu txarren biktimei, eta dagozkien harrera-baliabideetara laguntzen ditu biktimak. Zerbitzu honetara iristeko: 943-22 44 11 eta 112 telefonoak.

— **Adinekoentzako egoitza publikoetarako sarbidea.** 1/2004 Lege Organikoarentzat (47) adinekoentzako egoitza publikoetara sartzeko lehentasuna dute aplikagarri den legediak zehazten dituen terminoetan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek.

BERARIAZKO PROGRAMAK

• GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE ONDORENGO HAUEN KUDEAKETA ETA/EDO IZAPIDETZEA:

— **Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko programak.** *"Xedetzat dute biktimei egintza horien ondoriozko asaldura psikologikoak gainditzen laguntzea, egokien iritzitako tratamendu psikologikoa aplikatuz."* (48)

(47) 1/2004 Lege Organikoko 28. artikulua.

(48) Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen inguruko funtzioak xedatzen dituen.

Araban, zerbitzu hori Gasteizen eta Laudion eskaintzen da, eta kanpoko esleipen bidez kudeatzen da, Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailaren eta Gasteizko Udalaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmen bati jarraiki; Bizkaian, zerbitzu hau, antzeko ezaugarriak dituena, Bilbon eskaintzen da, eta Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren mende dago; azkenik, Gipuzkoan, Foru Aldundiko Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzerako Departamentuaren eta Psikologoaren Elkargorekin artean sinatutako hitzarmen bidez eskaintzen da (49).

— **Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei aholkularitza juridikoa eskaintzeko programak.** *“Aholkularitza juridikoko zerbitzuaren xedea da tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeek egiten dituzten kontsulta juridikoei irtenbidea ematea eta, hala balegokie, prozesu judizialean esku hartzea”*(50).

Araban, zerbitzu hori Gasteizen, Laudion eta Amurrioren eskaintzen da, eta kabinete pribatu batek kudeatzen du, Foru Aldundiaren Gizarte Gaietarako Sailaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen baten bidez. Kabinete esleipendunak, gainera, orientabidea eskaintzen du eta prozesu judizialen jarraipena egiten du. Bizkaian, Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskaintzen duen arreta juridikoko zerbitzuarekin batera, hainbat aholkularitza juridikoko zerbitzu eskaintzen dira Lurralde Historikoko udalerririk desberdinetan; horien artean Bilboko Udalak eskaintzen duen Emakumearen Zerbitzua. Gipuzkoan, zenbait Udalek ere badute prozesu aurreko aholkularitza juridikoko zerbitzua.

BABESEKO ETA SEGURTASUNEKO NEURRIAK

— OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE **Babesteko Agindua** arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legean jasotako babes- eta segurtasun-neurriak eskatzeari buruz INFORMATZEA. Horri dagokionez, gizarte zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimei babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloaren III. eranskinean adierazitakoa hartu behar da kontuan.

Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004) burutzeko, Ertzaintzan biktima horien jarraipenerako eta babeserako sistema bereziak ezarri dira. Sistema berezi horiek, beste neurri askoren artean, ondorengo hauek hartzen dituzte: koordinaziorako eta jarraipenerako bilerak egiten dira aldizka Fiskaltzarekin, jarraipenerako prozedura informatiko bat sortu da, eskolta-lanak egin dira, biktimei telefono mugikorrek eman zaizkie, eta bestelako babes-neurriak ere hartu dira (51).

(49) Programa maiatzaren 18ko 45/2004 Foru Dekretuak arautzen du.

(50) Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen inguruko funtzioak xedatzen dituena.

(51) Era berean, Erkidegoko zenbait udalerritan GPS bidezko telelaguntza-sistemak ezarri dira tratu txarren biktimeentzat.

BABES BALIABIDEAK ETA PROGRAMAK

- OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI DAGOKIE ONDORENGO HAUEN BERRI EMATEA:

- Inguruan indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten **emakumeen elkartek eta autolaguntza-taldeak**.

- **Abokatu-laguntza espezializatuaren ofiziozko txanda**

Lehendik dauden orientazio juridikorako zerbitzuen osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Legekariaren Euskal Kontseiluarekin lankidetzan, Erkidegoko Abokatu Elkargo guztietan berariazko ofiziozko txandak sortzea sustatu du, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei berehalako abokatu-laguntza integral eta espezializatu emateko xedez: berehalakoa, abokatuak lan egiteko moduan daudelako premiazko kasuetarako eguneko 24 orduetan; integrala, asistentziaren fase osorako eta prozesu zibiletan nahiz penaletan abokatu bakarrak esku hartzea aurreikusten delako; eta espezializatu, ofiziozko txandan parte hartzeko eta mantentzeko ezinbestekoa delako abokatuek gaiaren inguruan gutxienezko trebakuntza izatea (52).

- **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ)**

Zerbitzu horiek Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailaren mende daude eta xedeztat dute delituen biktima direnei babes juridikoa, psikologikoa eta soziala eskaintzea, gerta daitezkeen prozedura polizialen eta judizialen markoan. Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza eta asistentzia emateko abenduaren 11ko 35/1995 Legean araututako laguntzak izapidetzeaz ere arduratzen dira, eta etxeko indarkeriaren biktimak Babesteko Aginduei dagokienez, zerbitzu horiek Lurraldeko Koordinazio Zentro bilakatzen dira (53).

- **Etxebizitza arloko laguntzak**

Bai genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan (54), eta baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ere, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak lehentasunezko kolektibo bat dira etxebizitza bat eskuratu ahal izateko laguntzak ematerakoan.

(52) Informazio gehiagorako, ikus Gidako 7.3 atala.

(53) Ikus *Gizarte zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloari* buruzko 7.3 atala.

(54) 1/2004 Lege Organikoko 28. artikulua.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, 2004. urtean, plan bat onartu zuen, **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza babestua eskaintzeko Jarduketa Plana** (55) deiturikoa. Plan hori, funtsean, hiru neurritz dago osatua:

- Etxebizitza sozialen edo babes ofizialekoen zozketetan kopuru bat etxeko tratu txarren biktimen zatitza gortetzea, errentan emateko. Salbuespen gisa, eskakizunak betetzetik salbuetsi ahal izango da tratu txarren biktima gori Etxebizitza sailburuaren Agindu baten bidez, betiere etxebizitza baten beharra duela egiaztatzen baldin bada.
- Tratu txarren biktima diren emakumeei aukera ematea, etxebizitza baten jabe badira edo etxebizitza bat erabiltzeko ahalak badute, hura laga eta trukean babes ofizialeko bat hartzeko, baldin eta segurtasun-arrazoiengatik beste leku batera aldatu beharra baldin badute. Errentan baino ezingo zaie eman babes ofizialeko etxebizitza hori.
- Kasu larrietan eta salbuespenekoetan, zuzen-zuzenean etxebizitza bat errentan ematea. Kasu larria eta salbuespenekoak izango bada, honako ezaugarri hauek izan behar ditu:
 - Eskatzaileak lehenago udalen edo foru aldundien harrera-etxeak erabili izana, eta haietan gehienez egin ahal den egonaldia bete izana eta ezin haietan jarraitzea.
 - Etxebizitza bilatu izana behar besteko aldi batez eta ez aurkitu izana.
 - Non bizi ez edukitzea ez familia-sarean ez eta gizarte-sarean.

— Lan arloko eskubideak eta laguntzak

Indarkeriaren biktima den langileak bere lanaldia murrizteko edo berrantolatzeko eskubidea du, mugikortasun geografikorako eskubidea, lantokiz aldatzeko eskubidea, lan-harremana eteteko eskubidea lanpostua gordez, eta lan-kontratua amaiarazteko eskubidea. Lan-kontratua etetearen edo amaiaraztearen langabeziako legezko egoeran aurkituko da biktima, eta etenduraren epea benetako kotizazio-alditzat hartuko da, Gizarte Segurantzaren eta langabeziaren presztazioen ondorioetarako (56).

Tratu txarrek eragindako egoera fisikoaren edo psikologikoaren ondorioz biktima lanera jotzen ez bada edo berandu iristen bada, horiek justifikatuta egongo dira, gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek hala xedatzen dutenean, huts egite horiek enpresari ahalik eta epe laburrenean jakinarazi behar izatearen kaltetan izan gabe (57).

Aurreko bi paragrafoetan aipatu eskubideak gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da indarkeria-egoera egiaztatzea, babesteko aginduaren kopia aurkeztuz eta, salbuespenez, indarkeria-indizioak daudela adierazten duen Ministerio Fiskalaren txostenaren bidez (58).

(55) Ikus Etxebizitza Sailburuordetzaren Komunikazioa, 2005eko otsailaren 3ko *genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza babestua eskaintzeko jarduketa-planari* dagokion jarduketa-prozedurari buruzkoa.

(56) 1/2004 Lege Organikoko 21., 23., 24. eta 25. artikulak.

(57) 1/2004 Lege Organikoko 21.4 eta 25 artikulak.

(58) 1/2004 Lege Organikoko 23. eta 26. artikulak.

Bestalde, etxeko tratu txarren biktimek lehentasunezko tratua izango dute beren profilari egokitutako enplegurako trebakuntza-ikastaroetan parte hartzeko (59). Gainera, Euskal Administrazio Publiko desberdinetan izaera orokorrez eta langabetuak lan-munduan txertatzea eta gizarteratzea sustatzeko aurreikusitako laguntzak eskuratu ditzakete. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailak, diru-laguntzei buruzko bi dekretutan (60), etxeko tratu txarren biktimak aipatzen ditu berariaz kolektibo hartzaile gisa.

— **Etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak sufritzen dituzten emakumeak laguntzeko telefono zerbitzua**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak doan eta Autonomia Erkidegoko lurralde osorako ematen duen zerbitzu bat da, eta etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak sufritu izan dituzten emakumeei telefono bidez laguntza ematen die (900 840 111).

Zerbitzuaren helburuen artean honako hauek daude:

- a) Biktimak modu aktiboan entzutea emozioei eusten laguntzeko
- b) Halako kasuetan zer egin daitekeen eta dauden baliabideen gainean informazio eta aholku ematea
- c) Biktimak harremanetan jartzea dituzten beharrezanean ondoen egokitzen diren laguntza zerbitzuekin

6.2.7. EMAKUME ETORKINEKIN ETA EZINDUEKIN ESKU HARTZERA KOAN KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDERDIAK

Zenbait emakume, beren baldintza pertsonalak edo sozialak direla-eta, zaugarriagoak dira tratu txarren aurrean. Horien artean, emakume etorkinak eta ezintasunen bat dutenak daude. Ararteko Erakundeak adierazten duen bezala, "dauden baliabideak eskuratzeko irizpideak berriaz aztertu behar dira, baldintzak aldatu, eta behar izanez gero (adibidez, hesiak hautsiz), pertsona horien beharretara egokitu. Baliabide berriak planifikatu edo abian jartzeko orduan, behar horiek kontuan hartu beharko dira." (61).

(59) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeko 60. artikulua.

(60) Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua, lanerako laguntzak arautzen dituena, eta abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena (EHAA, 03-12-31).

(61) Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. Arartekoa. 2003.

EMAKUME ETORKINEN ARRETA

Urriaren 18ko 5/1996 Legeak, Gizarte Zerbitzuetakoak, bere 4. artikuluan ezartzen du gizarte zerbitzuetarako eskubidearen titularrak direla Europar Batasuneko herritarrak direnak, Euskal Herrian bizi edo aldi baterako egon, arauz ezarriko diren baldintzatan; gainera, eskubide horiez gozatu ahal izango dute Europar Batasuneko hiritar ez badira ere Euskal Herrian daudenak, nazioarteko hitzarmenetan horri buruz ezarritako dagoenaren arabera, eta kontuan izanik, bestela, elkarrekikotasun-printzipioa. Azkenik adierazten du, nolana ere, gizarte zerbitzu horiez baliatu ahal izango direla Euskal Herrian dauden errefuxiatu eta aberrigabeak.

Beste alde batetik, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruz eta horien gizarteratzeari buruz urtarrilaren 11n emandako 4/2000 Lege Organikoko 14. artikulua arabera, atzerritarrek, horien administrazio-egoera edozein delarik ere, oinarrizko zerbitzuetarako eta gizarte-prestazioetarako eskubidea dute (62) eta, egoiliarak badira, Gizarte Segurantzako prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea izango dute, eta baita ere zerbitzu eta prestazio sozialetara, espainiarren baldintza berdinetan.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legeko 17. artikulua adierazten du "genero-indarkeriaren biktima diren emakume guztiak, beren jatorria, erlijioa edo bestelako baldintza pertsonal edo sozial kontuan hartu gabe, bermatuta dituzte Lege honetan aitortutako eskubide guztiak". Horrek suposatzen du tratatu txarren biktima diren emakume etorkinak, beren egoera dokumentala zein den kontuan izan gabe, aitortuta dutela "arretako, larrialdietako, babeseko eta harrerako nahiz berreskurapen integralerako" (63) eskubidea.

Beraz, emakume etorkinak hemen erroldatzea sustatuko eta bultzatuko da, hori baita babes sozialeko sarearen oinarrizko prestazioetarako aukera izatea ahalbidetzen duen modua.

Era berean, 1/2004 Legean Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeari dagokionez xedatutakoaren arabera, etxeko tratatu txarren biktima diren eta auzitara

(62) Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeko 5. artikulua arabera, gizarte-zerbitzuen sistemak ondorengo hauek hartuko ditu gutxienez:

- a. Herritarren informazioa, balorazioa eta orientazioa, dauden eskubide eta baliabide sozialei dagokienez.
- b. Elkarbizitza-zerbitzuak edo -programak eskaintzea, interesatuaren etxean bertan laguntza-jarduketak gauzatzuz, edo egoitza alternatiboak eskainiz.
- c. Gizarteratzerako neurriak, lehentasunez erantzunez bazterkeria-arrazoien prebentzioari edo desagertuenera, arrisku-egoeran dauden pertsonentzako eta gizarte-taldeentzako programa egokien bidez.
- d. Elkartasuna eta parte-hartzea sustatzeko neurriak.

(63) 1/2004 Legeko 19. artikulua.

jotzeko (64) nahikoa baliabide ez dituztela egiaztatzen duten emakumeek, legez Espainiako lurraldean bizi ez badira ere, doako babeserako eta ordezkapenerako eskubidea izango dute kausa zuzena edo zeharkakoa jasandako indarkerian duten prozesu judizial eta administrazio-prozedura guztietan. Hala ere, bere jatorrizko herrialdeko arauen arabera ezkondata dagoen emakume atzerritar batek jasandako tratu txarren ondorioz banandu edo dibortziatu nahi badu, dagokion orientazio juridikoko zerbitzura deribatu beharko da; bertan informazioa eta aholkularitza emango zaio, prozesu osoa nola artikulatzen den azalduz: abokatu-laguntza eskuratzeko aukera, bere seme-alabekiko harremanen inguruko neurriak, tratu txarrak ematen dituen aitak semea edo alaba bahitzea saihesteko hartu beharreko neurriak, eta abar.

Emakume etorkinak zaurgarritasun bereziko egoeran aurki daitezke tratu txarren aurrean (65). Eskura dauden azterlanek erakusten dute emakume horiei arreta berezia eskaini behar zaiela (66). Emakume etorkinen zaurgarritasuna, funtsean, oinarri gisa balio duten sare sozial naturalik ez izatearen ondoriozkoa da. Gure herrialdera etortzearekin, familia- eta lagun-harremanak hautsi behar izan dituzte, eta horrek zaildu egiten ditu balizko babes informalak. Kasu askotan, zailtasun horiei, gainera, arlo ekonomikoko, hizkuntzaren alderdiko eta arlo administratiboko oztopoak gehitu behar dizkiegu. Faktore horiek guztiek zaildu egiten dute beren bizitzak berrosatzera eta berregitera zuzendutako emantzipazio-prozesua.

(64) 1/1996 Legeko 3. artikulua arabera, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen zaie dituzten baliabide eta sarrera ekonomikoak, urteka konputatuak kontzeptu guztiengatik eta familia-unitateko, eskubidea egiterakoan indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza gainditzen ez duten pertsona fisikoei. Bitarteko ekonomikoak, hala ere, banaka baloratu ahal izango dira, eskatzaileak laguntza-eskaeraren xede den auzian interes familiar kontrajarririk daudela egiaztatzen duenean.

(65) "Mujeres invisibles, abusos impunes", Nazioarteko Amnistiaren Espainiako Atala, 203ko uztaila, dokumentuan jasotako txostenean esaten da kontuan izan behar direla Emakumearenganako Diskriminazio Modu Guztiei buruzko Hitzarmena betetzea zaintzen duen batzordeak 1999. urtean egindako oharra. Horietan berariaz aipatzen da agiririk gabeko emakumeek genero-indarkeriaren aurrean duten zaurgarritasuna.

(66) NBEk 1997. urtean egindako eta aurkeztutako Migratzaileen Giza Eskubideen inguruan lan egiteko Adituen Gobernu arteko Lan Taldearen Txostenaren arabera, "zaurgarritasun-kontzeptuaren funtsezko elementu bat da migratzaileak askotan duen ezintasuna edo babesgabetasuna. Ezintasuna eta babesgabetasuna da migratzailearen eta Estatuaren arteko harremanaren ezaugarrietako bat (...), baina baldintza hori ez da pertsonaren berezko ezaugarri bat, pertsona hori migratzailea izan ala ez; baldintza hori herrialde jakin bateko mugatan sortu da eta ezarri zaie migratzaileei. Estatu hartzaileak bere arauekin eta bere praktika sistematikoekin migratzaileen zaurgarritasun handiagoan ala txikiagoan eragiteko duen gaitasun handia funtsezko ondorio bat da".

Eremu horretan zaurgarritasun-kontzeptu bat eraikitzeko, migratzaileen giza eskubideetarako NBEko Kontalari Berezia 1997. urtean Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Goi-Mandatariak Oxfordeko Unibertsitatean eman zuen hitzaldian oinarritzen da. Hitzaldi horretan aipatu zen "gure ikuspegian ikasi eta islatu behar dugun irakaskuntza bat dela eskubideek berez dutela gaitasun gaitzailea". Kontalari Berezia azpimarratzen du zaurgarritasuna aitortzeak "babestea ahalbidetzen duela, migratzaileak gaituz eta boterez hornituz". Migratzaile-talde desberdinen artean, irregularitasun administratiboko egoeran aurkitzen diren pertsonak bereziki zaurgarriak dira abusu horien aurrean eta giza eskubideen urraketen aurrean. Kontalari Berezia gogorarazi egiten die estatuei beren betebeharra dela giza eskubideen inguruan hartutako nazioarteko konpromisoak eta, bereziki, gizaki ororen eskubide ezin-indargabetuzkoei buruzko xedapenak kontuan hartzea ("Mujeres invisibles, abusos impunes". Nazioarteko Amnistiaren Espainiako Atala. 2003ko uztaila).

Europako Legebiltzarraren 1986. urteko ekainaren 11ko ebazpenak, emakumeen aurkako erasoei buruzkoak, berretsi egiten du egoitza-baimenerako banakako eskubidearen beharra, emakume etorkinaren legezko egoerak ez baitu zertan egon beharrik bere senarraren edo aitaren egoeraren mende; eta gainera esaten die gobernuari gutxiengoetako kide diren emakumeak (emakume etorkinak, langile etorkinen emazteak,...) bereziki zaurgarri sentitzen direla horrelako erasoen biktima direnean. Zentzu horretan, birtaldekatze familiarragatik aldi baterako egoitzaren irudiak gizonetikiko mendekotasuneko egoera berezi bat sortzen du emakumeengan. Egoera horri aurre egiteko helburuarekin, atzerritarren araudi berriak, 41.2.b) artikuluan, "birtaldekatutako ezkontideari" aldi baterako egoitza-baimen independentea eskuratzeko baimena ematen zaio, "genero indarkeriaren biktima denean, behin bere babeserako agindu judizial bat eman ondoren"(67).

Egoera administratibo irregularrean aurkitzen den pertsona "ilegaltzat" hartzeak eta, ondorioz, "delinkuente" gisa tratatzeak, larritu egiten ditu tratatu txarretan hain ohikoak diren antsietate-, urduritasun- eta nahasmendu-egoerak, beldur gehigarri bat ere badutelako: herrialdetik kanporatzeko prozesua abiaraztea. Horregatik, garrantzitsua da biktimari adieraztea salaketa bat jartzen badu ere, edo erroldatu egiten bada ere, horrek ez duela esan nahi kanporatze-prozedura bat abiaraziko zaionik. Administrazio-zuzenbideko arau baten eta oinarrizko eskubide baten arteko kontraesanaren edo aurkakotasunaren aurrean, lehentasuna beti izango du oinarrizko eskubidearen babesak.

Hala eta guztiz ere, arrazoi humanitarioetan oinarritutako egoitza-baimen bat eta bisatubuespena eskuratzeko, egoera administratibo irregularrean dauden emakume horientzat, tunelaren amaieran ikusi daitekeen argia da.

Harrera-gizarteko hizkuntza ezagutzen ez duten emakume migratzaileen arretari dagokionez, interprete gisa jardungo den pertsonaren sexua oso elementu garrantzitsua izan daiteke elkarrizketatzen den emakumearentzat (68). Interpretetek ere oso argi izan behar dute konfidentzialtasuna errespetatzean duen zentzua eta garrantzia. Ez da komenigarria seme-alabak edo senitartekoak erabiltzea interprete gisa. Hizkuntza-oztopoek komunikazioa zaildu egiten badute, oztopo kulturalak edo erakunde publikoak babes-iturri gisa baino mehatxu gisa hartzea kolektibo honek pairatzen duen babesgabatasunean eragina duten faktoreak dira. Horregatik, oso garrantzitsua da kultur arteko bitartekariak erabiltzea, tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakume migratzaileek harrerak komunikatzea eta ulertzea ahalbidetzeko.

(67) Abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua (2005eko urtarrilaren 7ko BOE, 6. zk.).

(68) Horri dagokionez, Europako Legebiltzarrak 1986ko ekainaren 11n emakumearen aurkako erasoei buruz eman zuen ebazpenean jadanik aipatzen zen ezinbestekoa zela erasoen biktima ziren gutxiengoetako emakumeentzako berriazko neurri legalekin esku hartzea, adieraziz gutxiengo horietako kide diren emakumeei aukera emango zaiela, tradizio erlijiosoak edo kulturalak direla eta gizonekin hitz egiterik edo biltzerik ezin dutenez, jakinarazpenak edo salaketak bereziki prestatuta dauden interprete eta polizia emakumeekin egiteko.

EZINTASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN ARRETA

1/2004 Legeko 18.3 artikuluan ondorengo hau esaten da: "genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, beren baldintza pertsonalak eta sozialak kontuan izanik informaziorako sarbide integralerako zailtasun handiagoak dituzten horiek, informaziorako eskubide hori bermatuta izan dezaten neurriak artikulatuko dira".


Oztopo arkitektonikoez, komunikazio-oztopoez eta bestelako oztopoez gain, ezintasunen bat duten eta tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeek, askotan, beste arazo batekin ere egiten dute topo: normalean eguneroko bizitzako jarduerak egiten (garraiobideak hartzea, kudeaketak egitea, komunikatzea, eta abar) laguntzen dien pertsona izaten da tratu txarrak ematen dituenak. Horrela, tratu txarrak ematen dituenak emakumearen gainean duen kontrola handiagoa da, eta emakumeak horren aurrean zein aukera dituen eta nola erabili jakin ahal izateko dituen oztopoak ere handiagoak dira. Horregatik, modu berezian egin behar zaie elkarriketa emakumeari eta bere "zaintzaile" den gizonari.

Kontuan izan behar dugu baita ere ikaskuntzarako zailtasunak dituzten emakumeak bereziki daudela eraso edo tratu txar sexualak jasateko arriskuan, batez ere heziketa sexualik izan ez dutenean, eta beren eskubide sexualak zein diren edo erakunde- eta familia-testuinguruetan babesa bila dezaketela jakiten ez dutenean. Era berean, eta kolektibo anitza bada ere, emakume gor eta hipoakustikoez ez dute jasotzen telebista edo irrati bidez igortzen den informazioa. Idatzitako informazioa, prentsan argitaratutakoa, eta gidatan aurkitzen dena, salbuespenak salbuespen, hitzezko eduki handia dute, eta ez dira irisgarriak emakume gorrentzat; hori horrela, oso zaila da emakume horiek tratu txarren egoerak identifikatzea, eta indarkeria-ziklotik ihes egiteko zer egin edo nora jo jakitea.


Hori guztia dela-eta, ezintasuna duten emakumeek informaziorako sarbidea (69) eta dau den baliabideetarako sarbidea izatea bermatzeko, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira (garraiorako laguntzak, konpainia, zeinu-hizkuntzako interpreteak (70), braille agiriak, komunikazio handigarria, eta abar.). mentos en braille, comunicación aumentativa, etc.).

(69) Ikus 1/2004 Lege Organikoko 18. artikulua.

(70) Egun Euskal Gorra Euskal Herriko Gorren Elkartearen Federazioak kudeatzen duen Zeinu Hizkuntzako interpreteen doako zerbitzu bat dago (Araba: tel. eta fax: 945 286 948, e-mail: arabakogorrrak@telefonica.net; Bizkaia: tel. 944 793 072, fax: 944 164 723, e-mail: bilbokogorrrak@terra.es; Gipuzkoa: tel. 943 468 453, fax: 943 473 672, e-mail: asgtsozial@telefonica.net)



7. **E**RANSKIN
METODOLOGIKOAK ETA
DOKUMENTALAK



7.1. GIZARTE ARLOKO ESKU-HARTZERAKO GOMENDIOAK

7.1.1. GIZARTE ARLOKO ESKU-HARTZEA LARRIALDI-EGOERAN

Krisi-bizipenean zehar garrantzitsua da:

1. Tratu txarrak jaso dituen emakumearen segurtasuna eta babesa areagotzea da esku-hartzearen lehentasunezko helburua.

2. Emakumeari babesa, ulermena eta lasaitzeko espazio bat eskaintzea; lehendabizi gertatutakoaz hitz egiteko eta bere sentimenduak azaltzeko gonbita egingo zaio emakumeari, eta profesionalak aktiboki entzungo du, jarrera enpatiko eta abegitsuaz.

- emozionalitate handia bideratuz (adierazi dezan eta, horrela, bere angustia murriztu dadin); beharrezkoa izango balitz: fisikoki eustea; bere hitzeko portaera islatu, bere mezua-
ren edukia, bere egoera emozionalaren kontziente izan dadila.
- errua, porrota eta abar iradokitzen duten pentsamendu distorsionatuetan sakonduz; espazio lasai eta erlaxatu bat ahalbidetuz.

Horretarako, arreta zein pertsonak eskainiko dieten eta zein zerbitzu eskaintzen duten jakinaraziko zaie

3. Tratu txarrak jaso dituen emakumeari ulertaraztea bera ez dela tratu txarren erantzule eta inork ez duela beste pertsona bati tratu txarrak emateko eskubiderik; tratu txarrak onartezinak direla azpimarratzea, legeak zigortutako portaerak direla, eta biktimak inoiz ez direla jasaten dituzten erasoen erantzule. Banantzeko edo harremana hausteko prozesua abiaraztera animatu behar zaio.

4. Errealitatean kokatzea eta orientatzea: arazoaren dimentsioak aztertuz, segurtasuna eta hurbiltasuna fisikoa igorritz; bere sentimenduak eta gertatu dena azaltzeko behar duen denbora emanez –gertaerei buruz duen kontakizuna ordenatzen lagundu behar zaio- (sistematizatu)

5. Inolako salbuespenik gabe onartzea, eta bere esperientzia balidatzea. Ez da balio judizialik egingo, emakumeak senti dezakeen errua eta zauria sakontzea saihestuz. Goxotasuna, sentibiltatea, benetakotasuna, zintzotasuna, malgutasuna, onarpena eta begirunea igorri behar da. Funtsezkoa da emakumeak arreta eskaintzen ari diren profesionalen gaitasun teknikoetan eta indar emozionalean konfiantza izatea.

6. Biktimei tratu txarren dinamikari eta horren ondorioei buruzko informazioa ematea.

7. Emakumearen indar-guneak eta ahuluneak antzematea, bere seme-alabak edo bere burua nola babestu dituen, eta harremana uzteko edo bere osotasun fisiko edo mentala mantentzeko erabili dituen bitartekoak.

8. Bere bizitza etorkizunerantz proiektatzen laguntzea, alderdi positiboak azpimarratuz.

9. Balizko irtenbideak esploratzea. Une horretara arte arazoari zein irtenbide ematen saiatu den galdetuz, beste aukerak aztertuz, beharrei lehentasuna emanez, beste alternatibak eskainiz. Arazoa birzehaztea. Ekintza plan bat prestatzea; baliabide familiarak, pertsonalak eta sozialak baloratzea.

10. Erabaki jakin bat hartzen laguntzea (aurea hartzea), ekintza-plan zehatz eta bideragarri baten bidez, itxaropena igorritz; pertsona bere kabuz erabakiak hartzeko gai den baloratuz eta, kasu honetan, jarrera bideratzailea hartuz. Gai ez bada, berriz, benetako arriskua baloratzea (suizidio-aurrekariak, autolesioak), eta, orduan, jarrera zuzentzailea hartuko da, beste baliabide familiarak, komunitarioak eta abar aztertuz.

11. Jarraipena egitea. Denboran gertukoa izango den hurrengo hitzordua jartzea; emakumeak behar duen babesa aurkitu duela eta berehalako beharrak epe motzera bermatuta dituela bermatuz.

12. Trazatutako ibilbidea banakakoa izango da, emakumeen beharretara egokitua; horretarako, kontuan izango dira bere beharrak, bere interesak eta bere aurreikuspenak, bere segurtasuna, autonomia pertsonala eta beste erakundeekiko independentzia bermatzea bilatuz.

Elkarrizketaren unean, garrantzitsua da:

SAIHESTEA:

— Biktima zerbitzu espezializatu batetarantz orientatzea, entzun eta babesa eta laguntza eskaini aurretik.

— Biktimak kontaktzen duena egia den zalantzan jartzea. Konfiantza aurretiazko eta ezinbesteko baldintza da, emakumea erabat ireki dadin.

— Emakumea betiko biktimatzat hartzea, hots, baliabide pertsonalik gabea.

— Aspaldi jasandako indarkeriei duela gutxiko erasoek duten garrantzi bera ez ematea.

— Errukia adieraztea.

— Iritzi moralak adieraztea. Oro har, termino moral oro saihestu behar da, eta bereziki indarkeriaren egileari zuzendutakoak. Aitzitik, komenigarria da gizonak egin duena, hots, bere egintzak, gaitzestea.

— Ez da biktima jasaten dituen tratu txarren erantzule egin behar. Tratu txarrak ematen dituztenek hainbat aitzakia erabiltzen dituzte tratu txarrak ematen jarraitzeko edo egintzak justifikatzeko. Ez dira arrazoiak.

— Saihestu “*familiako indarkeria*” edo “*familia barruko indarkeria*” bezalako terminoak; termino horiek bai gizonari eta baita emakumeari ere egozten die indarkeriaren erantzukizuna.

— Elkarrizketa bat-batean amaitzea: elkarrizketa amaitzera doala iragarri behar da, presatzen joateko.

— Ez da ahantzi behar hurrengo urratsa: kontuan izan behar da agurtzerakoan biktima etorkizunerako aurreikusten duen horretan pentsatzen ari dela. Oso argigarria eta lagungarria da hurrengo urratsak zein izango diren argi eta garbi jakitea.

ZER EGIN BEHAR DUGU:

1. Labur-labur azaltzea esku-hartze profesionalaren funtzioa, xedeak eta mugak.
2. Emakumeentzako espazio seguru bat sortzea. Espazio segurua izateko konfiantza ahalbidetu eta sustatu behar du, eta komunikazioa bultzatu behar du (horregatik, beharrezkoa denean, interpreteak eduki beharko dira). Espazio segurua espazio pribatua da, hosgabetua.
3. Emakumea bakarrik elkarrizketatuko da (inoiz ez da aurrean egongo gizona).
4. Eskaini arreta lesio fisikoei, biktimaren egoera emozionalari ere arreta eskaintzeaz utzi gabe.
5. Berehalako babeserako eskuragarri dauden iturriak identifikatu.
6. Aztertu zein den indarkeriazko portaera duen bikotekidearen legezko egoera (agindu judizialak, atxilotze-aginduak).
7. Onartu eta sinetsi biktimak esaten duena, eta kontuan hartu gertaeren inguruan egiten duen ebaluazioa.

8. Eskatu biktimari bere laguntza-eskaeran dituen lehentasunak zehaztu eta formulatu ditzan.

9. Eskaini beste arreta-erakundeei buruzko informazio zehatza indarkeriaren alderdi desberdinei (psikologikoak, sozialak, judizialak,...).

10. Informatu prozedurei eta baliabideei buruz.

11. Lasaitu, minimizatu gabe eta garrantzirik kendu gabe.

12. Elkarbizitza jarraituko egoeratan, lagundu biktimari indarkeria-zikloa bereizten.

13. Esleitu argi eta garbi erasotzaileari bere egintzen erantzukizuna: biktima ez da ez jasan duen indarkeriaren eta ezta bere ondorioen erantzule ere.

14. Azpimarratu gizonak eman dituen tratu txarren inguruko erantzukizuna berea dela.

15. Baztertu esplizituki familia disfuntzionalak eta indarkeriaren probokazioa bezalako kontzeptuak.

16. Argi izan bikotekidearen rol maskulinoa eta boterea zalantzan jartzen duten emakume horiek direla tratu txarrak maiztasun eta gogortasun handiagoaz jasateko arrisku gehien dutenak.

17. Elkarrizketa amaitzerakoan adieraz etorkizunean ere harremanetan jarri ahal izateko modua, telefono-zenbaki baten bidez edo emakumearekin hitzartutako beste modu batera.

Lehenengo harremanean erabiliko den **ELKARRIZKETA-EREDUA** 7.2 atalean jasotakoa izango da. Hala ere, gizarte zerbitzuetako profesionalak egoera berezi bakoitzari egokitutako galderak formulatzeko askatasuna edukiko du.

Gizarte zerbitzuetako **profesionalaren jarrera**, elkarrizketan zehar, Gizarte Laneko oinarrizko printzipioetan egongo da oinarrituta:

- Autodeterminazioa: erabiltzaileak bere kabuz hautatzeko eta tratamenduan bere erabakiak hartzeko duen eskubidearen eta beharraren aitoren praktikoa da. Gizarte zerbitzuetako profesionalak eskubide hori errespetatzeko betebeharra du, behar hori aitortu behar du, eta emakumeak bere burua gidatzeko duen gaitasuna estimulatu eta aktibatu behar du.
- Indibidualizazioa: pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziak aitortzea eta ulertzea da. Erabiltzaile oro desberdina da. Banakako desberdintasunak aitortu, ulertu eta errespetatu behar dira.

- Errespetua: irizpide egokiena da erabiltzaileari gu antzeko egoeratan egonez jaso nahiko genukeen tratamendua ematea da.
- Erabiltzailearen onarpen erreala: den bezala antzematea eta tratatzea, bere gaitasunak eta ahuluneak kontuan izanik, bere ezaugarriak eta bere sentimenduak, horiek negatiboak ala positiboak izan, bere jarrera eta portaerak, eraikitzailea nahiz suntsitzaileak, uneoro mantenduz erabiltzaileak berez duen duintasunaren zentzua. Onarpenak ez du esan nahi onespena: objektua ez da ona, erreala baizik, eta terapeutikoa da.
- Judiziorik gabeko jarrera: gizarte zerbitzuetako profesionalak argi izan behar du bere lanetik kanpo dagoela errua, inozentzia edo erabiltzaileak bere beharren eta/edo arazoan jatorrian duen erantzukizun-maila xedatzea.
- Sekretu profesionala edo erreserba: erabiltzaileek informazio pertsonala babesteko eskubi-dea dute.

Prozesuak jarraitu egingo du:

- Emakumeak bere egoera aurkezten dio gizarte zerbitzuetako profesionalari, eta erantzun bat edo irtenbide bat itxaroten du.
- Gizarte zerbitzuen profesionalak planteatutako egoeraren inguruko datu garrantzitsuak biltzen ditu, eta emakumeak bere burua irekitzeko giro egoki bat sortuko du, egon litezkeen tentsioak murrizten saiatuz.
- Emakumeak ulertzen du bera dela bere egoera aztertu behar duena, gizarte zerbitzuetako profesionalaren laguntzarekin.
- Gizarte zerbitzuetako profesionalak eta erabiltzaileak egoeraren azterketa objektibo bat egingen dute, baliabide pertsonalak eta sozialak baloratzen dituzte eta, elkarrekin, jarraitu beharreko estrategia edo xedetzat planteatutako egoera gainditzea duen plan bat prestatzen dute. Ondoren, gauzatutako ekintzak, mobilizatutako baliabideak eta lehen zehaztutako helburuei dagokienez lortutako emaitzak ebaluatzen dituzte.

Elkarrizketan zehar, gizarte zerbitzuetako profesionala honela **jardungo da**:

- Behatuz.
- Entzunez: ez emakumeak dioena bakarrik, baita bere isiluneak eta etenak ere. Lehenengo elkarrizketan garrantzitsuagoa da entzutea hitz egitea baino, erabiltzaileari ulertzeko: hitz egiten utzi behar zaio, gutxi eten behar zaio, beharrezkoa denean bakarrik, eta hitz egiten jarraitzea animatu behar zaio, keinu baten edo hitz baten bidez, hitz egiteak angustia eta sumin sentimenduez liberatzen laguntzen baitio,... Entzuna ez denak ez du hitz egiten. Egintza honek kontakizunaren oinarri izango diren funtzioak hartu behar ditu, eskatzea ahalbidetu behar du, eta oztopoa mugatu.
- Galderak eginez. Galderak formulatzerakoan kontuan izan behar da galderak norabide bat eskaini behar dutela, eta ez dituztela erantzunak alferrik mugatu behar, baiezko edo ezezko erantzun mugatua probokatuz.

- “Zergatik” galderak formulatzea saihestu behar da, “zerk” bezalakoak erabiliz. Zergatik ez duzu uzten? / Zerk eragozten du uztea?
- Azterketak eginez
 - erabiltzailearen erritmoari jarraiki, behar duen denbora emanaz;
 - emakumearen lekuan jarriz (enpatizatuz);
 - elkarrizketa egituratuz;
 - konfiantza-giro bat sortuz.

Tratu txarrak jaso dituen emakumeari dagokionez, **kontuan izan behar da:**

a) Aurreko esperientzian, ezaugarri pertsonaletan, larrialdian edo lortu nahi duen xedearren garrantzian oinarritutako aurreikuspenak

b) Beharra eta eskaera: batzutan horiek biak ez datoz bat. Gizarte zerbitzuetako profesionalak, eskaera esplizituaren edo formalaren bidez, behar edo eskaera inplizitua zein den jakitera edo eskaerari badagoen jakitera irits daiteke (beste profesionalen zeharkako antzematea).

c) Harreman-proposamena: gizarte zerbitzuen profesionalean erantzun bat probokatu nahia, behar dutena lortzeko helburuarekin (ez da nahastu behar manipulazioarekin).

Profesionala/erabiltzailea harremanean eragina izan dezaketean **zenbait oztopo** ondorengo hauek dira:

- 1) Erabiltzaileak ez du laguntzarik jaso nahi.
- 2) Gizarte zerbitzuetako profesionalak identifikazio estuegia du erabiltzailearekiko (objektibotasuna galtzen da).
- 3) Erabiltzailearen oldarkortasuna: arazoak konpontzeko zailtasunen aurrean erabiltzen duten defentsa-mekanismoa.
- 4) Beldurra: aurreko esperientzien ondorioz.
- 5) Depresioa.
- 6) Bere arazo propioak konpondu gabe dituen gizarte zerbitzuetako profesionalak erabiltzailearengan proiektatzen ditu arazo horiek.
- 7) Gizarte zerbitzuetako profesionalak ez du onartzen erabiltzailea.

Elkarrizketan zehar eta, oro har, arreta-prozesu osoan zehar kontuan izan behar ditugun **jarrrerak eta gaitasunak** ondorengo hauek dira:

1. Enpatia: beste pertsonak pentsatzen duena eta esperimendatzen duena antzemateko eta ulertzeko, eta ulermen hori berak ulertuko duen lengoaia batean igortzeko gaitasuna da (bestearen sentimenduarekin bat egitea saihestuz).

2. Onarpena: emakumearengana errespetuz hurbiltzea suposatzen du, aurreiritzirik gabe: onartuz, nahiz eta horrek ez duen esan nahi bere iritziekin eta/edo erabakiekin ados zaudenik.

3. Kongruentzia: batek bera den bezala izateko gaitasuna da, eta entzuten ditudan gauzek pertsonalki nola eragiten didaten ezagutzeko gaitasuna. Kongruentziak tentsioan eta defentsiban ez egoten laguntzen du, eta egoerek geure burua gaindituko dutenaren beldurra ez izaten laguntzen du.

4. Zehaztasuna: esperientzia zentratzeko gaitasuna, garrantzitsua dena hautatzeko gaitasuna, orokortzeak eta teorizazioak saihestuz.

Elkarrizketa adeitasun-giroan amaitu behar da, ondoren egon daitezkeen beste topaketetarako atea irekita utziz –elkarrizketarekin jarraitzeko data proposatuz-. Elkarrizketa amaitzeko, gizarte zerbitzuetako profesionalak laburbildu egingo ditu elkarrizketan zehar ukitutako gaiak: zein erabaki hartu diren, oraindik ebatzi gabe geratzen diren gauzak, hartu beharreko neurriak. Behin elkarrizketa amaitu ondoren, gizarte zerbitzuetako profesionalak gizarte-txosten bat idatziko du, eta baita dagokion bidaltze-txostena ere.

Hainbat ikerketek erakutsi dute “sakoneko” elkarrizketen **direktibotasuna** esku-hartzearen eraginkortasuna areagotzeko bitarteko bat dela, eta ondorengo hauek **ahalbidetzen dituzte**:

1. Tratu txarrak dituen emakumearen energiak proaktiboki mobilizatzea. Esku-hartzeak bi alderdi garrantzitsutan ekarri behar die onura emakumeei: lehenik eta behin, beren balioaren sentimendu geroz eta handiagoak irabaztea (autobalorazio positiboa); eta, bigarrenik, ondorioz, bere ongizatea bermatuko duen jarrera aktibo bat hartzeko gaitasun handiagoa, bere genero rolari buruzko hertsadurak ebatziz.

2. Erasoak jaso dituen emakumea jasaten ari den indarkeriaren benetako arriskuen aurrean jartzea. Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeek, distortsio kognitiboen ondorioz, muturrera minimizatzen eta onartzen dituzte jaso dituzten tratu txarrak.

3. Argi eta garbi adieraztea elkarrizketatzaileak emakumeen aurkako indarkeriari buruz duen jarrera. Tratu txarrak onartezinak dira; gizon batek bere bikotekidea jo edo kolpatzen duenean, edo bere bikotekideaz abusatzen duenean, delitu bat burutzen ari da, eta bera bakarrik da eraso horien eta horren ondorioen erantzule. Jarrera profesional horrek konfiantza berrezartzea eta gizarte zerbitzuetako profesionalarekin gertaeren bizipena konpartitzea ahalbidetzen du; era berean, esku-hartzearen testuingurua zein den erakusten du: babes eta laguntza eskaintzea.

4. Zulo bat irekitzea ezintasun eta ikasitako babesgabetasun sentimenduan. Horretarako, ezinbestekoa da positiboki baloratzea emakumeak jadanik hartu dituen erabakiak: adibidez, polizia deitu izana, Gizarte Zerbitzuetara jo izana, etxetik alde egitea pentsatu izana,...

5. Mezu lasaitzailea igortzea (bakarrik ez daudela adieraziz), ama onak eta arduratsuak direla, beren bizitza berregin dezaketela, eta horretarako gai direla. Oso garrantzitsua da, gizonak emakumearen gainean duen abusuzko kontrolak emakumeak erotuta dagoela pentsaraztera eramán dezake-eta –intimidazioak garun-garbiketa dirudi-, eta, gainera, honek, askotan, ezgaia dela eta zoroa dela pentsatzera bultzatzen du. “Desorientatu” bezalako terminoek ez digute uzten diagnosi on bat egiten.

6. Biktimari bere duintasuna berreskuratzen eta bere eskubideak balioztatzen lagundu behar zaio. Askotan, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeek pairatzen duten isolamendua dela-eta, horientzat tratu txarren emalea da erreferentzia bakarra. Baloratzen duen jendearekin harremanik ez izateak, berari buruzko iritzi positiboagoa duen jendearekin harremanik ez izateak, autoirudi desitxuratu eta negatiboa sorrarazten du emakumeengan.

7. Gogorazi helburua ez dela emakumeei irtenbideak ematea, laguntza eraikitzailea eskaintzea baizik.

8. Ekintzak proposatzea, eta ekintza horiek ondo garatu ditzaten laguntzea: ekimena estimulatzeak emakumeek “hutserako jauzia” emateko, hots, bizitza-proiektu propio batean pentsatzeko eta hori garatzeko izan dezaketen zailtasuna edota ezintasuna gainditzen laguntzen du.

Krisi-uneetan nahiko erraza da emakumeak hitza har dezan egitea, elkarrizketa zuzentzaileko teknikak erabiliz. **Komenigarria da galderak zuzenean eta modu delikatuan egitea.** Galdera argiak eta sinpleak izan behar dute. Ondorengo galdera hauek egin daitezke adibidez:

- Zuk diozu zure bikotekidea zaila dela, jarrera txarra duela. Indarkeria erabiltzen al du zurekin?
- Mehatxatu egiten al zaitu?
- Berriro ere indarkeriaz jardungo delako beldur al zara?
- Zure bikotekidea jardun al da noizbait indarkeriaz zurekin?

Lehen adierazi da ezinbestekoa dela elkarrizketa emakumearekin bakarrik egitea, baina tratu txarrak eman dituen bere emaztearekin agertzen bada, gizarte zerbitzuetako profesionalak tratu txarren emaleari *aurre egitea*, instalazioetatik kanpo irtetera gonbidatuz, arriskutsua izan daiteke. Gizarte zerbitzuetako profesionala emakumeak badira, gizona profesional horiekin bere bikotekidearekin erabiltzen dituen kontrol-mekanismo berdinak erabiltzen saiatuko da: “seduktore” kutsua ere har dezake. Horregatik, beharrezkoa izango balitz, gizarte zerbitzuetako profesionalarenganako segurtasun-neurriak hartu behar dira, bereziki herri txikietan..

JARDUNBIDE EGOKIA

- Entzute aktiboa eta enpatia gauzatzea
- Emakumearen esperientzia balioztatzea
- Konfiantza ematea, Zerbitzuan zein maiztasunez dagoen kontuan izan gabe
- Emakumea positiboki indartzea
- Bere egoerari duen garrantzia ematea
- Har ditzakeen erabakien berri ematea
- Bere buruaz eta bere bizitza zaintzen saiatzea, distantzia hartuz, ez erretzeko (burn out)
- Bere erabakiak errespetatzea, nahiz eta ados ez egon
- Beharrezkoak diren jarduketak deribatzea
- Kasuaren jarraipena egitea

SAIHESTU BEHARRA

- Balio-judizioak adieraztea
- Guztia erakundeak konponduko duela sinestaraztea
- Erabakiak biktimaren ordezt hartzea, edo erabakiak hartzera behartzea
- Biktimizatzea
- Gehiegizkoa den babes- edo tutoretza-jarrera hartzea.
- Oso afektatua sentitzea
- Aholkuak eta irtenbideak emanez jardutea.
- Arriskuak minimizatzea
- Kasua beste profesional batzuei deribatzea, ondoren jarraipenik egin gabe
- Bere beharren arabera ez diren trebakuntza-jarduerekin edo lanbiderako jarduerekin "estutzea"

Biktimizazioaren inguruko hausnarketak

Alor honetan lan egiten duten profesionalak kezkatzen dituen gai bat da tratu txarren biktima diren emakumeek jaso ohi duten diagnostika. Aplikatzen zaizkien diagnostikak biktimizazio bikoitzeko prozesua osa dezake, biktimei beren tratu txarren egoeraren errudun egiten dituen etiketak edo diagnostika jartzen zaizkienean.

Biktimetarantz orientatutako sistema batek, edo, gutxienez, bigarren mailako biktimizazioari aurrea hartuko dion sistema batek "behar bezala diagnostikatu behar du arazoa, eta argi izan behar ditu arazoaren erroei eta zergatiei buruzko ideiak" (Winckel eta Koppelaar, 1992).

Bestalde, biktimgan gorabehera traumatikoaren erantzule eta/edo errudun sentitzeko joera izaten da:

- a) Indarkeria sorrarazteagatik;
- b) Indarkeria geldiarazteko gai ez izateagatik; eta
- c) Indarkeria onartzeagatik.

Gizarte zerbitzuetako profesionalak mekanismo horiek ulertzen baditu, tratu txarren biktimgan pisu handia duten autoakusazioaren eta autokondenaren karga murriztu daiteke, eta,

horrela, biktimizazioa saihestu daiteke. Hori emakumeak eskaintzen dituen elementuan aprobetxatuz egiten da, eta horrek bakarrik ez dagoela sentiaraziko dio, beste pertsona batzuk ere interesatzen direla eta bera laguntzeko daudela.

Segurtasun-planaren inguruko hausnarketak (71):

Segurtasun-plan orok eskaini behar du:

1. Dagoen arrisku-maila aztertzea (72). Horretarako kontuan izan beharko dituzte tratu txarren larritasun- eta mingarritasun-maila areagotzeko arriskuari lotutako alderdiak: tratu txarren iraupena, erasoen maiztasuna, lesioen larritasuna, etxean armak dauden, biktimak arriskuari dagokionez duen pertzepzioa, erasotzaileak alkohola edo beste drogak kontsumitzen dituen, etxetik kanpo ere indarkeriazko portaerak dituen, hiltzearekin edo bere buruaz beste egi-tearekin mehatxu egin duen, eta abar.

2. Lehen aipatu dugun indarkeriaren zikloa antzematen eta interpretatzen ikastea.

Ondorengo alderdi hauek kontuan hartuz:

- Emakumeak buruz ikasi behar du SOS-Deiak-eko telefono-zenbakia.
- Esku hartu dezaketen gizarte-baliabideak eta horien funtzio desberdinak antzeman izana.
- Bizilagunen artean pertsona solidarioak identifikatzea.
- Isolamendu afektiboa eta soziala haustea: familiarekiko, ingurunearekiko, taldearekiko edo elkartearekiko harremana berrezartzea.

Oso garrantzitsua da ez galdetzea "zergatik ez du alde egiten tratu txarrak jasotzen dituen emakumeak?", eta ondorengo hau galdetzea: "zerk eragozten dio abusuzko harremana uztea?".

(71) Horri dagokionez, ikus Emakundeek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimen arreta hobetzeko erakunde ar-
teko hitzarmenaren jarraipen batzordearen markoan sustatu eta argitaratu duen *Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-
erasoen aurrean?* agirian jasotako gomendioak.

(72) 2004ko ekainaren 10ean etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko segurtasun-endarren
eta -erkidegoen jarduketarako nahiz organo judizialekiko koordinaziorako onetsi zen protokoloaren arabera, segurta-
sun-indarrei dagokie tratu txarren kasuetan dagoen arriskua banaka aztertze arauak prestatzea, eman daitezkeen
egoera desberdinetan aplikagarri diren neurriak mailakatzeko. .

7.1.2. TRATU TXARRAK EMATEN DITUZTEN GIZONEKIN ESKU HARTZEA ETA BIKOTEENTZAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA

Programa hauek benetan dira garrantzitsuak; izan ere, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek beren bikotekidearekin bizitzen jarraitu behar dute halabeharrez, nahikoa baliabide ekonomikorik ez daukatelako edo, sarritan, bikotekide horrekiko mendekotasun afektiboa dutelako, edo berezko nortasunik ez dutelako eta abar. Horrelakoetan, funtsezkoa da biktimak jasoko duen tratamendua, baina ez da nahikoa izango aldi berean gizonarekin ere lan egiten ez bada. Hortaz, konponbiderik aurkitu ezean, litekeena da tratu txarrak errepikatzea, eta are familiako kide guztiengana zabaltzea ere. Bikotea banandu egiten denean ere oso garrantzitsua da tratu txarrak eman dituen gizonak arreta psikologikoa jasotzea, beste emakume batekin ere jokabide berdina izan dezakeelako.

Bizkaian, 1995. urteko urrian hasi ziren tratu txarrak ematen dituzten gizonentzako arreta psikologikoko programa bat garatzen ari da. Programa horren jatorria Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren, EHUren eta Emakunderen artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmen bat izan zen. Egun, programa hori Foru Aldundiaren mendekoa da.

Donostiako Instrukzioko Epaitegietan 1990etik 1992ra bitartean garatu zen esperientzia pilotuaren ondoren, 1993az geroztik etengabe eskaini izan da Gipuzkoan tratu txarrak ematen dituzten gizonen arreta. Egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzerako Departamentuaren eta lurraldeko psikologoaren elkargoaren artean sinatutako hitzarmen batean oinarrituta garatzen da programa.

Amaitzeko, Araban, 1998an ezarri zen programa hau. Gaur egun Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren esku dago.

Tratu txarrak ematen dituzten gizonentzako tratamenduen eraginkortasuna ikertzen hasi berriak dira, baina, hala ere, programa horien arduradunen iritziz, emaitza onak ari dira ematen, eta horrek adore ematen du lan horretan jarraitzeko. Programa horrek Bizkaian 1995etik 2000ra arteko aldian eman dituen datuak ikusita, esan daiteke tratamendua jaso izan duten ehun gaixotatik berrogeirekin iritsi zirela helburuak (banandu eta jazarpenik ez eragitea lehen-go bikotekideari, edo elkarrekin bizitzen jarraitzea indarkeriarik gabe). Horrez gain, terapiaren porrot egin zuten ehun bikotetatik berrogeitan, emakumeen banantzea erabaki zuen; hortaz, tratu txarrak eman dituen pertsonekin egindako terapiaren emaitza txarra izan arren, esan daiteke programa lagungarria izan daitekeela emakumeek banantzeko erabakia hartu eta bere bizimodua berregin dezaten.

Europar Batasuneko kide diren estatuak emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borroka egiteko hartu dituzten neurriei buruzko azterlanak, Emakumearen Institutuak Europar

Batasuneko lehendakaritza espainiarra izan den aldian egindakoan, ondorengo hauek gomen-
datzen dira:

1. Tratu txarrak ematen dituzten gizonentzako programen jarraipena eta ebaluazioa oro-
kortzea, emakumeen segurtasuna hobetzen dutela eta gizonen pentsamoldea aldatzeko era-
ginkorrak direla bermatzeko. Ebaluazio hori gauzatzeko, erasotzailearen txosten pertsonalaz
gain, beste informazio-iturriak ere erabiliko dira, kontuan hartuz, posible den guztietan, bikti-
mek emandako bertsioak eta lortu ahal izan diren aldaketaren bestelako frogamotak.

2. Erasotzaileekiko lanak beren erantzukizuna onartzen lagundu behar du, justifikazio gisa
edo portaeraren minimizazio gisa uler daitekeen hori guztia saihestuz. Hori saihesteko, eraso-
tzaileak birgaitzeko programak ez dira erabili behar zigor-neurrien ordezkatzailerik gisa.

3. Erasotzaileentzako programek emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borroka egite-
ko ekintza koordinatu bat osatuko dute; ekintza koordinatu horrek barruan hartuko ditu polizia,
zigor-justizia, biktimekin lan egiten duten zerbitzuak, eta gizarte-ongizateko erakundeak.
Horretarako komenigarria da erakunde horien guztien arteko lankidetzak hitzarmen formalak
ezartzea.

4. Erasotzaileekiko gauzatu beharreko lanean biktimeen segurtasuna eta ongizatea arriskuan
jartzen ez dela bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak hartu behar dira kontuan. Izan
ere, biktimeen segurtasuna eta ongizatea lehentasunezko helburuak dira. Horregatik, erasotzai-
leentzako programen finantzazioa ez da izango biktimeentzako zerbitzuen kostuaren kontura-
koa, aurrekontuko beste kontu-sailen konturakoa baizik.

5. Programa horietan lan egiten duten pertsonak emakumeen kontrako indarkeriaren ingu-
ruan egiten duten kontzeptualizazioak eraso psikologikoak, sexualak eta ekonomikoak barne
hartzen dituela aitortu behar du. Horien artean daude baita ere gehiegizko kontrola eta abu-
su emozionalerako beste aurrekari batzuk; horiek, askotan, gaizki interpretatzen dira, bikote-ha-
rremanaren barruan onargarriak diren portaeren gehiegikeria gisa. Programa horien lehenta-
sunezko xedeak ondorengo hau izan behar du: indarkeriazko portaerak dituzten gizonak berri-
ro heztea, indarkeriarantz eraman dituen pentsamolde-aldaketaren bidez.

Europar Batasuneko kide diren estatuotako ministroen batzordeak, 2002ko apirilaren
30ean, ministerioetako ordezkarien 794. bilkuran, emakumea indarkeriaren aurka babesteari
buruz eman zuen gomendioaren eranskinean jasota dagoenaren arabera, indarkeriazko ekin-
tzen egileekiko esku hartzeko programek egile horiei esku hartzeko programatan parte hartze-
ko aukera eman behar diete, ez epaiaren alternatiba gisa, baizik eta indarkeriari aurrea hartze-
ra zuzendutako neurri gehigarri gisa. Programa horietan parte hartzea borondatezkoa da.
Gainera, gizonen zuzendutako programen eta emakumeak babesteaz arduratzen diren progra-
ma horien arteko lankidetzak eta koordinazioa bermatu behar da.

Era berean, Arartekoak, *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzun-
na EAEn* izeneko aparteko txostenean, zera gomendatzen du: programak inoiz ez dira indartu
behar berariaz emakumeentzako diren beste baliabide batzuen kontura, eta eraso-jokabideak

aldatzeaz gainera, horiek ahalbidetzen dituzten kultur erroak eta pentsamolde matxistak ere landu behar dira.

Bestalde, argi izan behar da bikoteentzako aholkularitza psikologikoa aukera bideragarria izango dela, bakar-bakarrik ondorengo baldintza hauek betetzen badira (73):

1. Tratu txarrak ematen dituen pertsona indarkeriazko portaeraren erantzukizun osoa hartu du beregain, eta erabakitakoaren arabera, portaera aldatzeko ahalegina egin du.

2. Biktima gai da argi eta garbi bere burua babesteko, eta, bere ulermenaren eta prestutasunaren arabera, bere babesaren gaineko erantzukizuna beregain hartzea erabaki du.

3. Tratu txarrak eman dituen gizonak abusu edo tratu txar gehiago gauzatzeko posibilitatea oso txikia da (inoiz ez dago erabateko bermea).

4. Biktimak sentitzen zuen intimidazio- eta beldur-maila nabarmen gutxiagotu da, eta ez da oztopoa ezkon-bikotearekin (bikotearekin) zerikusia duten gaien inguruan modu irekian eztabaidatzeko oztopo. Ezinbestekoa da bermatzea emakumeak argi duela saioan zehar ateratzen diren gaiak ondoren ez dituela bere senarrak (bikotekideak) eraso egiteko erabiliko.

5. Bikotearen helburuak bi pertsonen artean adostuta ezartzen dira, eta biek libreki abiarazten dituzte saioak. Ezinbestekoa da gizonak emakumeari ez esan izana gai gatazkatsuen inguruan isilik egoteko.

7.1.3. "BURNOUT"

Biktimekin lan egiteak eragin handia izan dezake bizi profesionalan eta pertsonalean. Esku-hartzeak zuzenean jartzen gaitu harremanetan indarkeriarekin, gure zaugarritasunaren eta ahultasunaren jakitun eginez. Tratu txarrekiko eta erasoekiko erreaktiboak gara; erantzun proaktiborik ez izateak edo baliabide komunitariorik ez egoteak askoz ere zailagoa egiten dute gure esku-hartzea.

Zenbaitetan, lanak sentimendu, oroitzapen eta bizipen pertsonalak ekartzen dizkigu gogorra. Askotan, nahikoa egin dugun edo egin beharrekoa egin dugun galdetzen diogu gure buruari.

Gure lanean eraginkorrak izateko argi izan behar dugu lan horrek zein eragin duen gugan. Ziur egon behar dugu gure sentimendu pertsonalek ez dutela eraginik izango gure erabakietan

(73) Sinclair, Mullender (2000).

edo ez direla oztopo izango esku-hartze eraginkorra gauzatzekoan. Horregatik, geure burua zaindu behar dugu. Estresa maneiatzeko estrategiak erabili behar ditugu, eta babes kolegiatuaren bidez lan egin behar dugu. Bestalde, trebakuntza eta gaikuntza profesionalak eta diziplina barruko nahiz diziplina arteko lankidetzak eta laguntza profesionalak errazagoa egin dezakete gure lana. Oso garrantzitsua da, halaber, gure burutzapenak eta gure arrakasta profesionalak aitortzea, gure esku-hartzearen mugak aitortzen ditugun bezala.

7.2. INFORMAZIOA BILTZEKO EREDUAK ETA BIDALTZE-TXOSTENA

INFORMAZIOA BILTZEKO EREDUA

ETXEKO TRATU TXARRAK

Identifikazio-kodea:
Profesionala:
Erakundea:
Altaren data:

Biktimaren datu pertsonalak

Izen-abizenak:
NAN: Helbidea:
Lurraldea: Udalerria:
Harremanetarako helbidea (74) eta/edo telefonoa:

SEXUA: Emakumea Gizona

Jaiotze-data:
Jatorrizko herrialdea:
Nazionalitatea:
Jatorrizko Lurralde Historikoa: Araba Bizkaia Gipuzkoa
EAEn errolatuta data honetatik aurrera:
Udalerrian errolatuta data honetatik aurrera:

(74) Helbide hori bizi deneko helbidea ez den beste bat denean bakarrik adieraziko da.

EGOERA ZIBILA:

- Ezkondua
- Dibortziatua. Ezkon-bikote ezeztatua.
- Banantzeko edo dibortziazeko izapideetan.
- Banandua (izatezkoa)
- Banandua (legez)
- Ezkongabea
- Batasun adostua, erregistroarekin
- Batasun adostua, erregistrorik gabe
- Alarguna

IKASKETA-MAILA:

- Alfabetizatu gabe
- Oinarrizko ikasketak amaitu gabe
- Oinarrizko ikasketen ziurtagiria/OHO titulurik gabe
- Eskola-graduatu/Oinarrizko Batxilergoa, errebalidarekin
- LH I (teknikari laguntzailea)/Ofizialtza industrial
- LH II (teknikari espezialista)/Maisutza industrial
- BBB/UBI/Unibertsitate aurrekoa/Goi-mailako Batxilergoa, errebalidarekin
- 1. zikloko unibertsitate-titulua (Diplomatura)
- 2. zikloko unibertsitate-titulua (Lizentziatura)
- 3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoretza)
- Bestelakoak. Zehaztu gabe:

OKUPAZIOA:

- Ez aktiboa
- Lanean, besteren kontura kontratu finkoarekin
- Lanean, besteren kontura aldi baterako kontratuarekin
- Lanean, besteren kontura kontraturik gabe
- Lanean, norberaren kontura, autonomoa
- Lanean, norberaren kontura, soldatapeko beste pertsonak izango dituen enpresa
- Lanean, norberaren kontura, bazkide kooperatibista
- Lanean: lan babestua
- Langabezian, lehenengo lana bilatzen
- Langabezian, lehen lanean aritu dena

LANBIDEA:

- Artisautza eta lan kualifikatua industrian
- Enpresen zuzendaritza eta Herri Administrazioak
- Administrazio-motako lanak
- Indar armatuak
- Instalazioetako, makineriako eta muntatze-lanetako langileak

- Lan kualifikatua nekazaritzan eta arrantzan
- Kualifikatu gabeko lana
- Ostalaritza-zerbitzuetako lana
- Teknikari profesional zientifiko eta intelektualak
- Teknikari edo profesional laguntzaileak
- Bestelakoak. Zehaztu:

ETXEBIZITZA-JABETZAREN ARAUBIDEA:

- Etxebizitzarik gabe
- Etxebizitza jabetzan (privatiboa)
- Etxebizitza jabetzan (irabazpidezkoa)
- Alokaturako etxebizitza
- Lagapenean emandako etxebizitza
- Ostaturia edo apopilo-etxea
- Berrakura
- Errentari anitzak
- Egoitza turistikoa
- Harrerako etxebizitza edo egoitza
- Infraetxea

DIRU-SARRERA EKONOMIKOAK (URTEAN):

Banakakoak: Guztira (bikoteak):

EZINTASUNA:

- Bai
 - Fisikoa
 - Psikikoa/Burukoa
 - Entzumenekoa
 - Ikusmenekoa
- Ez

BERE ARDURAPEKO SEME-ALABAK:

Zk.: Jaiotza-datak:

BERE ARDURAPEKO BESTE PERTSONAK:

Zk.: Jaiotza-datak:

.....

Mendekotasun-mota:

- ekonomikoa (75)
- fisikoa (76)
- soziala (77)
- mentala edo kognitiboa (78)

.....

Mendekotasun-mota:

- ekonomikoa
- fisikoa
- soziala
- mentala edo kognitiboa

.....

Mendekotasun-mota:

- ekonomikoa
- fisikoa
- soziala
- mentala edo kognitiboa

DERIBATZEN DUEN ERAKUNDEA:

- Ekimen propioa
- Epaitegia
- Ofiziozko Txanda Espezializatua
- Polizia
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
- Larrialdietarako Gizarte Zerbitzua
- Beste gizarte zerbitzuak. Zehaztu
- Osasun-arloko profesionalak
- Elkarreak
- Bestelakoak. Zehaztu:

(75) Pertsona bat ekonomiari nahiz lanari dagokienez "aktibo" izatetik "ez aktibotzat", "pasibotzat" edo "mendekotzat" jotzen den biztanleriaren zati izatera pasatzen denean.

(76) Gorputz-funtzioen kontrola eta inguruko elementu fisikoekiko elkarrekintza galtzea.

(77) Pertsona eta harreman esanguratsuen galerari lotua.

(78) Pertsonak arazoak konpontzeko gaitasuna eta bere erabakiak hartzeko gaitasuna galtzen du.

INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE DATU BATZUK:

- Familiaren eta ingurunearen babesa du
- Toxikomaniaren bat du. Zehaztu
- Egoera administratibo irregularrean aurkitzen da
- Oinarrizko Errenta jasotzen du
- Egun erasotzailearekin batera bizi da
- Inguruko beste pertsonaren batek ematen dizkio tratu txarrak. Zehaztu:

OHARRAK

.....
.....
.....
.....
.....

Erasotzailearen datuak

Izen-abizenak:

SEXUA: Emakumea Gizona

Jaiotze-data:

Jatorrizko herrialdea:

Nazionalitatea:

Jatorrizko Lurralde Historikoa: Araba Bizkaia Gipuzkoa

AHAIDETASUN-HARREMANA:

- Ezkontidea
- Bikotea
- Izatezko bikotea
- Ezkontide ohia
- Bikotekide ohia
- Izatezko bikotekide ohia
- Aitzineko ahaideak
- Ondorengo ahaideak
- Beste ahaideak. Zehaztu

IKASKETA-MAILA:

- Alfabetizatu gabe
- Oinarrizko ikasketak amaitu gabe
- Oinarrizko ikasketen ziurtagiria/OHO titulurik gabe

- Eskola-graduatu/Oinarrizko Batxilergoa, errebalidarekin
- LH I (teknikari laguntzailea)/Ofizialtza industrial
- LH II (teknikari espezialista)/Maisutza industrial
- BBB/UBI/Unibertsitate aurrekoa/Goi-mailako Batxilergoa, errebalidarekin
- 1. zikloko unibertsitate-titulua (Diplomatura)
- 2. zikloko unibertsitate-titulua (Lizentziatura)
- 3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoretza)
- Bestelakoak. Zehaztu gabe:

OKUPAZIOA:

- Ez aktiboa
- Lanean, besteren kontura kontratu finkoarekin
- Lanean, besteren kontura aldi baterako kontratuarekin
- Lanean, besteren kontura kontraturik gabe
- Lanean, norberaren kontura, autonomia
- Lanean, norberaren kontura, soldatapeko beste pertsonak izango dituen enpresa
- Lanean, norberaren kontura, bazkide kooperatibista
- Lanean: lan babestua
- Langabezian, lehenengo lana bilatzen
- Langabezian, lehen lanean aritu dena

LANBIDEA:

- Artisautza eta lan kualifikatua industrian
- Enpresen zuzendaritza eta Herri Administrazioak
- Administrazio-motako lanak
- Indar armatuak
- Instalazioetako, makineriako eta muntatze-lanetako langileak
- Lan kualifikatua nekazaritzan eta arrantzan
- Kualifikatu gabeko lana
- Ostalaritza-zerbitzuetako lana
- Teknikari profesional zientifiko eta intelektualak
- Teknikari edo profesional laguntzaileak
- Bestelakoak. Zehaztu:

BESTE EZAUGARRIAK:

- Indarkeriazko portaera etxetik kanpo
- Aurrekariak erasotzaile gisa beste harremanetan
- Egoera administratibo irregularra
- Buruko gaixotasuna
- Alkoholismoa
- Beste droga-mendekotasunen bat. Zehaztu

OHARRAK

.....
.....
.....
.....
.....
.....

Tratu txarrari buruzko datuak

ERASO-MOTA:

- Tratu txar psikologikoak
- Tratu txar fisikoak
- Tratu txar sexualak
- Tratu txar ekonomikoak

TRATU TXARRAREN IRAUPENA:

- Lehenengo eraso
- <1 urte
- 1-4 urte
- 5-10 urte
- > 10 urte

INDARKERIAZKO GERTAEREN MAIZTASUNA:

- Egunero
- Astean behin
- Hamabost egunean behin
- Hilabetean behin
- Hilabetean behin baino gutxiago

OSASUN-LAGUNTZA JASO DU:

- Bai
- Ez

SEME-ALABEKIKO TRATU TXARRAK (79):

- Bai. Zehaztu:
- Ez

(79) Seme-alabarik izanez gero bakarrik bete.

ORAINGO SALAKETA:

- Bai
- Ez

AURREKO SALAKETAK:

- Bai
- Ez

BABESTEKO AGINDUA:

- Eskatu da
- Eman zaio
 - Behin-behineko espetxeratzea
 - Hurbiltzeko debekua
 - Komunikatzeko debekua
 - Etxebizitzaren erabilera
 - Seme-alaben zaintza
 - Elikadura-pentsioa
 - Adin txikikoen babesak
 - Bestelakoak. Zehaztu
- Ukatu egin zaio
- Ez da eskatu

ZIGOR-EPAIA:

- Bai
 - Espetxea
 - Hurbiltzeko debekua
 - Komunikatzeko debekua
 - Bestelakoak. Zehaztu
 - Aske uztea
- Ez

EPAI ZIBILA:

- Bai
 - Etxebizitzaren erabilera
 - Seme-alaben zaintza
 - Elikadura-pentsioa
 - Bestelakoak. Zehaztu
- Ez

ARRETA NORK ESKAINI DUEN:

- Polizia
- Epaitegia
- Ofiziozko Txanda Espezializatua
- Biktima Laguntzeko Zerbitzua
- Larrialdietarako Gizarte Zerbitzua

- Beste gizarte zerbitzuak. Zehaztu
- Osasuneko profesionalak
- Elkarateak
- Bestelakoak. Zehaztu

PLANTEATUTAKO ESKAERA

- Informazioa
- Laguntza psikologikoa
- Orientabide juridikoa
- Aldi baterako egoitza
- Laguntza ekonomikoak
- Bestelakoak. Zehaztu

EMAN ZAION BALIABIDEA

- Informazioa
- Laguntza psikologikoa
- Orientabide juridikoa
- Aldi baterako egoitza
- Laguntza ekonomikoak
- Bestelakoak. Zehaztu

INFORMAZIO OSAGARRIA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALAREN BALORAZIOA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

JARRAIPENEA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

INFORMAZIOA BILTZEKO EREDUA

SEXU-INDARKERIA (80)

Identifikazio-kodea:
Profesionala:
Erakundea:
Altaren data:

Biktimaren datu pertsonalak

Izen-abizenak:
NAN: Helbidea:
Lurraldea: Udalerria:
Harremanetarako helbidea (81) eta/edo telefonoa:

SEXUA: Emakumea Gizona

Jaiotze-data:

Jatorrizko herrialdea:

Nazionalitatea

Jatorrizko Lurralde Historikoa: Araba Bizkaia Gipuzkoa

EAEen errolatuta data honetatik aurrera:

Udalerrian errolatuta data honetatik aurrera:

EGOERA ZIBILA:

- Ezkondua
- Dibortziatua. Ezkon-bikote ezeztatua.
- Banantzeko edo dibortziazeko izapideetan.
- Banandua (izatezkoa)
- Banandua (legez)
- Ezkongabea
- Batasun adostua, erregistroarekin
- Batasun adostua, erregistrorik gabe
- Alarguna

(80) Sexu-indarkeria ohiko tratu txarren testuinguru batean gertatzen direnean, tratu txarrei dagokion eredia beteko da.

(81) Helbide hori bizi deneko helbidea ez den beste bat denean bakarrik adieraziko da.

IKASKETA-MAILA:

- Alfabetizatu gabe
- Oinarrizko ikasketak amaitu gabe
- Oinarrizko ikasketen ziurtagiria/OHO titulurik gabe
- Eskola-graduatu/Oinarrizko Batxilergoa, errebalidarekin
- LH I (teknikari laguntzailea)/Ofizialtza industrial
- LH II (teknikari espezialista)/Maisutza industrial
- BBB/UBI/Unibertsitate aurrekoa/Goi-mailako Batxilergoa, errebalidarekin
- 1. zikloko unibertsitate-titulua (Diplomatura)
- 2. zikloko unibertsitate-titulua (Lizentziatura)
- 3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoretza)
- Bestelakoak. Zehaztu gabe:

OKUPAZIOA:

- Ez aktiboa
- Lanean, besteren kontura kontratu finkoarekin
- Lanean, besteren kontura aldi baterako kontratuarekin
- Lanean, besteren kontura kontraturik gabe
- Lanean, norberaren kontura, autonomia
- Lanean, norberaren kontura, soldatapeko beste pertsonak izango dituen enpresa
- Lanean, norberaren kontura, bazkide kooperatibista
- Lanean: lan babestua
- Langabezian, lehenengo lana bilatzen
- Langabezian, lehen lanean aritu dena

LANBIDEA:

- Artisautza eta lan kualifikatua industriatan
- Enpresen zuzendaritza eta Herri Administrazioak
- Administrazio-motako lanak
- Indar armatuak
- Instalazioetako, makineriako eta muntatze-lanetako langileak
- Lan kualifikatua nekazaritza eta arrantza
- Kualifikatu gabeko lana
- Ostalaritza-zerbitzuetako lana
- Teknikari profesional zientifiko eta intelektualak
- Teknikari edo profesional laguntzaileak
- Bestelakoak. Zehaztu:

DIRU-SARRERA EKONOMIKOAK (URTEAN):

Banakakoak: Guztira (bikoteak):

EZINTASUNA:

- Bai
 - Fisikoa
 - Psikikoa/Burukoa
 - Entzumenekoa
 - Ikusmenekoa
- Ez

DERIBATZEN DUEN ERAKUNDEA:

- Ekimen propioa
- Epaitegia
- Ofiziotxo Txanda Espezializatua
- Polizia
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
- Larrialdietarako Gizarte Zerbitzua
- Beste gizarte zerbitzuak. Zehaztu
- Osasun-arloko profesionalak
- Elkarrekin
- Bestelakoak. Zehaztu:

INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN BESTE DATU BATZUK:

- Familiaren eta ingurunearen babesa du
- Toxikomaniaren bat du. Zehaztu
- Egoera administratibo irregularrean aurkitzen da
- Oinarrizko Errenta jasotzen du

OHARRAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Erasotzailearen datuak

Izen-abizenak:

SEXUA: Emakumea Gizona

Jaiotze-data:

Jatorrizko herrialdea:

Nazionalitatea

Jatorrizko Lurralde Historikoa: Araba Bizkaia Gipuzkoa

BIKTIMAREKIKO HARREMANA:

- Lanekoa edo irakaskuntzakoa, mendekotasun hierarkikoarekin
- Lanekoa edo irakaskuntzakoa, mendekotasun hierarkikorik gabe
- Beste arrazoiengatik ezagutzen du. Zehaztu
- Ez du ezagutzen

IKASKETA-MAILA:

- Alfabetizatu gabe
- Oinarrizko ikasketak amaitu gabe
- Oinarrizko ikasketen ziurtagiria/OHO titulurik gabe
- Eskola-graduatu/Oinarrizko Batxilergoa, errebalidarekin
- LH I (teknikari laguntzailea)/Ofizialtza industrialia
- LH II (teknikari espezialista)/Maisutza industrialia
- BBB/UBI/Unibertsitate aurrekoa/Goi-mailako Batxilergoa, errebalidarekin
- 1. zikloko unibertsitate-titulua (Diplomatura)
- 2. zikloko unibertsitate-titulua (Lizentziatura)
- 3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoretza)
- Bestelakoak. Zehaztu gabe:

OKUPAZIOA:

- Ez aktiboa
- Lanean, besteren kontura kontratu finkoarekin
- Lanean, besteren kontura aldi baterako kontratuarekin
- Lanean, besteren kontura kontraturik gabe
- Lanean, norberaren kontura, autonomia
- Lanean, norberaren kontura, soldatapeko beste pertsonak izango dituen enpresa
- Lanean, norberaren kontura, bazkide kooperatibista
- Lanean: lan babestua
- Langabezian, lehenengo lana bilatzen
- Langabezian, lehen lanean aritu dena

LANBIDEA:

- Artisautza eta lan kualifikatua industriatan
- Enpresen zuzendaritza eta Herri Administrazioak
- Administrazio-motako lanak
- Indar armatuak
- Instalazioetako, makineriako eta muntatze-lanetako langileak
- Lan kualifikatua nekazaritzan eta arrantzan
- Kualifikatu gabeko lana
- Ostalaritza-zerbitzuetako lana
- Teknikari profesional zientifiko eta intelektualak
- Teknikari edo profesional laguntzaileak
- Bestelakoak. Zehaztu:

BESTE EZAUGARRIAK:

- Aurrekariak erasotzaile gisa beste harremanetan
- Buruko gaixotasuna
- Alkoholismoa
- Beste droga-mendekotasunen bat. Zehaztu
- Ez da ezagutzen

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Sexu-indarkeriari buruzko datuak

ERASO-MOTA:

- Sexu-erasoa (indarkeria edo intimidazioa erabiliz)
 - penetrazioa edo bestelako objektuak sartzea
 - ukitzea
 - bestelakoak. Zehaztu
- Sexu-abusua (indarkeriarekin edo intimidaziorik gabe)
 - penetrazioa edo bestelako objektuak sartzea
 - ukitzea
 - bestelakoak. Zehaztu
- Sexu-jazarpena
 - penetrazioa edo bestelako objektuak sartzea
 - ukitzea
 - hitzekoa
 - bestelakoak. Zehaztu

INDARKERIAZKO PORTAERA SEXUALEN IRAUPENA:

- Lehenengo erasoa
 - <1 urte
 - 1-4 urte
 - 5-10 urte
 - > 10 urte

ORAINGO SALAKETA:

- Bai
- Ez

AURREKO SALAKETAK:

- Bai
- Ez

ONDORENGO HAUEK EMAN DIOTE ARRETA:

- Ekimen propioa
- Epaitegia
- Ofiziozko Txanda Espezializatua
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
- Polizia
- Larrialdietarako Gizarte Zerbitzua
- Beste gizarte zerbitzuak. Zehaztu
- Osasun-arloko profesionalak
- Elkarateak
- Bestelakoak. Zehaztu

PLANTEATUTAKO ESKAERA

- Informazioa
- Laguntza psikologikoa
- Orientabide juridikoa
- Bestelakoak. Zehaztu

ESKAINITAKO BALIABIDEA

- Informazioa
- Laguntza psikologikoa
- Orientabide juridikoa
- Bestelakoak. Zehaztu

INFORMAZIO OSAGARRIA

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

GIZARTE ZERBITZUETAKO PROFESIONALAREN BALORAZIOA

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

JARRAIPENA

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

BIDALTZE-TXOSTENAREN EREDUA

.....ko Gizarte Zerbitzuen Zentroan, an koka-
tuan,andrea atenditu dugu.
.....urte ditu, zk.ko NA, egoera zibilaz da, eta
..... bizi da. Bere telefono zenbakia da.

Interesatuan honakoa adierazi du (bortizkeria-mota, tokia, data eta ordua zehaztu, eta eraso-
zailea identifikatu, ahaidetasunarekin batera)

.....
.....
.....
.....
.....
.....

Honako jarduera hauek burutu dira:

.....
.....
.....
.....
.....

Instantzia horretara igortzen dugu, honako helburuetarako:

.....
.....
.....

Erakunde horrek garatzen dituen jardueren berri idatziz ematea eskatzen dizuegu.

.....(e)anko aren(e)an.

Sin. Interesatua

Sin. Profesionala

7.3. GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN, ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKO AGINDUAREN ERAGINKORTASUNA BERMATZEKO KOORDINAZIO PROTOKOLOA ⁽⁸²⁾

SARRERA

2003ko abuztuaren 2an sartu zen indarrean 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxe indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena. Agindu horren helburua da biktimak, prozedura azkar eta erraz baten bidez eta epe laburrean, babeserako estatutu integrala lortzea.

Babesteko agindua ematen denean, epaileak neurri zibilak eta penalak abiaraziko ditu eta administrazio publikoek, bai estatukoak, bai erkidegokoek, baita udaletakoek ere, laguntza-neurriak (juridikoak, psikologikoak, sanitarioak eta ekonomikoak) eta gizarte-babeserako tresnak aktibatuko dituzte.

Hala ere, legeek markatutako beste betebeharrak batzuk alde batera utzita, etxe indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkorra izan dadin, neurri handi batean beharrezkoa izango da administrazioan modu batera edo bestera esku hartzen duten atal guztien artean lankidetzaren eta koordinazio-tresna egokiak garatzea.

Ildo horretatik, 27/2003 Legeak (Prozedura Kriminaleko Legean 544 ter artikuluko berria gehitzen duenak) 2. artikuluko 8. puntuan dio arau bidez koordinazio administratiborako sistema integratua ezarriko dela, komunikazioa bizkorra izango dela bermatzeko. Halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako 5/95 Erregelamenduak eta 2/2003 Instrukzioak, hurrenez hurren, 47.4 eta 8. artikuluetan adierazten dute lankidetzaren-protokoloak ezarriko direla Autonomia Erkidegoaren eremuan eta barruti judizial bakoitzari dagokionean.

Hemen aurkezten dugun jarduteko protokoloa Autonomia Erkidegoaren eremuan kokatzen da.

(82) Protokolo hau *Gizarte zerbitzuen eremuan, etxe indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloetan* oinarritzen da. Hauek 2003ko irailean sinatu ziren hiru lurralde historikoetan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Justizierekiko Harremanetarako Zuzendaritzak bul-tzatuta eta koordinatuta. Modu berean, 2005ean lurralde historiko bakoitzean *Genero indarkeriaren aurka babes osoa emateko neurriak jasotzen dituen Legearen eta etxe indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloak* sinatu ziren. Hauek ere aipatu Sailak sustatu eta koordinatzen ditu eta haietan 2004an onartutako Protokoloan jasotakoa berresten da.

Protokolo honek Lurralde Historiko bakoitzeko eremu judizialean Probintzia Auzitegiak, magistratu dekanoeak, Fiskaltzak, Justizia eta Herrizaingo sailek, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek eta tokian tokiko poliziek sinatutako beste protokoloak osatzen ditu.

Protokolo honetan ezarritako jarduteko moduak, hauetan ezarritakoarekin bat datorren guztian, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioari dagokion jarduteko protokoloan aurreikusten direnekin osatuko dira. (Akordio hori 2001eko urriaren 18an sinatu zuten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, EAEko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hiru Foru Aldundiek, EUDEL-Euskal Herriko Udalen Elkarteak, Legekarien Euskal Kontseiluak eta Medikuen Euskal Kontseiluak).

ZER DA ETA NOLA FUNTZIONATZEN DU BABESTEKO AGINDUAK?

ZER DA BABESTEKO AGINDUA?

Babesteko agindua etxeko indarkeriaren biktimak mota guztietako erasoetatik babesteko prestatu den lege-tresna berria da. Organo judizialen eta Administrazioaren arteko koordinazio-sistema ere finkatzen du, eta, beraz, ezinbestekoa da erakunde horiek babesari buruzko alderdi guztiak ezagutzea.

NORK ESKA DEZAKE BABESTEKO AGINDUA?

Babesteko agindua biktimak berak eska dezake, edo, bestela, biktimarekin Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatzen diren ahaidetasun-mailetakoren bat duen pertsonak (alegia, ezkontideak edo biktimarekin afektibitate-harreman egonkorra duen, edo izan duen, pertsonak; biktimaren beraren nahiz ezkontidearen edo bizikidearen seme-alabek; eta biktimarekin bizi diren edo biktimaren nahiz ezkontidearen guraso-ahal, tutoretza, kuratela, harrera edota egitatezko zaintzaren pean dauden pupilo, aurreko ahaide edo ezgaiek).

Babesteko agindua epailearen ofizios edo Ministerio Fiskalak hala eskatuta ere eman ahal izango da.

NON ESKA DAITEKE BABESTEKO AGINDUA?

Babesteko agindua Agintaritza Judizialean, Ministerio Fiskalean, polizia-bulegoetan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan edo Administrazio Publikoen pean dauden gizarte-zerbitzu nahiz erakunde asistentzialetan eska daiteke zuzenean.

Hala ere, gomendagarria da babesteko agindua polizia-bulegoan eskatzea; horrela, eskabidea dagokion atestatu edo txostenarekin batera helduko da epaitegira eta horrek babesteko agindua, bidezkoa bada, ahalik eta lasterren ematea ahalbidetuko du.

Babesteko agindua berau emateko ahalmena duten gainerako erakundeetan eskatuz gero, horiek zuzenean Guardiako Epaitegira igorriko dute eskabidea.

NOLA ESKA DAITEKE BABESTEKO AGINDUA?

Babesteko agindua eskatu ahal izateko, "Babesteko agindua eskatzeko formularioa edo eredu" diseinatu da. Honako leku hauetan beti egongo dira babesteko agindua eskatzeko formularioak: organo judizial zibil eta penal guztietan, fiskaltzetan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan, Herritarren Arretarako bulegoetan, abokatuen elkargoetako Orientazio Juridikoko zerbitzuetan, polizia-bulegoetan eta gizarte-zerbitzu edo erakunde asistentzialetan.

Nolanahi ere, eredu hori Internet bidez ere eskuratu ahal izango da, Justizia Sailaren "justizia.net" web orrialdean.

Eredua betetzeko jarraibideak horrekin batera datoz. Hala ere, oso garrantzitsua da biktimak babesteko agindua eskatu baino lehen jakitea aginduak salaketa-izaera duela eta ondo jakitzea horrek izan ditzakeen ondorioez. Behin erakunde eskudunak eskabidea izapidetzeko informazio hori eman ondoren, biktimak oraindik ere babesteko agindua eskatu nahi badu, erakunde horrek adieraziko dio garrantzitsua dela abokatu-laguntza izatea eskabidea betetzeko orduan, eta eskubide osoa duela, doan, etxeko indarkeriaren txandako abokatuaren aholkua jasotzeko, protokolo honen abokatu-laguntzari buruzko atalean aurreikusitako baldintzetan. Biktimak abokatu-laguntzari uko egiten badio edo, aparteko arrazoiengatik, abokatu-laguntza behar den unean ematerik ez badago, babesteko aginduaren eskaera jasotzen duen erakundeak berak lagunduko dio biktimari eskabidea formalki betetzen.

ZER EGIN BEHAR DA BABESTEKO AGINDUAREN ESKABIDEAREKIN?

Babesteko aginduaren eskabidea formalizatu ondoren, berau kudeatzea dagokion erakundeak kopia bat eskatzaileari emango dio, beste kopia bat berarentzat gordeko du eta jatorrizkoa herriko guardiako epaitegira igorriko du berehala, epaitegian ebatzi beharko baita gaia.

BABESTEKO ZENBAT AGINDU AURKEZ DITZAKE PERTSONA BAKAR BATEK?

Biktima bakoitzeko babesteko agindu bakarra egon ahal izango da. Agindu horren edukia aldatu egin daiteke inguruabarrak aldatzen badira, baina ezingo da aldi berean babesteko beste agindu bat eman.

BABESTEKO AGINDUAREN EDUKIA

Guardiako epaileak jarraian aipatzen diren kautelazko neurri penalak eta zibilak hartu ahal izango ditu, gertakarien larritasuna kontuan hartuta:

Penalak

- Behin-behineko espetxeratzea.
- Hurbiltzeko debekua.
- Biktimarekin batera bizitzeko debekua.
- Komunikatzeko debekua.
- Biktima bizi den lekura joateko debekua.
- Armak kentzea.
- Beste batzuk.

Zibilak: Biktimak berak edo bere legezko ordezkariak eskatu behar dituzte, edo Ministerio Fiskalak tartean adin txikikoak edo ezinduak badaude, betiere, aurretik ez baditu hala adostu jurisdikzio-ordena zibileko epaitegiren batek. 30 eguneko indarraldia izango dute. Epe horretan familia-prozesuari hasiera ematen bazaio, neurri horiek indarrean jarraituko dute demanda aurkeztu eta hurrengo hogeita hamar egunetan. Egoera horretan, lehen auzialdiko epaileren batek berronetsi, aldatu edo indarrik gabe utzi beharko ditu jarraian aipatzen diren alderdien inguruan hartutako neurriak.

- Famili bizilekuaren erabilera eta gozamena.
- Seme-alabak zaintzeko eta ikusteko eta haiekin komunikatzeko eta egoteko erregimena.
- Mantenu-hornitzearen erregimena.
- Beste neurri batzuk, batez ere Kode Zibilaren 158. artikuluan jasotakoak.

GIZARTE-LAGUNTZA ETA BABESERAKO NEURRIAK

Epaitegiak hartzen duen babesteko aginduak administrazio publikoek aurreikusitako gizarte-babes eta laguntzarako tresnak aktibatzen ditu. Horregatik, beharrezkoa da koordinazio- eta komunikazio-bideak zehaztea; bide horiek nolabait berehalakoak izango dira.

Babesteko aginduari esker, eta ordenamenduan ezarritako baldintzak betetzen baditu, biktimak honakoak eskuratu ditzake:


- Oinarrizko errenta edo beste laguntza ekonomiko batzuk: 35/1995 Legean araututako laguntzak, gizarte-larrialdiko laguntzak, e.a.
- Gizarte-laguntza: abegi-etxeak, abegi-pisuak, e.a.
- Laguntza juridikoa.
- Laguntza psikologikoa.
- Biktimak eskaera egin duen lurraldearen eremuan aplikatu beharreko lege eta arauetan aurreikusten den beste edozein laguntza.

NOLA KOORDINATZEN DIRA GIZARTE-LAGUNTZA ETA BABESERAKO NEURRIAK?

Organo judizialak eta gizarte-laguntza eta babeserako neurriez arduratzen diren erakundeak Lurralde Koordinazioko Zentrozen bidez koordinatzen dira.

Koordinazio Zentro horiek Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan kokatzen dira.

Babesteko Agindua izapidetzeko eskema



GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, gizarte-zerbitzuen sistema bi mailatan egituratzen da: oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzu espezializatuak.

Etxeko indarkeriari dagokionez, oinarrizko gizarte-zerbitzuek honako zeregin hauek izango dituzte, beste zenbait egitekoren artean:

- a) Biztanle guztiei egun dauden gizarte-eskubideen eta baliabide sozialen inguruan informazioa ematea, balorazioa egitea eta aholku ematea.
- b) Kaltetutako pertsonak, familiak eta taldeak gizarteratzen laguntzeko baliabideak eta birtartekoak eskuragarri jarriko dituzten esku-hartze programak garatzea; programa horietan, pertsona, familia edo talde horien marjinazioa ekiditeari emango zaio lehentasuna.
- c) Kasuan kasuko prestazioen izapideak egitea.
- d) Gizarte-zerbitzu espezializatuen esku uztea horien eskumeneko arazoak dituzten pertsonak.
- e) Baliabide sozialak modu eraginkorrean erabiliko direla bermatzeko plangintza- eta arrazionalizazio-lanetan parte hartzea. Horretarako, dagokion lurralde-eremuan gizarte-beharrak eta horiek asetzeko orduan gertatzen diren irregulartasunak detektatuko dituzte.

Bestalde, gizarte-zerbitzu espezializatuak, etxeko indarkeriaren eremuan, oinarrizko gizarte-zerbitzuei ez dagozkien jardunak antolatu, ezarri eta kudeatzen dituzte.

KOORDINAZIO ZENTROAK/BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak eman eta, 2003ko abenduaren 9an, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen erabaki bidez, adierazi zen Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan kokatuko zirela babesteko agindua ezartzeko protokoloan aipatzen diren Lurralde arteko Koordinaziorako Zentroak.

Guztira hiru koordinazio-zentro daude, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko justizia-jauregietan kokatuak, eta horien jardun-eremuak Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba dira, hurrenez hurren.

Koordinazio Zentroa/Biktimari Laguntzeko Zerbitzua - Araba

Gasteiz hiribidea, 18. 01008 Vitoria-Gasteiz

Tf.: 945 00 48 95

Faxa: 945 00 48 40 (BLZentzat)

Posta elektronikoa: sav01-2@aju.ej-gv.es

Koordinazio Zentroa/Biktimari Laguntzeko Zerbitzua - Bizkaia

Ibañez de Bilbao kalea, 3. 48001 - Bilbo

Tf.: 94 401 64 87

Faxa: 94 401 66 46 (BLZentzat)

Posta elektronikoa: sav48-1@aju.ej-gv.es

Koordinazio Zentroa/Biktimari Laguntzeko Zerbitzua - Gipuzkoa

Teresa de Calcuta kalea, 1. 20012 Donostia-San Sebastián

Tf.: 943 000 768

Faxa: 943 00 43 76

Posta elektronikoa: sav20@aju.ej-gv.es

Honako hauek izango dira Koordinazio Zentroen/Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen xede nagusiak:

1. Kasuan kasuko epaitegietan emandako babesteko aginduak jasotzea.
2. Biktimari dauden baliabide sozialen eta gizarte-laguntzen berri ematea eta, hala badagokio, horietara bideratzea.
3. Biktimari une oro jakinaraztea inputatua prozesuko zein egoeratan dagoen, bai eta kautelazko neurrien helmena eta indarraldia zeintzuk diren ere. Ondorio horietarako, babesteko agindua ematen duen epaitegiak idatziz jakinaraziko dio bulego honi babesteko agindua onartu dela eta inputatuari prozesuko zein fase aplikatu behar zaizkion, baita zigorra betetzeko fasean ere.
4. Indarkeriazko zein sexu-askatasunaren aurkako delituak jasan dituzten biktimei laguntzari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntza ekonomikoen berri ematea eta, hala badagokio, horiek izapidetzen laguntzea.
5. Estatistika egitea, eranskin gisa aurkeztutako ereduari jarraiki. Estatistika horretan, jasotzen diren babesteko aginduen kopurua eta hartutako neurriak adieraziko dira; inoiz ez, ordea, datu pertsonalak.

JARDUNA ETA KOORDINAZIOA

Legearen arabera, epaitegiak hartzen duen babesteko aginduak administrazio publikoek aurreikusitako gizarte-babes eta laguntzarako tresnak aktibatzen ditu.

Koordinazio-zentroak arduratuko dira babesteko agindua gizarte-zerbitzuetara igortzeaz eta hauek bidezko neurriak hartuko dituzte. Berri-emate hori ahalik eta bide lasterrena erabiliz egingo da, batez ere bide telematikoz baliatuta. Horretarako, koordinazio telematikoko sistema egongo da, eta horrela, berri-emate hori bizkor eta isilpean egin ahal izango da. Bestalde, gizarte-zerbitzuek babesteko agindua telematikoki hartu ahal izateko beharrezko mekanismoak ezarriko dituzte eta BLZei jakinaraziko diete telefono- edo fax-zenbakietan, helbidean edo hel-

bide elektronikoan egon litekeen edozein aldaketa. Nolanahi ere, beti jasota geratuko da igorri den berri-ematea.

Koordinazio Zentroan babesteko agindua jasotzen bada eta, kasu horretan, biktima ez bada BLZetan agertzen, zerbitzu hau berarekin harremanetan jarriko da; horrela, bere beharrak zeintzuk diren ezagutuko du eta horiei erantzuteko dauden laguntza-baliabideen eta gizarte-babeserako baliabideen berri emango dio.

Biktimak uko egiten badie dauden gizarte-baliabide eta laguntzei, halaxe jasota geratuko da. Ostera, horiek onartuz gero, honela jokatuko da:

a) Biktimak berehala ostaturia behar badu oinarritzko gizarte-zerbitzuen laneko orduetan, BLZ biktima erroldatuta dagoen herriko gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarriko dira, premia abegizko baliabideren bat kudeatzeko.

Bide horrek ez badu fruiturik ematen edo premia hori oinarritzko gizarte-zerbitzuen laneko orduetatik kanpo sortzen bada, BLZ 24 orduetan lanean diharduten larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarriko dira (83).

Araba: Larrialdietarako Gizarte Zerbitzua, tf. **945 134 444**

Bilbo: Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua, tf. **944 701 460**

Bizkaian gainerako udalerriak: Foru Aldundiarekin itundutako zentroa, SOS-Deiak bidez (112)

Gipuzkoa: Foru Aldundiarekin itundutako ostalaritzako establezimenduak, SOS-Deiak bidez (112) (84)

Biktima ez dagoenean EAEn erroldatuta, Araban BLZ Larrialdietarako Gizarte Zerbitzuekin (945 134 444) harremanetan jarriko dira; Bizkaian eta Gipuzkoan, ostera, SOS-Deiak era deituko dute (112) eta honek jarriko ditu harremanetan kasuan kasuko Foru Aldundiarekin itunduta dauden zentro eta establezimendu horiekin.

(83) Biktimak berehala ostaturia behar badu eta Bilbon bizi bada, BLZk Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuekin (SMUS) harremanetan jarriko da eguneko 24 orduetan. Zerbitzu honek aztertuko du biktima nola eramango den larrialdietarako harrera-zerbitzura bai eta hara joaten nor lagunduko dion.

(84) Protokoloa onartu ostean, halako egoerei erantzuna emateko Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Larrialdietako Zerbitzua sortu du. Orduetgia 15:00etatik 8:00ra da astelehenetik ostiralera, eta larunbat eta jai egunetan egun osokoa (telefonoa 943 224 411).

